

AMA BIRJINA' REN
Lore = Illa



V
2



M 14965

A.T.W
4462



M. - 14965 R. - 7817

A.T.V.
4452

AMA BIRJIÑA'REN

LORE-ILLA

- ORAIN BERRIRO -

ARGITARATZEN DANA



DURANGO'N


Florentino Elosu'ren Etse Argitaldari'an

1917

ARGITALDARIARENA DA

1.025

OBISPADO
DE
VITORIA



Gobierno eclesiástico, S. p.

Por las presentes concedemos Nuestra licencia para que D. Florentino Elosu, vecino de Durango, pueda imprimir y publicar el adjunto manuscrito titulado Ama Birjiñaren Lore-illa, toda vez que habiendo sido examinado de Nuestra orden, según el censor, nihil obstat al efecto de que se trata.

Dios guarde a V. muchos años.

Vitoria 31 de Enero de 1917.

Dr. José Leoncio O. de Zárate.

EGUN BAKOITZIAN ILTZEN DIRAN eunda berrogei milla lagunen onerako

(Miñutu bakoitzian larogeita ama zazpiren bat,
urtean berrogeita amaika milloi).

Jaunaren izenian eskatzen diegu Meza Santua entzutera datozen kristau guziaz, erregutu degiotela Jesus'en Biotz Sagraduari, mundu guzian orain agonian dauden eta gaur bertan ill bear duten pekatariak gatik.

(Eun eguneko barkamena, Aita Santu Pio Amargarrenak 1907-ko Urriaren 26-an).

MEZA GUZIEN ESKEIÑIA

(Egunero ematen dira Eliza guzian
irureunen bat milla Meza).

Eskeintzen dizkitzut, nere Jaungoikoa, mundu guzian gaur ematen diran Meza guziak, orain agonian dauden, eta gaur bertan ill bear duten pekatarien onerako.

¡Gure Erredentore Jesusen Odol balio guziz andikoak iritxi degiela Misericordia!

(Irureun eguneko barkamena Aita Santu Pio Amargarrenak 1907-ko Urriaren 26-an).



O A R K U N A



Irakurle maitea: atsegin aundia demaio noski gizonaren biotzari, negu belz ta gogorraren ondoren, ainbeste lore ta osto usaitsuz apaindurik, begietan aurkezten zaion Orrillak. Orobat, Maria txit Deunari ere guziz pozgarri izan bear zaio alotegabe, urteko zatirik alaitsuenean gure biotzak birtutezko lore ikusgarriz ederturik berari eskaintzea.

Eskainz bikañ au ill ontan egunerokua izatearren, tajutu degu idaztitxo au. Nik, euskeraganako

maitetasunaz ta adiskide zintzo baten leiaz, itz-joskera al dedan neurritz txukuntzea besterik ez det egin. Agian etziñituan entzungo, gure ele maitea garbitzearren ezarri ditudan itz batzuek; ez ikaratu baña; idaztiaren azkenean arkituko dezu garbi azalduko dizkizun iztegitxo bat. Nere lanak uts aundiak izango dituala, badaikit; ala-ere beste obego bat eskuratu bitartean, Goi-Jaunaren, zure ta nere Ama maitagarria gorespentzeko, onezaz balia zaite. Berak ordainduko dizu guzia zuzenki orain lurrean eta gero bertiko zeruan: auxe opa dizut. Agur.

Lore-illako egipen oek, otez-kigabe Jainkuaren Amaren gogogokuak izan bear dute; kris-

tauentzat berriz txit onkarleak. Orregatik guzien biotzak ortara erazartzeko, VII garren Pio Doipuruak deboziyo onegatikan, egun bakoitzako eun eguneko barkapenak eskañi zituan; eta il guzian bein barkapen osoa irabazten da, ogenak aitortu, Jesus artu ta Eleizaren aldez otoizturik. Ber-berak gañera, barkapen oyek purgatoriyoko animai ezarri al izateko baimena eman zuan.



IRAKURLEARI

Garai guzietan gure Ama Eleiz Deuna ezetsitua izan da: kristauai gezurrezko dotriñ eta beste gai-

tzaz, zeru-bidetikan alde egin erazirik, betiko bizitz zoriontsua galerazteko. Orregatik dakusgu, asko dirala bekatuko bide lasaie-tan dabilzanak; gutxi berriz birtu-tezko bide estuari darraiotenak.

Eleiz Ama Deunak bere se-mienganako errukiz beterik, Ama Birjiña'ganako jaiera ipintzen die begietan; ispillu eder orri ongi begiraturik, galdu ez ditezen; eta errukizko Ama gozo onek bere eskubide aundiaz, bekatuan sar-tu ta itxuturik dauden anima ga-xoak, bide onera ekarri ditzan. Ain baliyo aundiko Birjin txit Deunarenganako deboziyuetan, ez da izango noski txikiena Orri-lllean egiten zaiona, Amarik mai-tienari, garaurik on eta ederre-nak eskañi bear zaizkion letz,

urtearen illik alai ta ederrena eskaintzen bazaio.

Jaiera onek, Italia'ko errietan izan zuan lenbizi bere asiera; geroz España'ko urietara, ta azkenik Euskal Erriko erri txikietara ere zabaldu zan. Guziak ezagutu dute, jaiera au onura aundikua izan dala, Goiko Jaunagandik bear aldi guzietan osakaia irixteko; ta benaz jarraiturik deboziyo onetako bide gozoa, Beren Jaun eta Egillea, Eleiz Ama Deunak nai bezela emen serbitu, ta gero Beraz beti atsegin dezaten. Ala gerta dedilla.



III ontako egun guzietan Maria Deun
Deunari eskañi litzaizkioken
birtutezko loreak.

1.º Maria'ren izen gozoa entzutean, edo idatzirik ikustean, dagokion anditasuna adierazteko burua zerbait makurtu.

2.º Maria'ren debotorik aundiena izandako purgatoriyuan dagoan animarentzat, meza bat atera, edo gutxienez entzun.

3.º Erlojuak ordua jotzean, Agur Mari bat errezatu.

4.º Goizean jazterakoan eta gabeen erazterakoan Ama Birjina'ri bere bendiziyua eskatu.

5.º Gaitzeren bat egin digu-
nari edo begiz ezin ikusi degu-
nari, mesederen bat egin.

6.º Gorputzaren zentzunak,
batez ere begiak arretaz gorde.

Kontriziozko Egintza itz gutxitan

Nere Jaungoiko ta Jaun Jesu-
Kristo, neurrigabe ona zeralako,
damu det biotz guzitik, Zu ofen-
ditu izana; lenago ill pekatu egin
baño. (1)

(1) Kontriziozko Egintza onek serbi deza-
ke estutasunetan, baita maiz esateko ere,
bere bitartez, alik lenen, Jaungoikoaren
graziara biurtu dediñ, pekatu mortalen bat
egiteko zorigaitza izan duana.

LENENGO EGUNA

Maria'ri ill ontan agertzen zayon
jayeraz.

Maria'ren laguntzaren bear
aundiyan arkitzen gera guziyok;
berak, pekatariyen Amarik mai-
teena dalako, itzuli ditzake gu-
gana bere errukizko begiyak; eta
bere otoitz altsuen bitartez, gere
animen gaizkapen salbazio ta be-
tiko zoriona iritxi ditzakegu. Zo-
rionez, bere batayoko soñeko
garbiya beñere zikindu ez dua-
nik, çarkitu ote liteke gure ar-
tean? Onelakoren bat balitz ere,
ludi gaizto ontako arriskuz ingu-
raturik ikustean, erraz gogoratu

lezake, laister erori ditekela bera ere pekatu-rik ikaragarriyenean. ¡Birtute bidean txit aurreratuak zeudela uste zuten zenbait, uskeri batez, pekatuan erori izan ziran, inpernuko su-garraren erdiyan betiko ondaturik geldituaz! Agiyan norbatzuek esan dezaketekete, pekatu-bide galduetatik aldendurik, penitentziyakoan bizitira; bañan onelakuai, egoera onetan aizkeneraño iraungo dutela ¿nork aseguru dezayeke? Gogora bitzate, batetik, beren giriña gaiztoen indar aundiya, bestetik, gaitzerako guziyok daukagun errazkeri bildurgarriya, gero, lenagoko ibillera txarren oroipen illuna, gañera, pekatu-ramateko indar guzizkua daukaten beste ainbeste gaizbide; ta

orduan bildur eta ikaraz beren barrenetara sarturik, beren buruai galde bizayete, zenbat alegin egin ote dituzten beren gogo edo animak gaizkatu ta salbatzeko.

Onenean pekatariya zeralako, atsekabetuko zera. Eta ¿nor ez ote da? Baña zeruko Ama gozo onen erruki-bearrez bazaude, orra nun daukazun bertan zure animaren gaizkapen-salbaziyuaz oroitzen noiz asiko ote zeran zai, ta orretarako bear dituzun eskar eta laguntz ugariyak eratzeko gerturik. Zure animaren egitekorik bearrenaz, bera egunen batean betiko galdurik ez ikusteko, iñoiz gogoratu bazera, ¿zenbat dira zeruko bidean aurreratzeke bildu dituzun garauak? Oroi zaitte ba pekatariya, ta siñistu, antzi-

ñatik zure pekatuen zorrak ordaintzen egongo zīñala geiztokiko suaren erdiyan, baldiñ Ama errukitsu au zure bitartekotzat jarri ezpalitz.

Egi au ikaragarritzkoa izan arren, ustepen aundi bat euki bear degu Birjiña guziz Santuarenganako jayeran. Ama eztitsu onek artuko gaitu bere ardura-pean, eta geron aldeez dezakeguna egiñaz, berak iritxiko digu aizkengabeko zoriona. Alote gabe, Amarik maiteena bere seme jayeradunaz errukitu gabe egotea ezin diteken gauza da. ¿Zenbat mesede egin ez dizte Ama maitagarri onek pekataririk aundi-yenai ere, bere onran barauren bat egin izan dutelako, edota errosarioren bat esan dutelako

bakarrik? Eta orrelako uskeri batengatik aiñ esker aundiyak irixten baditu, ill oso bat bere jayeran igarotzen dutenen aldetz ¿zer egingo ez du? ¿ta zer, bizitz guziya bere serbikintzan igarotzen dutenezaz? Egin ditzagun ba eskar oyek eskuratzeko alegin guziyak, ziñez asi ta jarraituaz bere gogoko jayera ontan, bear diran gertapen eta biyotz garbiaz. ¿Nork daki, betiko zoriona irixteko, Gure Jau-nak orain erutzen digun aldi berezi au, berriz izangó ote degun?

GERTATUA

Bein batean Ama Birjiñaren kofradiyan izendatu zan gazte bat: laxter ordea beste asko letz deboziyua alde batera utzirik asi

zan lasaikeri aundiz bizitzen. Gau batean lotan zetzala, berak ezagutzen zuan kofradi artako apaiz batek arrendu zion, utzi zitzala zeramazkian bide galduak, eta benaz biyurturik, jarraitu zezayola Maria'ren jayera eztitsuari; baña guziya alperrik: gaztigu on au ezer baliyo ez duan ames bat besterik etzan gazte onentzako. Berriz ere lenago baño gogorkigo ekin zion apaizak esanaz: etzegoala urruti berarentzat aizken-ordu madarikatua, baldin eta baldin ibiltze galgarri ayekuzten ezpazituan: ames ikaragarri ontan iruditu zitzayon, esku-tikeldurik, eleizarazeramala apaizarrek, eta ara eldurik ziyotzala: “Zure pekatu guziyak ongi aitortu itzatzu, ta oraindañoko aitor-

penetan, konpesioetan lotzaz ixildu dezun pekatu larri ura ere, aitortu ezazu„.

Esnaturik gaztea, biyurtu zan bildur aundiz Jainkoaren serbitsura, aitorpen on baten bidez, bizitzen zala aurrerontzean kristau on baten eran, eskar aundi ura Birjiñ guziz santuari zor ziyola aitortuaz.

OPARIYA

Bakoitzak Ama Birjiña'ren iduri bat berakin eramane maiz esanaz: “Izan zaite beti nere Ama maitea„.



BIGARREN EGUNA

Gure animaren gaizkapen edo sal-
baziyuaz.

Mundu ontara ¿zertarako eka-
rri zaitu Goiko-Jaunak? ¿Jaten,
edaten, zere gorputz ustelkor ori
soñeko ederrez apaintzen, eta al
ditzakezun jolas eta atsegiñik
aundien artean igarotzeko, bizitz
labur ori eman dizulazkoan al
zaude? Jainkoa serbitu ta maita-
tuaz, zure animaren gaizkapena
eskuratzeke bakarrik etorri ziñan
ludi ontara. Lurreko izaki galkor
guziak, bere serbikintzan lanbi-
detzeko eman zizkitzun Jainkoak.
Gerta al balitzake emengo izate,
diru ta ongasun guziaz zerori ja-

betzea; alaz guziz ere, zure anima bakar ori galduko bazendu, etzenduke ezer aurreratuko. Egunak, asteak, illak, urteak, guziak igaroko dira, ta oekin batera munduko zorakeri ta itxumenak ere; gure anima ordea ez da inoiz ere ilko: orregatik izango da, edo beti-zoriontsua Jainko maiteaz atsegintzen, edo betiko zorigaitokoa inpernuko su ta oñazez puzkatzen. Animaren salbaziya, auxe da gure egitekorik bearrena; osterontzekoak, ontara ez badijoaz, ez dira gure ondamendirako baizik.

¡Ene kristaua! Ez uste izan, zerrua munduko izate ta diruz irabaztea; zere burukeriai gogor egiñaz, griña gaiztoak eziaz, arrokeri ta lizunkeri guziak oinpera-

tuaz, onela Jaunaren aginduak ongi beteaz bakarrik zure anima gaizka dezakezu. Bañan ¿nola-koa izan da igarotako nere biziera? ¿Eta daramakidana nola-koa da? ¿Nere asmo ta egintzak zerurako bide zuzenetik al naramate? -¿Zer izango ote de nere animaz beste betiko bizitzan? Bein galdu ezkerro, ordaintzerik ez, beti-betiko gaitzetsitua. Ludi ontako gaitzik geyenak izan oi dute beren osakaya; ondo-ez, edo gaxotasunen batek artu gaituanean, iñoiz osasuna iritxi oi degu sendakaien bidez. Esku bat galdu duanari, bestea gelditu oi zayo beraz baliatzeko; anima ordea bakarra da, ta bein galdu ezkerro, galpen ori ordaintzerik ez dago, Jaunaren begietan be-

tiko madarikatua izango da. Oek onela izanik gure salbaziyuaz oi degun baño geigo ¿ez al degu leyatu bear? Usterik gutxien degunean arrapatu gaitzake bat-batetako eriotzak, eta ¿naiko degu une batean inpernuko oñaze ikaragarrietara erortzea?

GERTATUA

Maria guziz Santuak, bere debotoai ezik, beraz asturik bizi diranai ere, anima gaizkatzeko grazi ugariak iritxi izan oi dizte. Ala gertatu zan bein batean Eskilio zeritzan mutil gazte batekin. Gaztea izan arren, txit aurreratua zegoan gaiztakerian. Jaunak ala nairik, guziak, ilko zala, etsitzerañoko gaitz gogor batek arrapatu

zuan. Egoera atsekabe artan zegoala, su andi bat zegoan tokira zeramatela, iruditu zitzayon. Su artatik alde egin nairik zebillela, ate bat arkitu zuan, eta andikan gela zabal eder batera sarturik, ikusi zuan Maria Birjiña zeruko santu ta aingeru ederrez inguraturua. Au ikustean belaunikatzen da Eskilio, ta asten da berari erreguka; baña Ama onek arpegi asarreaz, suaren erdira eramateko agindu zuan. Negarrez urturik itz ayek entzutean, ipintzen ditu bitartekotzat an zeuden aingeru ta santuak; alaz guziz ere alperrik: gaizto aundi bat zala, ta egundaño Agur-Mari bat ere errezatu etziola, erantzun zien oyei Maria Birjiñak. Dardar eta bildurrez zoraturik orduan, bi-

yotz guziz agintzen du Eskiliok, utziko dituala betiko bere ibilli galduak, eta bere deboziyuan leyalki jarraituko duala aurreron-tzean. Arrendu zioten berriz ere an zeuden santu ta aingeruak: orduan gogortasun aundiz eran-tzun zion Maria txit santuak, pekatuen egizko penitentzia egin, oen barkapena iritxi, ta bere jaieran aurrera zintzo jarraituaz, ostera jasoko zala bere kondena-zioko epaya. Onetan ezaguerara etorririk Eskilio, ta gaitz artatik sendatu ezkeru, Ama-Birjiña'ren onran irasirik zegoan erlijioso-etxe batean sartu zan, eta an bizitz garbi baten bitartez santu aundi bat egiñik, orain Ama mai-tagarriaren aunditasunak abesten arkitzen da zeruan.

OPARIYA

Ama Birjiña'ren irudi batean aurrean otoitz egin, eta bere babesean animaren gaizkapena ipiñi.



IRUGARREN EGUNA

Gure animaren aunditasun eta edertasunaz.

Gure anima zeñen aundi ta ederra dan jakiteko, noren eskuetatik aterea dan gogoratu besterik ez dago. Jainko beraren eskuetatik sortu ta bere antzera egiña da; beraz; sortze aundiya-gorik ezin dezake izan. Auxe bera dasa Idazti Deunak ere:

“*Jaungoikuak gizona Bere antzera irazan zuan*„. ⁽¹⁾ Itz oezaz dakusgu, edertasun eta aunditasun guziyen iturburuak bere antzera egindakua dala gure gogo. Orregatik berari deitzen diogu guziok *Aita Gurea*. Baño guk askotan gure animaren aunditasun eta edertasunaz ez oroitzeaz gañera, bere edertasuna ogenez itxusitu oi degu, deabru madarikatuaren anz izugarriya ar-eraziaz. ¿Gaiztakeri aundiya gorik egiñ ote dezake gizonak?

Bai; pekatuak galdu zuan eta galtzen du gure anima; orrek edertasun guziya kentzen diyo, ta orrek betiko galdua izateko arriskuan jartzen du. Eta arrisku

(1) Et creavit Deus hominen ad imaginem suam. Gen., I-27.

ontatik ¿nork atera dezake? Jaungoikuak bakarrik: Berak atera zuan lenagotik, eta orain ere Berak besterik ez dezake inork atera. Orra bertan zeruko Aita onek digun naitasunaren agiri bat. Gu inpernuaren menbetik askatzeko biyaldu zuan bere seme bakar Jesu-Kristo, ta onek bere zañetako odola Gurutze batean ixuriaz, berterosi zituan gure animak. Ez aztu kristaua zure gogoaren baliyo aundiaz; Jaunak, eriotz gogor eta lotsagarriena zuegatik igaroaz, orixe adierazten dizu-ta. ¿Gauz oek onela izanik, griña txar bat aurrera eramategatikan, Jaunak ainbeste alegiñaz erositako anima au, nola nai galtzera ausartuko gera?

Gogartu dezagun azkenik, ze-

ru ederrean beti bizitzeko Goiko Jaunak egin zituala gure animak. Bai: zeru-lurren jabe dan Bakaldun aundiyaren alaba da gure anima; Berarekin betiko bizitzan doatsu izateko egiña. Anima onek Jainkoaren maitetasunean beti irauteko, alegin guziyak egin bear ditugu. Ziñez ta gogoz zeruari bear diogu eskatu, berarentzat gerturik dagoan sari aundiya galleraziko dion gauzik, iñolaz egin ez dezan. ¡Arren Jaungoiko maittea! Nere anima oni ludi ontako ongasun galkorrak gorrotaturik, bere biziera zuzentzeko indar ugariak eman zaizkiotzu; Zurekin bat beti zorioneko izatera, zeru eder ortara eldu dedin.

GERTATUA

Éraman ezin izan oi du Maria guziz Santuak, bere serbikintzarako eraturik dagoan gauzen batez, gaiztakerirako baliatzea. Ala gertatu zan bein Sebilla'ko urian. Ama Birjiña'ren billerako begirale zan batek, billera ontan sartu nai zutenak izendatzeko idazluma eder batzuek ipiñi zituan erazko tokiyan. Zorigaitzez mutil gazte bat luma ayetatik bat ostu ta gauz gaiztoak idazten asi zan. Onetan ari zala, ematen diote matralleko izugarri bat, nork eman zezayokeanik ikusi gabe; ta matrallekoa artuaz, itz bildurgarri oek aditzen ditu: ¡zer! ¿nere onrarako gerturik dagoan gauz batez, gaiztakerirako baliatzen

zera, anima galdua? Itz oek aditzean, korde gabe erortzen da lurrera; ta kordera etorri zanean, bere eskuan lenago zeukan luma ura aldendu zayola dakus. Orduan gogoratu zitzaion bere gaiztakeriz ta Ama Birjiña'ri egindako urruinkeriz gertatu zitzayola: ezagutu zuan bere utsegiña ta egizko aitorpen batez Jaunaren serbikintzara biurtu zan. Etzitzaion alabaña betondoko beltzitua berak nai bezin laxter izkutatu. Badirudi, eramandako zigorrada bere onez aurrerontzean ere gogora erazi nai ziola Ama gozo onek. Obeki etorriko zitzayon beste Santu askori lez, luma artzaz Maria'ren izen eztitsua idazteko eratzea.

OPARIYA

Kontzienzia aztertu, ta ogen larririk arkitzen badegu, bereala aitortu beardan gertueraz; arkitzen ezpadegu berriz, lenagokoak biotz guziz gorrotatu.



LAUGARREN EGUNA

Gure gorputzaren sari onaz.

Ludi ontako egun guziyak gorputzari atsegin ematen daramazkigula, esan diteke. Baña kristaua ¿gorputzaren atsegiñak inpernuko bidetik anima badaramate, gorputza ere bertara juango dalaz, etzera iñoiz oartu? Baldin anima galtzen badezu, nai ta nai

ez, gorputza ere galdu bearrean izango zera; ta egundaño amaituko ez diran geiztokiko oñaze ikaragarrietan beti bizi bearko du. Baldin orain, buruko min, gose, neke, edo laxter amaitzen diran onelako ez bearren batzuek, ainbeste minberatzen bagaituzte, ¿inpernua zer izango ote da? Antxe igaro bearko ditu ba gorputzak ezin zenbatu ala atsekabe.

Ikaragarritzko gauza: egunaren ordu ta garai guziyak, gorputzarentzat atsegiñ billa igarotzen dira; atsegiñ oek ordea ¿zer on ekarri ditzaieke gorputzari? ¿noski bizitz luzeagoa? ez; alaz guziyaz ere, gorputza illko da: orduan, usai ta kiratza alde guziyeta banatuaz gauzik itxusi ta nazkagarriyena egiñikan ge'ditu-

ko da; ta izurriren bat sortu ez dedin, lenbailen lurpetuko dute, antxe aarren janari izateko. Soñeko ederrez apaindu ta ukendu usaitsuz igortziriko ibilli oi zan gorputz arren bizitokia, aarrez beterikako lur-zulo bat izango da. Orra gorputzaren eta berari emandako atsegiñ lizunen azkena. Eta au jakin arren, geyago begiratzen diyogu gorputzari animari baño. ¡Itsukeri negargarriya!

Gorputza ere maita ezazu kristaba: baño betiko bizitzan edertasunez inguraturik izateko eran maita zazu. Munduko izate ta ongasun guziyak, aizeak laxter izkutatzen duan auts piskabat besterik ez dira: ta gorputz ta anima inpernura bagaramate, ¿zergatik oyen billa nekatu? Ori

ez da oyek ongi maitatzea. Bere gorputza atsegin-pozez beterik ikusi nai duanak, Jaunaren ágin-duak zintzoki bete bitza. Onetarako Jainkuak egin gaitu: eta bera serbitu ta maitatuaz gure egunak igaro ditzagula, besterik ez digu eskatzen.

GERTATUA

Maria guziz santuak, bere jayeradunen animako onaz ezik, gorputzakoaz ere begiratu oi du. Ala gertatu zitzayon Gurutzeko Ageda zeritzan erlijiosa bati. Oraindik aurra zala, etxeko toki altu batean bere lagunakin jolasean zebillen. Usterik gabe bulsatzen diyo ayetako batek, eta leyotik bera erortzen da: baña

une artan bertan Maria Birjiñá'ri deiturik, bereala lagunduzion Ama maite onek, lurra jotzeko garaian, miñik artu etzezan. Egun ura ezkeroz ere, Ageda'ren osasunaren ardura beti izan zuan Maria Birjiñak. Andik laxter, etxean bakarrik zegoala, limosna eske etorri zitzaion Jainkoaren izeneko bat. Errukiturik Ageda'ren biyotza, badijoa maigañera labana batekin igorik, eskalearentzat zerbait artzera; bañagure egintz onak ezin ikusi dituan deabrua etzegoan lo: mai taguzi bota zuan Ageda, ta erortzean, ebaki aundi bat egin zion labanak beatzean. Bere burua egoera artan ikustean, batetik zeuzkan oñazeaz ta bestetik etxe-koen bildurraz, aurra negarrez

asi zan. Deitu zion orduan biotz osoz Maria'ri, ta idatzirik dago, Ama gozo au agertu zitzaiola esanaz: "*Nere alabatxoa, dea-bruaz ez bildurtu; kalteren bat egin nai dizunean, nere Semeari deitu zayozu, ta Berak lagunduko dizu*„. Ona emen Amarik maitagarrienak agertzen digun naitasunaren agiri bat.

OPARIYA

Gorputzari eman dizkiogun atsegin guzien ordañez, ildura edo nekeren bat gogoz artu.



BOSGARREN EGUNA

Bizitzaren laburtasunaz.

Ludi ontako egunak badijoaz, ta berakin batera, ni ere banoa. Agiyan igaro zaizkitzu ogei, ogei-tamar, berrogei edo geiago urte, ta ñoiz itzuliko ez dira. ¡Gogapen illuna! ¿Zenbat urte geiago iraungo ote ditu munduan nere bizitzak? Ez dakit; baña nola nai ere asko izan bearako ez dutela bada-
kit. Au egia da, aloterik gabe. Bizitzaroa berealaxe dijoala, garbi asko dakusgu; ta geron itzaldiyetan ere urteak igarri gabe dijoazkigula, maiz esan oi degu. Bizitz ontako egunak, beste bizitzakoaz azterkidetzen-konpara-

tzen baditugu, aizea bezela iges-
tutzen dan gauz uts bat besterik
ez dirala, laxter ezagutuko degu.

Begien aurrean guziok beti
euki bear gendukean gauza da
bizitzaroaren laburtasuna. Añ la-
burra izan arren ordea, baliyo
aundikoa da: beraz bakarrik ira-
bazi baidezakegu neurrigabeko
zoriona. Begira emen, kristaua,
egun labor batzuen truke betiko
zoriona ematen dizulako, Jaunari
zenbat zor diozun. Bere serbi-
kintzan igarotako unerik laburre-
nagatikan, neurri gabeko zoriona
demaigu. Ordu erdi bat oraziyo
egiten, eta gure bizitza bide zu-
zenez ote dijoan aztertzen egu-
nero igarotzeaz, ¿zenbat aurrera-
tu ez ote gentzake geron buruak
zeru ederrean ikusteko? Onela

igarotako aldiya bai ongi lanbide-
tua .litzakeala. Egun guziak bera
serbitu ta maitatzeko eman diz-
kitzu Jainkuak. Mundu ontan
Jainkuaren maitasuna baño gauz
maitagarri ta aundiagorik ezin
diteke izan; eta berak bakarrik
ase dezake gizonaren biotz gose-
tia. Ez uste izan, kristaua, eleizan
bakarrik otoitz egin ditekeala;
nun nai biyotzez egin gentzake,
ta nun nai gauz guztiaz gain maita
gentzake gure Jaungoikua. Bere
naia auxe da: gure lan da pauso
guziyak bere serbikintza ta lagun
urkoaren onerako izatea. Beren
egun laburrak ontan igarotzen
dituztenak bakarrik, zeruko erri-
diaz jabetuko dira; ta oyek ba-
karrik Jaunarekin bertako zorio-
naz atsegingo dute.

Baña goiko Jaunak emandako urte laburrak nagikeri, arazotxar ta pekatuan igarotzea; bai illun eta negargarriya dala! Zerua irabazteko garairik egokiena orain dezuz, kristaua. Zere bizitza bear bezela igaro nai badezuz, Jaunaren aginduetako bidetik ibilli zaitetz; ta zure egoitzari darraizkion egitekoak gogo onez bete itzatzuz. Bildur izateko da; asti geiagonaiko gendukean egunen bat etorriko zaigula. Orduan geron buruak galduta ikusterik naiko ez degu: baño, Egillearen menbetsunetik aldegin badegu, geron biyotzetatik bere maitetasuna bota badegu, ¿zer besterik dagokiguke?


GERTATUA

Ontarte asko ekarri oi ditu, Maria'ren alabantzan aldi laburra bederik igarotzeak. Ala dakusgu gertaldi onezaz: Badijoaz bi mutil gazte arratsalde batean jolasera: aldi aura ibayan igaro nairik, sartu dira biyak untzitxo batean. An zebiltzala batak besteari diyo: naikoa jolastuta, beste egitekorik gabe gauden ezkerro, Ama Birjiña'ren billerako arauak agintzen diguten otoizketa egin bear degu. Besteak ordea darrantzuyo: pekatuaren azpian ez gaitu bearpetzen gauz orrek: jolas-eguna degu gaur, eta otoitz egiteko gogorik ez daukat. Alaz guziz ere ekin diyo besteak oraziuari. Andikan laxter, orra nun

aize indartsu batek zijoazten untzitxoia iraulirik, biyak urtara botatzen dituan. Bertatik deadar egin ziyoten Maria'ri, ta berealaxen agertu zitzayen atsekabetuen Poza dan zeruko Ama. Orduan, bere otoizketa egin zuana, esku guziz altsua luzatuaz, atera zuan itotzeko zori artatik. Auxe bera uste zuan besteak egingo zuala beraz ere; baña beragana biurturik esaten dio Maria Birjiñak: "etzeunden zu arestian ni onratzeko; ni ere ez nago orain zuri laguntzeko, ". Basekusan gertatzen zan guziya beste lagunak; eta otoizketa egiteaz beste gabe biziya gordeziolako, eskar ugarriak eman zizkion Maria guziz santuari.

OPARIYA

Maria'ren onran ipiñirik da-
goan otoitzen bat errezatu.



SEIGARREN EGUNA

Eriozko pekatuaz.

Pekatu egin badezu, bildur
izan zaite. Baldiñ zorigatzez iñoiz
ogen larriren bat egin badezu
ezer egin dezun bai aldakizu?
Zure Jaun eta Jabe, zure Egille
ta Berteroslea ezereztu nai izan
dezu; zure Aita ta ongille aundia
utsera biurtzeko alegiñak egin
dituzu: Bere onegiñai billaukeriz
erantzun; Bere menbetik lotsa-
gabekeriz aldendu: Bere aurka

jarki: Bere graziya galdu: Bere Aitatasuna ukatu: egintz onen irabaziak galdu: gloriaren jabe-gaitasuna galdu; ta su-leizeetara joatea merezitu. Zorigaitz izugarrik, ¿izan al diteke? Undamendi aundiyagorik ezin bereganatu dezake irazaki batek. Eta au onela izanik, ¿oraindik ere egoitz ikaragarri orrezaz etzera bildurtzen? ¡Madarikatua orrelakorik gertatzen bazaizu! Lena-go zure Aita gozoa zan zeru-lur-
ren jabea; zure etsairik gogorrena dezu orain; eta zu Beragandikan aldendurik, deabruaren menbe zaude; bere morroi galdua zera. Orra pekatuaren saria ta zure buruari dakarkiozun undamendi atsegea.

Aldendu zaite ba lenbailen

pekatuko bidetik. Jaunaren urri-kaltasunik aurrerontzean izango ote dezun ez dakizu; urrengo pekatuan eriotzak arrapatu zaitzake, ¿ta orduan? betiko undatua izango zera orduan. Zure egoitz gaiztoa orain ezagutu dezakezu garaiz: orretarako Amerik gozoenaren jayera eder onezaz baliya zaite; bere laguntzapean jarri zaite; ta bere Seme maiteagandik, egizko damua ta aurrerontzean ongi jarraitzeko sendotasuna irixteko grazi ugariak eska zaizkiotzu.

GERTATUA

Pekatuan erortzea nai ez duanak, Birjiñ guziz santuaren jaieraduna izan bedi; ta pekatutik aldentzeko bear dituan laguntz ta

graziyak, berak eratuko dizkio. Ala gertatu zan mutil gazte batekin Mesina'ko urian. Bazeramaten nai ta naiez bezela gazte au, bide galdura bai lagun txarrak, eta bai deabruaren tentazioak. Gazte onen biotzean ordean, etzegoan oraindikan oso itzalirik Maria'renganako jaiera ederra. Alaz guziz ere pekatuan erortzeko zori larrian arkitu zan beingo batez. Pekatuaz bere anima betiko galtzera zijoala ezaguturik, bertatik deitu zion Maria Birjiña'ri, es-tutasun artan lagun zezayola, eskatuaz. Bereala sentitu zuan bere barrunean tentaziyo ura bota, ta lagun gaizto argandik alde egiteko indar aundia. Onela gazte-gaztetandik, Birjiñ guziz santua beren zaindaritzat bear lukete

artu guziak Bere deboziyuaren bitartez mundu galdu ontako arriskuetatik atera ditzan Ama maite onek.

OPARIYA

Tentaziyo edo bekaturako zorian arkitzen geranean, errosariyuai muñ egin; bekatua ta Maria'ganako deboziyua ezin elkartu ditezke-ta.



ZAZPIGARREN EGUNA

Pekatuak dakarzkian ondorenak.

Askotan gertatu oi zayo ludian berari egindako gaitzez bengatu nai duanari, orretarako erabiderik ez egokitzea; Jaungoikuari

etzayo ordea orrelakorik gertatzen: ogenak kastigatu ta etsai guziak azpiratzea nai badu, noiz nai dagike. Bera baño aundiagorik, geyago dezakeanik, eta Berrari eskuak lotuko dizkionik ez da goalako.

Gogartu ezazu ba, pekataria, dagokion zigorraldi gabe egundano ez dala gelditzen pekatua. Nai balu Jaunak, ustegabeko eriotzaz ongasunak eta bizitza kendurik, suleizeko oñazetara bota zaitzake. Au guzia oraintxe bertan egin dezake. Eta zuk pekatari itxua, ¿al dakizu noiz arte barkatuko ote dizun Jaungoikoak? ¿Nola ba, jan, edan eta lo egiten dezu geiago bildurtu gabe? Bizitz ontan edo bestean, beti zigorratzen du Jainkoak pekatua; orre-

gantikan salbaziyorako bi bide dauzkatzu bakarrik; edo penitentzia edo inpernua. Gure lenbiziko gurasoak pekatu egiñagatik, Jaunaganon z biurtu ziran, eta zegokien barkapena iritxi zuten; baña ayen pekatuaren ondorengo kalte izugarriak badiraute oraindik.

Negarrezko ibar ontan dakuskigun eritasun, gosete, guda ta sendietako ainbeste zorigaitz ta naigabe, pekatuaren ondorenak baizik ez dira. Jaunak bidaltzen dizkigu, oyen bidez gure biyotzak Beraganon z biurtu ditezen. Begira, kristaua; mundu au pekatua bear bezela zigortzeko tokoa ez izanik; alaz guziz ere bertako lan eta atsekabeak aundiyak baderizkigu, ¿nolakoak izan bear

ote dute orretarako berariz jarritako oñaze ta negarrak?

Esnatu zaite ba, jene pekataria! zure egoitz tristea ezagutu ezazu; orretatik lenbailen irtetzeko bear aundiyan arkitzen zerata: Amarik gozoena bitartekotzat artu ezazu, zure biyotza egiz onbiurtzeko gertu egon dedin. Onela bakarrik iritxiko dituzu Jaunaren grazi, adiskidetasun eta aurrerontzerako iraupen sendoa.

GERTATUA

Pekataria, zure ogenen kastigurik oraindikan artu ezpadezu, Ama deun deunari zor diyozu guzizko esker au. Entzun Toledo-erkian zaldun gazte bati gertatua: Ama Birjiña'ri debozio

epelen bat izan arren, biziera galdu ta lasaya zeraman. Jainkoak gazte onen gaiztakeri ezin eraman-alako azkengabea ikusirik, biziya kendu ta inpernura botatzea erabaki zuan. Maria'ren erreguz, ogeita amar eguneko epea eman zitzayon bere okerrieriaz damutzeko. Epe ortan ez ontzekotan, nai ta ez su-leizera joan bearrean zan. Arriturik zegoan gizon santu bat, zaldun artzaz Jainkoak zeukan errukiaz. Joanik sazerdote bategana eskatzen diyo, arren eta arren, gazte onen biyotza biurtzeaz alegindu zedilla: alperrik ziran baña apaizaren oarpen eta onesan guziak: igestu oizan zuzentzallearen arpegirikan ez ikusteagatik. Beingoza apaizarekin kalean arkiturik, ala diyo:

“Zoaz, Aita, nere begietatik, nerekin zer ikusirik ez dauka-zu-ta,,. ¡Ai errukarriya! onbiurturik Jainkoaren eskua atzeratu bearrean, gaiztakerian aurrera zijoan; eta Jaunaren esan ta keñadarik etzuan ezertakotzat artzen. Jainkoa kastigurako baño barkatzeko gertugo zegoan, arren aldetik zerbait damutasun ikusi ezkerro: naitasun onezko dei guziak alperrik ziran ordea. Artzen dute gabaz oñaze gogor batzuek: bere deadar eta karraxietara esnaturik, badijoaz etxe ta auzokoak; bada-karkiate konfesorea, baño guzia alperrik. Neurriak bete ziran, eta eriotz ikaragarri batez, merezi zuan zigorraldi latza erori zitzayon.

OPARIYA

Ama Birjiña'ren iduri baten aurrean belaunbikaturik, ordu laurden bat oraziyuan igaro; eskatuaz, libra zaitzala Jainko Semearen aserre gogorretik.



ZORTZIGARRREN EGUNA

Eriotzaz.

Maiz ortan pensatu, edo ez pentsatu, ill bear naiz. Egun bat elduko da, ta aide, adiskide, ongasun eta ludiko gauz guziyak utzi bearko ditut; baita nere gorputz ta biziya ere; orduan nere gorputzaren egon-lekua, aarrez betetako ill-obi edo lur-zulo bat

izango da: nere etxea betikotasuna; zorionekoa edo zoritxarrekoa, ori ez dakit. Egi au ziñesteko, Fedearen bearrik ez da; egunoro begien aurrean daukagu-ta. Zarrak, gazteak, aberatsak, abelgeak, pekatariak, justuak, guziyak iltzen dira: Maria, Ama Birjiña il zan: Jesu-Kristo il zan: ni ere ilko naiz.

Baña noiz ta nola ilko naizen ez dakit. ¿Eta non ilko ote naiz? ¿Zeiñ etxetan? ¿Eleizan ote? ¿Oiean ote? ¿Bidez noala noski? Ez dakit. ¿Berotasun luze batez, gaxotasun labur batez, ala ustekabeko eroriz?: Ez dakit. ¿Noiz ilko ote naiz? ¿emendik ogei, ogeitamar edo berrogei urtera? ¿aurten, ill ontan edo gaur gabean? Jainkoak bakarrik daki.

Berak esan du, eriotza usterik gutxienean etorriko dala, gabeko lapur bat bezela.

Oraindik ez nago gertu. Eta bein ere il bear ezpanu letz bizi naiz, eriotzaz batere oroitu gabe. Orain il bear banu ¿nere barrunbeak zer esaten dit? ¿Nora joango ote nintzake? ¡Noski emendik su-leizera! Baditeke. Gogapen onek ikaratzen nau, ¿zergatik zuzenbiderik jartzen ez det ba? Aldi batetik bestera, egun batetik bestera eriotzara urreratuaz noa, ta beti pekatuan bizi naiz. ¡Ai ene! Errukarriak Jainkoaren graziyan ez gaudela iltzen bagera, ¿zeñen aitzaki egingo degu? Ordu segurorik ez; eta on biur-tzea beti biyarko utzi, ¿txorakeri aundigorik al-liteke? Onelakorik

etzaigu gertatzen munduko egitekoetan. Ekin dezayogun ba bertatik gure egitekorik aundien eta bearrenari.

GERTATUA

Zer baliyo aundikoa dan Maria Birjiña'ren laguntzapea, garbi asko ikusi zuan amar urteko gazetxo batek. Eskolan zebillela, entzuten zion maisuari: Jainkoa guziz gain bear zala maitatu, eta eriotz orduan Maria'ren laguntzapea bezin atsegingarririk etzala: eta ordu artan, Ama gozo au bere aldez eukitzeko, bertatik ekin bear ziola, Berriari maiz deitzen itz oezaz: *“Agur Maria zeruko Erregiñ eta Amarik errukitsuena,,.* Oierakoan, jaikitzean, etxetik ir-

tetzean, eskolarakoan eta bere jolas guzietan, besterik etzitzayon entzuten, Ama Birjiña'ren gorespenerako Eleizak jarriya daukan otoitz eder au baño: orduoro euki bear lukete mingañean kristau guziyak. Etzuan utzi Ama maite onek sarigabe aurra-
ren jaiera. Ludi galduaren erdian, aurra aziyaz zijoan eran deboziyuaz oztu etzedin, Maria'ren naye-
z, gaitz aundi batek arrapatu zuan. Eriotz-larrian agertu zitza-
yon gozotasunez beterikako arpegiaz, ziyotzala: "*Ene semetxo, ¿ezagutzen al nazu? ainbeste bider zuk deitu diyozun errukizko Ama, ni naiz*„. Itz pozle oek aditzez bat, utzi zuan aur zoriontsuak, bere anima Maria guziz santuaren besoetan. Ona

emen, zer baliyo aundikoa dan
biyoz - garbientzat Ama Birji-
ña'ren jaiera.

OPARIYA

Iru bider lurrari muñ egin,
eta esan: "*Auts pixkabat iza-
nik, ¿zergatik arrokeriz bete-
tzen da nere biotza?*".



BEDERATZIGARREN EGUNA

Guzien aizken-epaiaz.

Aizken epai egunean, Epalle
gogorraren aurrean aurkeztu
bearko naiz. Bera ikustean izer
ikara cukiko dedan! Nere Aita
izanik, ez nuan maite izan: nere
Jabea izanik, utzi nion; nere Jain-

koa izanik, saldu nuan. Bere begirada batez arpegian botako dit nere esker gaiztoa, leialgabekeri ta nere saldukeria. ¿Orduan Ama Birjiña'ri deituko ote diot? ¿Nola ordea, baldin nere pekatuz Gurutzean bere Semea josi badet? ¿Nere aingeru zaindaria gordeko ote nau? ¿Nola ordea baldin berari obeditu ezpadiot? Deabrua izan zan beti nere adiskide, ta bera izango zait salatuko nauana.

Mundu guziaren aurrean nere okerrak agertuko dira. ¡Ai zer lotsa! aingerutzat neukaten nere lagunen aurrean, ain ona nintzala uste zuten nere gurasoen aurrean, eta ainbeste aldiz engañatu nituan aitor-entzunleen aurrean. Bai; nere pekatuak, bat bera utzi-

gabe antxe agertuko dira; gogapen eta gurari ezkutuenak, neronek izkutuan egindako okerrak; nere lagunakin egin nituanak; etxean, zelaian, basoan, bidean edo Eleizan egin nituanak. ¡O zer lotsa gorria!

Beti-betiko zorion edo zorigaitzerako epaia emango dit. Bizi eta ill guzien Epalle dan Jesu-Kristo'k berak emango dit, bedein-katua edo madarikatua deitzen didala. Nere joan-bearra orduan ¿norako izango ote da? ¿Jesu-Kristo'rekin betiko gozatzera, edo Satanas'ekin su-leiz illunetara? ¿Eta epai ori une batez bederik luzatu, edo beste batez aldatuko ez ote da? Iñolaz ere ez; betiraunde guzirako izango da. ¡Zein pozkarriak izango diran

Gaizkalearen itz auek!: “*Nere Aitaren bedeinkatuak, atozte zuentzat gerturik dagoan zorion bakalduntzaz jabetzera*„. Zer ikaragarriyak ordea beste ayek: “*Madarikatuak, ningandik beti-betiko sutara alde egin zazute*„. ¡O nere Jainkoa! ¿zer epai izango ote da nereztzat? Eta epai ontarako deitua egonik, beraz ez naiz oroitzen, zer ikusirikan ezpanu letz.

Kristaua, gure egipen guziaz aizken-epai egunean ludi guziaren aurrean agertu bearko degu; erokeri aundia izango da ba, munduko esames bategatik salbaziyo bidea uztea; pekatuko bide bat begien aurrean jartzen bazaigu, gere buruari galde au egin bear diyogu: ¿munduaren

esames bategatik Jainkoa iraintzen badegu, epai egunean Juez onek, zer esango du?

GERTATUA

Franzisko Deunaren lagun batek, izenez Fr. Leon, otoitz irazekian zegoala, aizken-juizioaren iduria ikusi zuan. Bazeritzaion zelai aundi batean bildurik, oztesamalda aundiak zekuskiala; ta tronpeta-soñu ikaragarria entzutean, oraindik ere beste asko ta asko zetoztela. Zerurañoko bi eskallera zeuden an, bat gorriya, eta bestea txuriya. Gorriaren gainean Jesu-Kristo zegoan bere alboan Franzisko deunarekin. Arpegi gozoz deitzen ziyen onek bere semeai eskallera artatik igotzeko: bañan asirik igotzen,

batzuek lenengo mallatikan, besteak laugarrenetik, besteak berriez goragokotikan, guziyak erortzen ziran. Au ikustez, goibeldurik Franzisko Aita, Maria zegoan eskallera txuritik igotzeko agindu ziyen bere semeai. Eta andikan igotzeari ekiñirik, Ama Birjiñak bere eskua luzatuaz, guziyak sartzen ziran zeruan. Bai, zorigaiztokuak gu, errukizko Ama onen zaintzapean jartzen ez bagera: Bere bitartez iritxi oi dute zoriona, zuzentasun eta garbitasunean bizi izan diran guziak.

OPARIYA

Oieratzean, Jainkoak juiziyo-ra deitzen diola pensa beza bakoitzak; eta ikusi, daraman bi-

zieraz, zer esaten dion bere kontzientziak.



AMARGARREN EGUNA

Inpernuako oñazeaz.

Pekataria, ¿su-garrez eta keez betetako leize ikaragarri ori ikusten al dezu? Zuretzat gertua dago ba; baldin biziera aldatzen ezpadezu, ara joango zera. Arretaz begiratu. Zure gorputza antxe kiskaliko da. Sua aotik, sua estarritikan, sua erraietaraño sartuko zaizu; sutegian burni gortua letz geratuko zera. Deabruak ematen dizkizuten golpeaz, su-garrak botako dituzu alde guzietara. ¿Nola biziko zera beti inpernuako

su-garren erdian, orain argizagi baten garra une batez jasan ezin badezu?

Eta zure anima su-gar bizi aye-tan arkitzen dan bitartean, zure pentsakizunak, ¿nolakuak izango ote dira? Esango dezu orduan: ain erraz salbatu nindekean, eta ez nuan nai izan: sermoyak entzun nituan, misiyo ta jarduera deunetan izan nitzan; idazti onak irakurri nituan: nere barrunean biyotz argiak senti nituan: baña jaramonik ez nien egin. An eza-gutuko dezu, zure lagun ziranak, zure kidakoak, zure etxeakoak, zure billerakoak, zurekin eskolan ibilliak, guziyak zeruan dau-dela; zu berriz, inpernuko gar-raren erdiyan beti-betiko. Al-per-alperrik izango da orduan

deadar amorratu ta birau ikaragarriak egitea, Aingeru zaindariari, Santuai, Ama Birjiña'ri ta Jainko Jesus ber-berari. ¡O zorrigaiztoko bizitza! ¡O lanbide errukarria!

Eta suzko leize artan amildu ezkerro, ¿luzaroz egongo ote zera bertan? ¿Noski eun urtean? Geigo. ¿Noski milla urtean? Oraindik geigo. ¿Milloi ta milloi urtetan? Oraindikan ere geiago. ¿Noiz arte egon bearko dezu ba? Jainkoa Jainko dan arteraño, betiko betiraunde guzirako. ¿Eta betiraunde guzi ortan atsedenen bat izango ote det? Ezta une batean ere. Egundaño ezin aterako det andik beatz. bat ere: begien itxi-iriki bateko atsedetik ere ez det izango. ¿Eta ur tantoren bat

bederik emango ote didate? Beñ
ere ez, sekulan ez. ¡O su-gar ika-
ragarria! ¡O inpernu beldurgarria!
¡O betiko-betikotasuna!

Esna zaite ba, pekataria; inper-
nuko bidetikan albait laxterren
alde egiñik, zeruko bidean, sar-
zaite: or daukazu onetarako la-
gunduko dizun Amarik gozoena,
bere bitartez iritxiko dituzu beti-
raunde guziko ongasun eta atse-
giñak.

GERTATUA

Salbatu nai duanak, su-leizeko
oñazeak ongi ezagutu bear ditu,
onetarako bear dan grazia Ama
Birjiña'ri eskatuaz. Toskana'ko
markes bat, izenez Ugo, pekatua-
ri oso emanik, lasaikeri aundi-

yan bizi zan. Alaz guziz ere, zerbait debozio agertzen ziyon Maria'ri. Orregatik bidaldu oi zizkion Ama gozo onek gaztigu onak; baña, markesak, jaramonik egiten etziyen gaztigu santuai. Beiñ eizean zebillela, ekaitz aundi batek arrapatu zuan, eta onen igesi, koba batean sartu zan. ¡Zergauz ikaragarria! An arkitu zituan inpernuko deabru beltzak, gizonen gorputzak malluz zatitzen. Au ikusteaz bat ekin diyo deada-rrez, gaizkilleen batzuek ziralazkoan. Une berean aditzen ditu itz bildurgarri auek: "*Ori ere artu, ta ekarri onera, malluz zatitzeko*„: oraindikan ez; erantzun zuan ayetatik batek; gure gaiñ alako eskubide aundia daukan emakume ark ez digu utziko-

ta. Itz oezaz adirazten zuten dea-
bruak, Ama guziz santuak gorde-
rik zeukala oraindikan Ugo mar-
kesa bere kondenaziyotik. Arri
egiñik gelditu zan itz oek adi-
tzean. Esturasun artan ordea ja-
sorik biyotza Ama Birjiña'ganonz
bildur santuz, Gurutze santua
egitez bat ayenatu ziran deabru
madarikatuak. Koba-zulotikan
aterarik, Eugenio zeritzan bakar-
zale gizonaren etxera juan zan
zuzen-zuzen. An igaro zuan gaua,
zeraman biziera galdua lagarik,
beste zuzenagoaz pentsatzen.
Biaramonetan Florenzia-urira joa-
nik, bertako Gotzai Jaunari aur-
keztu zitzayon, gertatu guziaren
berri eman zion, mesede aundi
ura Maria'ri zor diyola, aitortuaz.
Eta ogen guzien egizko aitorpen

eta penitentziya egiñik, aurreron-
tzean bide txarretatik aldentzen
zan esanaz: *Ugo markesa ez
da len bezelakoa izango.*

Eta egiz: bere diruz zazpi kon-
bentu iratsirik, aurrerontzean
Ama Birjiña'ren seme zintzo bat
lez bizi izan zan, inguruetako Le-
nendaririk onena zala, guziyak
esateraño ainbat birtutean arre-
raturik.

OPARIYA

Eleizan belauniko zaudenean,
atera ezazu kontu au; ¡zer lanbi-
de gogorra, betiraunde guzian
onela egon bear banu! ¿Zer izan-
go ote da ba inpernuan? ¡Ai ika-
ragarrizko inpernua!

AMAIKAGARREN EGUNA

Inpernuan betiko galdurik daudenaz.

Kristaua: gaiztokiko itxitegi ikaragarrironz, animako begiak itzulirik, ikusi ditzagun nor eta zenbat diran gaitzetsituak. Jesu-Kristo mundura etorri baño len, etortzean, eta etorri ezkeroz, kondenatuak an daude.

Jesu-Kristo mundura etorri baño lenagokoen artean Kain, Abel salbatu zanaren anai gaiztoa: bere anaiari biziya kendu ziolako kondenatua dago. Ludio izaki guziak Jaunak ujoldez ito zituanean galdutakoak, an daude; ba, Noe bakarrik gaizkatu

zan bere sendiarekin, zuzena zalako. Sodoma ta beste zorigaiztoko erriyetan bizi ziranak, Jainkoak bialdutako suzko euriaz ondatu ziranak, antxe daude. Gezurrezko jainkoak agurtzen zituzten Ijito'tar, Amalek'tar, Kanaan'tar, Grezi'tar eta Erroma'tarrak, guziyak antxe daude. Israel'tarrak, Jaunak Lege Zarrean beretzat autatutako errikoak ziran: beren artetik sortu zan Mesiyas lau milla urtez geroztik; bitarte ortan ¿zenbat galdu etziran? antxe daude guziyak, eta antxe egongo dira betikotasun guztian.

Jesus'en etortze inguruan kondenatuak, an daude Jainkoz azturik bizitutako asko-ta asko jentil. Jesu-Kristo'ren erakuspideak

aintzakotzat artzen etzituzten jakinzaleak, antxe daude orain. Jesus'en dotriñ onari gudarik biziena egin zioten judarrak, antxe daude. Begira, ordea, oyen artean: Pilatos judarren jaurlaria, Jesus justutzat ezagutu arren, agintaritza galdu-bildurraz, iltzeko epaia eman zualako, bertan kiskaltzen dago. Kaifas apaiztien buru zana, gaitzetsitua dago. Jesus ero-jantzian bere jauregitik bialdu zuan Erodes bakaldun arroa, kondenatua dago. Amabi apostoluetatik bat, izenez Judas, antxe dago. Jesus'en esker-eskubietan ildako bi lapurretatik bat, antxe dago. Begira, kristaua, ayek Jesus ezagutu zuten; Berarekin mintzatu ziran; Berak egingdako mirari aundiyak ere ikusi

zituzten. ¡Ala ere beti-betiko gaizpetuak daude!

Ekuskizu orain, kristaua, Jesus etorriezkerokoak. ¿Zenbat etsaita ezetsi izan ez ditu zeruko dotriñ ederrak? Eleizaren lenengo iru eunkietako, jaurlari, bakaldun da jakinzaleak, zituzten indar ta aimen guziz jeiki ziran dotriñ eder onen kaltez. ¿Zer irabazi zuten ordea? Beren buruen kondena-ziyua. Alaz guztiz, zeruko Ebanjelio ederra zabaldu zan; baña ayek inpernuko su-garren erdian diraute orain. Jesus'en ikasbide ederra sinistu zutenetatik ere, ¿zenbat ez dira kondenatu? ¡Auxebai dala negargarria! ¿Zer atsekabe aundiyagorik? ¡Jaunaren itza ainbeste aldiz entzun: animako janari gozoa Sakramen-

tu Santuz ainbeste bider artu; eta alaz guziz ere gaitzetsitu! ¿Eta zenbat orrelako gertatzen ez da orain ere? ¿zenbat bizi dira, kristauak izenez bakarrik diranak? Ludiko arazo ta txorakerietan ezarriak dauzkate begiak, eta animaren salbaziyuaz, une batez ere oroitzen ez dira. Ordu ontan-txe ere, ¿zenbat ote darorz su-leiz izugarri artara?

Bai kristaua, asko ta asko dira inpernuko bide zabalez dabiltzanak; gutxi berriz, zerukotik di-joazenak. Sinistu ezazu kristaua: beren animen salbaziyoa nai du-tenak bide eztuz bear dute ibilli: ortik dijoazen gutxiai sendoki jarrai zaiezu.

GERTATUA

Ama Birjiña'ganako jaiera baliyo aundikoa dala, emen ikusiko dezu. Sebilla-urian Diego deunaren garaian gertatua da. Bere amaren zigorraren igesi zebillen mutil koskor bat, okerren bantzuek egin zitualako. Gordetzeko, zulorik seguruenena ezin bilturik zebillela, labe-barruan sartzea gogoratu zitzaion. Goguak eman, eta egin: sartzenda, eta bertan etzanik loak artzen du. Bere amak alakorik uste gabe, ogia erretzeko labean sua pistuzuan: sututa bereala, ekiten diyo mutillak karraxi ta deadarrari; alperrik ordea, suak alde guzietatik indarra artu zuan, eta nai ta naiez ito bearrean zan mutilla: baziru-

dian bere gaiztakeriz betiko gal-
tzera zijoala. Karraxi ayek adi-
tzez, ezin da geiago estutu da ama,
ta ekin diyo kalez-kale deada-
rrari, semea berak il zuala esanaz;
era ortan bere burua negarrezko
itsaso bat egiñik zebillela, Diego
deunarekin arkitu zan: errukitu
da Santua emakumeaz, ta Eleiza-
ra joanik gogoz otoitz egiteko
agindu dio. Santua, mutilla ze-
goen tokirantz abitu zan; eta jo
Maria guziz santuaren eskumen-
de aundiya! labea berez itzalirik,
kalte txikienik gabe arkitu zuan
mutilla. Santuak eskuti artuta, be-
re amari oraziyuan zegoan tokira
eraman zion. ¡Zer poza amarena!
Eskar ugariak Maria'ri eman ziz-
kion. Guziak ikusi zuten miraria
Ama gozo onen eskuartez gertatu

zala; eta mutilla mirari argatik soñeko berri zuriz jantzi ta erabilli zuten; Ama Birjiña'gana-ko deboziyua erri artan guziz gañ zabaldu bear zala adierazteko.

OPARIYA

Erabaki, zertzaz agertu dizaiokezun egunoro Maria'ri, zure biotzeko maitetasuna; ta erabaki, au zintzo egipendu, su-leizeko oñazetatik gorde zaitzan.



AMABIGARREN EGUNA

Gizonaren eskargaiztoaz.

Begira, kristaua: Deabruaren atzaparretik gu ateratzeko egin duanaz gain, ¿zer geiago egin ze-

zakean Jaungoikoak? Eta ¿nola-ko eskarrak guk egiten dizkiogu? Bere erruki ta maitasun aundiya agertzen badigu, arrotzen gera ta Beraz aazturik pekatura goaz bereala. Justizi zorrotzez bildur-tzen bagaitu berriz, Bere erruki azkengabez etsitzen degu, ta pekatuan diraugu. Bere maitetasu-netik urruti gabilz beti; zor di-yogun menbetasunetikan berriz igesi. ¡Orra zer eskartsu geran! Iñoiz Jainkoagana egiz biurtu ba-gera, aldi laburrez izan da; laxter osterá Gurutzean gugatik ildako Jainkoaz aaztu oi gera. ¿Pekata-riaren gaiztakeri ta eskarbeltza bear ainbat nork ezagutu?

¡Ai Goiko nere Jaun maitea! Betiko zoriona neri ematearren, ¿zer egin ez dezu ordea? Jaio

bezin laxter, Eleizara eramantik, kristau egin ninduzun: Zu eza-gutzeko, argi egin ziñidan; anima sendatuaz santuki bizitzeko, sakramentuak eratu ziñizkidan. Oyezaz gañ, Zure maitetasuneko, ¿zenbat dei gozo entzun ez ditut? ¿Zenbat eredu eder ikusi?, azkenez ¿zenbat lan eta neke bialdu ez dizkidatzu, oyezaz nere biyotza Zureganonz itzultzeko? Alaz guziz ere, pekatu egin nuan; ez bein bakarrik, asko aldiz baño: eta Zuk, egin ainbat barkatu. Zure eskuan zendukan nere oge-nai zegokien zigorraldi latza; beste asko kastigatu dituzu; nizaz, ordea, neurrigabeko errukia izan dezuz; gurasoak baño maitasun geigoz zaindu nazu, ta ni Zugandik igeska, Zure dei maitetsuak

beti urruintzen, txit eskargaizto-
koa izan naiz.

Pekataria, ¿anima salbatzeko
zer geiago, eskatu zenezayoke
Jaunari? Bere odola nai badezu;
guztiya Gurutzean ixuri zuan:
Bere anima nai badezu; Betiko
Aitaren eskuetan utzi zuan: Bere
gorputza nai badezu; iltzez josi-
rik eskañi zan Gurutzean: Bere
aragia nai badezu; Aldareko Sa-
kramentu deunean dago uneoro,
gure gogoen janari. Kristaua,
¿Jainkoa orren eskuzabal ikusi-
rik, aurrerontzean ogenez laido-
tuko ote dezu? ¿Orretarako bi-
yotzik izango ote dezu?

GERTATUA

Pekatari itxu ta gogortuenak ere, iritxi dezake Maria'ren birtartez bere salbaziyua. Ara soldadu bati gertatua: bere kondena-ziyoz etsi-etsirik zegoan au, ta griña txarrai atsegin geiago emateagatik, bere anima demoniyuari eskañi ziyon. Egoera ikaragarri ontan bizi zala, Trabankor zeritzan Indiyetako errira elduzan itxasoz. Jainkoak ala eraturik, eliz bat arkitu zuan; sartzen da bertan, eta Ama Birjiña'ren iduriaren aurrean belaunbikaturik, arren eta arren, zorigaiztoko egoera artatik ateratzeko laguntza eskatzen diyo: otoitzean ari zala, negarrez zekusan Jesus Ama'ren besoan, aldare-zapiak bustitzera-

ño ainbat malko ixuriaz. Au ikus-
tean, ekin diyo negarrari, eta bar-
kapenaren esperantza Maria'ren
bitartez pizturik, nabaitzen du
bere barrenean. Gertaldi au ez
zan ixillik igaro: geroz joan ziran
beste lagun askok ere ikusi zi-
tuzten oraindik bustiyak zeu-
den zapiyak. Bertatik soldadua
Jainkoaganonz oso biurturikan,
ogen guzien egizko aitorpena
egin, eta erlijioso sartu zan. One-
la Jainkoaren Amaren bitartez,
deabruaren atzaparretik atera
zuan bere anima.

OPARIYA

Ama Birjiña'ri oraziyo egin,
bere Semearekin esker onekoak
izan gaitezen; eta oraindañoko

eskergaiztoaren barkapena iritxi dezagun.



AMAIRUGARREN EGUNA

Eskandaloaz.

Galbide izendatu oi dan pekatua, astunenetakoa da: orrezaz lagun urkoa galdurik, onen anima Salbatzalleari lapurtzen zayolako. Begira, kristaua, gure arimak zeruratzeko txit beartsu jaio zala Jesus ona; beartsu bizi, eta azkenik bere zañetako odol guzia ixuri zuala. Eta au egia dalarik, ¿Jesus'i arimak ostu eta deabruari ematera ausartuko ote ziñake? Auxe egiten diyogu ba kideari pekatu egiten erakusteaz.

Jainkoaren odola alperrik galdu, eta bere Biyotz ona samintzen degü.

¡Ai zorigaiztoko eskandalosoak! Zure burua galtzea ez deritzatzu asko; Jaunagandik urruti ibiltzea ere ez; orrezaz gain zure itz eta adibide txarrez besteak ondatu nai dituzu. ¿Noraño zabaldu ote dira zure galbideak? ¿Zenbat arima inpernu bidean jarri ote dituzu? Eskandalosoak arimak galtzen dituala, ¹ egiazki esan oi da; bere erakuspide gaiztoz zeruko bidetik atereaz, deabruaren atzaparretan jartzen bait-ditu. Azi gaiztoa lez dira urkoarentzat eskandalosoaren erakusbideak: azi txarrak berandu arren garau txar ugariak ematen ditu, sustrai galdua toki askotara zabaltzen dala-

ko; eskandalosoak ere bera ilda gero ere, zabaldutako gaizbideen ondoren samiñak beti dakartzki.

¡Zeiñ izugarriak izan bear duan zure kastiguak! Ainbeste anima garbi zure itz eta egibide madarikatuz pekaturatu dituzu; Goi Jaunaren maitetasunetik alden-
du, ta zerorrekin bat ondatuak beti izateko zoriyan ipiñi dituzu. Bizi-illen Epalle zorrotzak itan-
duko dizu eriotz-orduan: ¿nun dira nere zañetako odolez erositako ardi maiteak? ¿Nun, nere jarraile zintzo ziran anima gaxo ayek? Eta zuk deabru bera baño arego egiñik, gaiztokira bota badituzu, Jaunaren arpegi asarretuari, ¿zer erantzun bear diyozu? Orduan ikusiko dezu zure kaltez bada ere, zenbat anima ondatu zi-

tuzten, zure ordikerizko egibide txar, izketa itxusi, birau madarikatu; zendiko biziera lotsagarri, ta beste ezin zenbatu ala gaiztakeriak.

Ezagutu itzatzu beingoz, pekataria, zure galbideen kalteak eta biurtu zaite: gaurtik-geroz urkoa zeruratzez alegindu zaite, Jaunaren errukia onela bakarrik zureganatuko dezu-ta.

GERTATUA

Urkoari galbiderik erakutsi badiyozu, zoaz Ama Birjiña'gana; berak eskuratuko dizulako, Abiño'ngo urian beste bati lez, gaizki egiñaren barkaziyua. Pekatari aundiya zan au; Maria'ri ezeren zaletasunik azaltzen etziyon, eta lagunak ere bere antze-

koak izatea nai izaten zuan; orregatik alegindu oi zan itz ta egin-tzez, Ama maite onen anaidietatik alde egin erazten. Biziera txar au zeramala, gaitz gogor batek arrapatu zuan. Arrisku aundiyan arkitzen zala berak ezagutu arren, etzitzaiyon orrenbeztez biyotzik igitzen. Anaidiak eleiz-aldi ederra egiñ oi zuan garaia eldu zan, Ama Birjiña'ren Sorkunde Garbiyaren eguna; onetan, zerman biziera galduaz pentsatzeari oso emanik, egizko aitorpen bat egiteko asmoa artu du.—Maria'ren bitartez noski.—Deitu diyo Anaidiko buru zan apaizari; ta lenago ainbeste urruinkeri egiten bazizkion ere, oraiñ guziyen barkape-na eskatzen diyo. Onela Jainkoagana oso biurtu ta anaikideen ar-

tean izendaturik, gorputz-animeko gaitzetatik sendatua arkituzan.

OPARIYA

Ama Birjiña'ren maitez Eleizan arretaz egon; eta kale ta toki guzietan beardan eraz ibilli; onela, urkoari emandako galbideak ordaintzeko.



AMALAU GARREN EGUNA

Munduari ta bere esamesai diyegun begirapenaz.

Kristaua; gaizkeritik aldendu nai zenduke noski; biziera on batez Goiko Jaunagana itzuli nai zenduke; baña ez dezu ori egi-

ten. ¿Zergatik ote? ¿Nork eragozten dizu? Ludiaren begirapenak, gizonen zer esanak galarazten dizu, beste ezerk ez. Etxe artara, jolas ayetara ez bazoaz, konpesoreak eragotzi dizula, esango ote duten bildurrak: lagun txarretatik aldentzen bazera, beren bide galduak utziyaz, bakardira zoazela, esango dutelazkoak; zure itzak zintzo ta neurtuak badira; ezerez bat zerala, esango ote duten begirapenak: begi gordeak badabilzkizu, dantz-toki ta jolas gaiztoetara ez bazoaz, ludiak par eta iseka egingo ote dizun bildurrak; kezkatia zerala, txoratzeko askoren bearrean etzaudela, esango dutelazkoak, oyetxek dira zerubidea eragozten dizutenak. ¿Eta

munduko esames bategatik, zure burua inpernu-bidean naiko ote dezu jarri? ¡Auxe bai dala zora-keriyarik aundiyena! Berritxukeri oiekatik, ¿naiko dezu betiko galdu zure burua? ¿besteak suleizera dijoazelako, zuk ere arajotea naiko dezu?

Onbidea jarrai nai badezu, kristaua, ludiaren zer-esanak oñazpiratu bear dituzu; erausi luze ta nagikeria utzirikerretiroan bizi: zure egoitzari dagozkion egin bearrak ongi bete; eta ontasunez zure anima apaindu ta edertzeko, Sakramentuak maiz artu. Onela izango zera guzien ispillu garbi, ta onela bakarrik zure urkoa zeruratuko dezu. Agian esango dute atzipétzalle bat zerala; ta ¿zer?; gizonaren

bekaizkeria urruindurik, ¿bizitz santu bat egiten ez al zera sayatuko?

Egiaz, kristaua, Jesus'i jarraitzez lotsatzen bazera orain, noizpait Bera ere lotsatuko da zuzaz, ta Beragandik urruti botako zaitu; esana baidauka Lukas deunaren aoz: "*Nizaz ta nere egintzaz lotsatzen danaz, ni ere lotsatuko naiz*„. Jauna, esango diyozu orduan, ¿ez al nazu ezagutzen? Etzaitut ezagutzen, erantzungo dizu Berak. Belauniko meza bat entzutez lotsatu oi zihan, nere izen santua agertzez ere bai; etzaitut orain ezagutzen; zoaz ba, deabru ta bere lagundi galduagana. Orra biziera lasai ta zabarraren saria.

GERTATUA

Animako gaitzak konpesoreari aitortzez lotsatzea gauzik okerre-na da. Alemanian gizon bati gertatuak egiztuko du au: pekatu aundian erori zan, eta iñolaz ere etzan ausartzen aitortzera: bere kontzientzia kezka betarik arkitzen zan iñun atsedeen gabe. Egoitz ikaragarri ontan zegoala, bere burua urtara botatzeko asmoak artu zituan; ibai ertzera eldurik, botatzeko garaian bildurrak atzera erazi zion, Jaunak bere errukitasun azken gabez gordezuan, lenaz gañ oker aundiagoaik egin etzezan. Etxeranegarrezituzulirik, Jainkoari barkaziyo eske zegoan; lotzaz iñildutako pekatua ez aitortzekotan ordea. Bazebi-

llen eleizarik eleiza, baño alpe-
rrik; iñun ețzuan arkitzen anima-
ko pakerik. Jaunak grazi au bere
Ama guziz santuaren bitartez ba-
karrik irixteko zeukan. Gau ba-
tean barrengo illuntasunez bete-
rik zegoala, loak artu zuan: iru-
ditu zitzaion sorbaldan jotzen
zutela “*aitortzera zoaz*,” esanaz;
jeikitzen da berealaxe, ta badijoa
lenen arkitzen duan eleizaronz,
aitortzeko asmo sendoz beterik;
eleizara irixtean ordea, lots aundi
batek arturik, etxera itzultzen da
ostera. Illabete batzuek igaro zi-
ran, eta beste gau batean lenago-
kuan bezelako gaztigua izan zuan:
badijoa bigarren aldiz, lenago-
kuan baño bizigo; eleizara eltzean
ordea, etxera itzuli erazteraño
lotsak arrapatu du berriz ere.

Egoera triste ontan obeki deritzaiyo iltzea pekatua aitortzea baño; Jainkoak berriz ere, aitortzeko, esaten diyo. Alde guzietatik illuntasun eta atsegez betea arkitzen zan; pekatua aitortu naitzuan berak, lotsak ordea, uzten etzion. Illunabar batez etxerontz zijoala, eleiz batean sartu zan berriz ere; ta Maria'ren iduri baten aurrean belaunikaturik, arren eta arren estutasun artatik ateratzeko indar eta lagunz eske asi zan. Bereala iritxi ziyon Ama gozo onek, eskatzen zuana. Bertatik joan zan konpesorearengana, ta bere oñetan negarrez urturik, aitortu zituan pekatu guziyak. Arritzekoa izan zan; askitz deuna artzeaz bat, gozotasun eta pake aundiya sortu zan gizon onen

biyotzean; eta berak aitortu oi zuan, munduko izate guziyak bereganatu izan balitu ere, alako atsedetik etzuala arkitu al izango.

OPARIYA

Maria'ren iduriren bat arkitzean, edozein tokitan dala, Agur Mari bat esan; munduak agertzen dizkigun lotsakizunak azpiratuaz.



AMABOSGARREN EGUNA

Zeruko zorionaz.

Gogoratu itzatzu, kristaua, Zeruko uriaren bikaintasun guziz ederra, ta bertako bizikideen goitasuna. Baldin lurreko erre-

geen ingurukoak, Erregearen aundienz ta goitasunaren erazkoak izan bear badute, ¿Errege guzien Errege ta Jaun guzien Jaun dan Jainkoaren korte edo ingurumaiak, nolakoak ote dira? Eta Bere aizkengabeko Altasun, Jakinduri ta Opatasuna erakusteko egiñak izanik, ¿nolakuak ote dira? Atsegiñezko toki artatik oñaze, samintasun, atseka-be, gaisotasun, gose, guda ta gaiz guztiak erbestetuak daude; ongasun eta zoriontasun guzien sorterri ta biltokia da-ta. Aingeru ta Santuak, Kerubin eta Serafiñak, Erkaba, Igarle, Apostolu, Martiri ta Jainkoaren adiskide guziak, pake ta erakida aundian bizi dira; errai bateko senideak balira baño naitasun geigoz alkar

maite dute. ¿Nork biyotz osoz gurako ez du erri artan bizitzea? Apostolu ta Martiriakin gozoro itz egitea, Kerubin eta Serafiñakin kantatzea, Erkaba ta Igarleak ezagutu ta Ama Birjiña ikustea, nork naiko ez du? Jainkoaren Erria: zuzaz gauz aundiyak esan dizkigute; baña Zure bizileku eder oyetan iñoiz ez irteteko, ¿noiz sartuko ote naiz?

Gogora ezazu orain gorputza-
ren eta bere sentimen guzien zo-
riona. Gorputza glorizko lau
doai ederrez apaindua egongo
da, eguzkiarena baño argi dizdi-
zarigoz ornitua; mingabe, gaixo-
tasun eta eriotzik gabe, ta guziz-
ko bizkortasunez batere nekerik
gabe ibilliko da: sutiltasunez or-
ma ta mendirik lodienak batetik

bestera igaroko ditu, kristalean argia lez; jan-edanik ez du bear-ko. Bere begiak Jesus'en, Ama Birjiña'ren eta Santu guzien edertasuna ikusiko dute; usairik ederrenaz bere sudurrak atse-gingo dira; itz batean; gorputz guziak gozamen garbi ezin geigo-rañokoak berakin izango ditu. Sari abek ordea, aragia bere oi-tura txar eta gurariaz ezi ta ildu-ratzen dituztenai ematen zaizte.

Animak berriz, Jainkoa argiro ikusiko du. Zoriontasunaren le-nen-lenengo unean gizon jakin-tsu guziak sei milla urtetan ikasi dituzten jakinduri guziak baño geiago jakingo du; bere oroimen, adimen eta naikundea gozotasun bikañez aseak egongo dira; Jain-koaz beterik egongo dira-ta. Zo-

rion eta edertasun guziak Bera-
kin dituan Ontasun berdingabea
ezagutu, laztandu ta maitatua eu-
kiko dualako. Agustín Deunak
dasa: Egun bat glori artan goza-
tzeagatik, ludiko atsegin guziak
urruindu bear lirakela. ¿Zenbat
geigo urruindu bear ez ditugu
betiraunde guzian glori eder one-
zaz gozatzeko? Betiko gloria go-
zatzegatik, dio Santu berak, be-
tiko pena eraman bear litzakela.

GERTATUA

Maria'ren onran egindako gau-
zarik txikiena ere, iñoiz naikoa
izan oi da, pekataririk gogortue-
nak Jainkoagana biurturik, zeru-
ko gloria irixteko. Jenoba'tik Sa-
bona'ra zijoan itxasoz zaldun
gazte bat iru erlijiosokin. Beste

asko lez biziera galdu ta lasaikoa
zan bera; liburu txar batzuek ira-
kurriz zijoan gaztea, ta baliyo
aundikoak zirala esaten zuan.
¿Eskuerakutsi eder bat egin nai
al diozu Ama Birjiña'ri? galdetu
ziyon erlijiosoetako batek: Ama
guziz santuagatik edozer gauz egi-
teko gertu nago, erantzun ziyon
zaldunak: eskuan daukazun idaz-
ti ori Maria'ren izenean zatiturik,
itxasora bota ezazu ba, esan zi-
yon erlijiosoak; artu ta nai duana
egin beza, erantzun ziyon bes-
teak: ez, zere eskuz egin bear-
dezu eskeinz ori, esan zion erli-
jiosoak. Gazteak orduan, kutxi-
lloa artu, ta idaztia erdibiturik,
itxasora bota zuan. Etzan baña,
sari gabe gelditu eginz eder ura.
Andikan laxter Jenoba'ra itxuli-

rik, bizitz obegora deitu ziyon
Goiko Jaunak, eta erlijioso iza-
tera eldu zan. Ori bera egin bear
lukete gazte guziak; liburu txar
guziak alde batera utzi, ta biziera
lasaia gorrotaturik Maria'ren mai-
taleak izan; beraren bitartez Jain-
koaren legera biurtu, eta bizitz
ona egiteko graziya eskuraturik,
betiko zerua iritxi dezaten.

OPARIYA

Zure liburuetan Ama Birjiñak
gorrotatu dezaken gauzik ote da-
gon ikusi; ta arkitzen badezu,
naikunde osoz bereala surtara
bota.



AMASEIGARREN EGUNA

Zerurako bidez.

Gauza jakiña da zerurako bi bide baizik ez dirala; edo pekatugabekoa edo penitentziko: ogenez zure anima itxusitu izan badezu, penitentziko bidez bakarrik daukazu zerurako sarrera. Eta batayo deunez artutako garbitasun ogengabea, ¿non ote da? ¿Norengan arkitzen ote da? ¡Ay! egiz esan diteke, kristauak gaitz-gabetasun au, bere edertasun eta baliyo aundiya ezagutu baño len, galtzen duala; ta onezaz gañ, bere galbide ta egin gaiztoz, besteari galerazten diyola. ¿Zer negargarriagorik, animaren soñeko

eder au galtzea baño? Gaitzgabetasun onek aingeruen antzeko egiten du gizona; ta zorioneko egoera ontatik erori bazera, zeru-bidean ostera sartzeko, ¿zenbat leiatu zera? Bañan jai pekatariya! ¿egindako pekatuen aitorpena egizko damutasunez egiña ote zan? ¿aurrerontzean ez erortzeko asmo sendoz indartua ote zan? Bildur izatekoa da: begira bestela konpesoreak ezarritako penitentzi laburra betetzeko, izan oi dezun nagiarri, ta emendik atera; nolakoa dan, zure ogenen zorra ordaintzeko daramazun bizitz neketsua; ikusi; zenbaterañokoak diran griña txarrak azpiratzeko egiten dituzun alegiñak.

Baldin orren nagi bizi bazera;

pekatutik pekatura bazabiltz; griñā gaiztoai ezertxo ukatu nai ez badiyezu, zerurik ezin zeregana-tuko dezu. Auxe darakus Je-sus'en dotriñak, eta orobat adie-razten digu adipen zuzenak ere.

Artu ezazu ba pekataria, bide zuzenean beingoz sarturik, egiz-ko penitentziya egiteko asmo erabakiya. Bizi zaite orain, zerua galduko ez dezun eraz, gero beti zoriontsua izan zaitez. Au-rrerontzean bide zuzenez ibilli zaite; pekatua gorrota ezazu; era-gabeko griñak garaitu itzatzu, zure egoitzari dagokiyonez bi-ziaz. Onela jaso ditzakezu zeru-ronz zure begiak, Jaunaren erru-ki neurrigabearen uste bidez. Agian izango da au, Jainkoak aizkenez egiten dizun dei edo

gaztigua: beti barkatuko dizula,
ez uste izan.

GERTATUA

Ama Birjiña'ren deboziyua utzitzea, salbaziyoko bidetik aldentzea dala, esan diteke. Ala gertatu zitzayon mutil gazte bati: aurreneko urtetan Maria'ren zalekorra izanik, geroz biziera gaiztoari ekin zion. Gau batez lotan zetzala, amets bildurgarri batzuek egin zituan: ainbeste izutzen zuten amets ayek burutik ezin kendurik, jaiki ta liburu bat irakurtzen asten da. Onetan, gelako ateak zabaldurik, emakume antzeko iduri bat, alde guzietatik sua dariyola, sartzen zayola, dakus. Izaturik gaztea, alde egiten du bazter batera, ta Ama

Birjiña'ri bere laguntza eskatzen diyo. “Alperrik deituko diyozu —esan ziyon iduripean zegoan deabruak—antziñan bere deboziyua utzi zenduan lez, berak ere utzi zaitu orain,,. Itz oyek entzutean, larriaren-larriz izerdi otza zeriyon gazteari: eta nolabait, egin zuan Maria'ren billeran egin oizan eskaña, lenagoko deboziyoetara itzultzeko asmo erabakiyak bertatik artuaz. Berealaxe ikusi zuan gelako leyuak irikirik, arpegi eztaikiko emakume bat sartu zala, ta au ikustez bat etsaigaiztoak iges egin zuala. Orduan emakumeak esan ziyon: “Arrisku aundiyan arkitu zera; poztu zaite baña: ostera bizkorturik, zoaz ta ogen guziyak aitortu itzatzu; eta antziñako deboziyoari

ekiñaz, biziera berri bat ar zazu,,
Ala egin zuan gazteak. Urrengo
goizean goiz joan zan Eleizara
oraindik ikara ta bildurra bera-
rekin zituala; ta aitortu zituan
pekatu guziak damutasun aun-
diaz, ezaguturik onela, zein gal-
bide aundikoa dan lenago artu-
tako biziera ona utzitzea.

OPARIYA

Maria guziz Santuaganako za-
letasuna zure biotzean oztu ote
dan, begiratu; eta ala bada, Ama
gozo onen gustoko eginz onetara
berriro biurtu.



AMAZAZPIGARREN EGUNA

Ama Birjiña'ganako deboziyoaz.

Kristau maitea: Maria'ganako jaiera guziz onkarria da; Andre onek Goiko Jaunaren Ama dalako, eskuan dauzka bere Seme Jainkoaren grazi ta aginbide guzizyak. Zorioneko Ama au, amaguziyetan santuena da; berak Jesus'i bularra eman ziyon; berak zaindu zuan; berak elikatu; berak azi; berak Ijitorra eramán; berak azkenik, gurutzean ill zanean, obi berriyan sartu arteraño lagundu ziyon. ¿Nola ba, ukatu Jesus'ek, bere Ama maiteak eskatzen diyonik? Bai kristaua, guziz gañ maite du bere Semea Maria

Birjiñak, eta oro bat maite du Semeak ere bere Ama.

Gañera: Maria guziz deuna gizonen Ama dalako, beraganako zaletasuna bezin pozkarriagorik ezin arkitu liteke. Kostka'tar Estanislao deunak esan oi zuan: "*Goiko Jaunaren Ama, nere Ama da; Jesu-Kristo'ren Ama, nere Ama da; Jesus eta ni, Ama baten semeak gera*„. Orregatik egin oi dizkigu ainbeste mesede Ama gozo onek, orregatik lagun-tzen ere digu naitasunik sutsue-naz. Berak aditzen ditu gure es-ke ta arrenak; berak itz egiten digu biyotz barruan; eta sarri be-re maitetasun eztitsuak ixuri era-zi oi dizkigu negarmalko xamur eta atsegingarriak.

Beraz, Ama errukitsu onen

zalekor izateko, ¿nor ez da aleginduko? “*Ego sum Mater peccatorum*,” dasa berak: “*Ogen-diyen Ama naiz ni*,”. Bai, pekatariyak nere Semea gurutziltzatu badute ere, maite ditut nik; guziyen zorionaren egarri naiz; eta guziyon Ama naizelako, izen onezaz deitu zadazute; poz aundia-gorik neretzat ez da, Seme biyak Jesus eta pekatariya elkaturik ikustea baño, diyo Ama onek.

Ea ba kristaua, pekatariya izan arren, atsegiñ aundiya eman dizayokezu zure Ama maiteari. Seme maitea berriro Gurutzean josteko egin dituzun iltze oyek, pekatu oyek, bere oñetan gorrota itzatzu; eta damaturik esayozu: “Pekatarion Ama, nizaz erruki zaite; zure oñetan auspezturik

nago; lagun zadazu, Ama maitagarriya, lenbailen pekatutik irten nadin,,.

GERTATUA

Pekatuz itxutu ta gogorturik dagoan kristaua ezin diteke Ama Birjiña'ren egizko maitalea izan. Oraintxe irakurriko dedan gertaldiyak egiztuko du au: 1713'garren urtean, Valenzienes deritzan Flandes'ko errian, pekatu txit itxusiyan erori zan gizon bat; iñolaz ezin ausartu zan aitortzera; joaten zan bai konpesatzera, agertuko zituan osterontzeko guziyak, pekatu ura, ordea, beti lotsaz ezkututzen zuan. Bere barrunean kezka ta larriz beterik arkitzen zan; kontzientziyak berriz pekatuaz arpegiyan emanaz, alde

guzietatik estutzen zuan; biziera itun tristea zeraman. Estutasun ayetan barrenago atsedena agiyan topatuko zuala, bururatu zitzayon, inguru artako Ama Birjiña *in Alle* zeritzan elizara erromeri bat egiten bazuan: eleiz artara juateko eskaiña egin zuan, esan bezela, barrenago atsedena arkituko zualazkoan; pekaturik aitortugabe ordea. Eldu zan eleizara; baña atarian sartzerakoan, aurrera igarotzea zerbaitek eragozten ziyola, sentitu zuan; aurreratzeke leyatzen da; alperrik baño: ezin mugitu zan; zerk eragozten ziyonik jakin gabe. Orduan ezagutu zuan, konpesiyoaren iges zebillelako zerutik zertorkion eragozpena zala. Bertatik artu zuan ogen guziyak aitortze-

ko asmo erabakiya; eta au egiñik beste gabe, erreztasun aundiz sartu zan eleizan: auspeztu zan konpesorearen oñetan, aitortu zituan osoro bere ogenak, eta guziyen barkapena iritxirik, alaiki biurtu zan etxeronz; eskar aundi ura Maria Deun-deunari zor ziyola agertuaz.

OPARIYA

Al ditekela, errosariyo santua egunero esateko oitura artu; eta besteak ere ortara jartzeko, alegiñak egin.



EMEZORTZIGARREN EGUNA

Jainkoa beti begira dagokigula gogoratzeak dakartzkian onkiaz

¿Norekin zaude orain, eta noren aurrean arkitzen zera? Gauz guziyak begiyetan dauzkan Jaungoikoaren aitziñean zaude: igarroak, orainguak eta etorkizun diran guziyak bertatik dakuskean Jaunaren aitziñean zaude. Bai kristaua, jan, edan, itz edo beste edozer gauz dagizunean ere, Goi-Jaunaren aurrean zaude. Pekatu dagizunean; zu kondenatzeko, zure izena bizitzako liburutik kentzeko, begira dagokizu. Zure ibillera guziyak, zure eginz txar eta pentsakizunik ezkutuenak

ere, garbi-garbi dakuski; ez dezakezu iñoiz pekaturik egin iñortxok ikusten etzaitudalazkoan, Jauna beti begira dagokizu-ta.

¿Geron izate ta gauz guztiyak zor dizkiogun Jauna, bere begietan openditzea bezin lotsagekeri aundirik izan al diteke? Gizonen aurrean txarkeriren bat egitez lotsatu oi gera; eta gure Berterosle ta Epalle zorrotzaren aurrean pekatu egitez, ¿ez al gera ikaratuko? Bizitza kendurik, bereala bota zaitzake su-leiz ikaragarrira; ezarririk dauzka bizitzako idaztiyan zure gaiztakeri eta oldozpenik ezkutuenak ere, eskatuaz guziakatik dagokizun zigorraldi latza. Bere epaialdian ez da ikusle eta salatzaile bearrik izango. “*Ego judex et testis,*”

esango du: “epalle ta ikusle neroni naiz,,. Oroi zaite pekataria, Juez zorrotzak ikaragarritzko begiyak ezartzen dizkitzunean, izango dezun estutasun eta larriyaz; zuk egindako kalte ta okerkeri guziyak ikusi zituzten begiyak izango dira ayek. Ote dakizu, kristaua, pekatu dagizun bakoitzean, ¿noren aurrean egiten dezun? Zure salkiñik amorratuenaren aitziñean egiten dezun, deabruarean aurrean; orduan, ezin lagunduko dizun Aingeru Zaindariaren aitziñean: orduan, Epalle zorrotza izango dan Jaungoikoaren aurrean. ¡Ai, zer itxupen adikaitza!

GERTATUA

Dagokiyon zuzentasunaz bizi
nai duanak, Jaungoikoa eta bere
Ama Deuna, egiteko guzietan
begira dagozkiyola gogoratu bear
du. Dola'ko uriyan, mutil gazte
bat, Ama Birjiña'ren anaidiko bu
ru zan apaiz batekin izketan jarri
zan: apaizak onura aundiko anai
di artan sartzeko itzonua eman
ziyon: agindu ziyon gazteak, sar
tuko zala; bere gogoz ez ordea;
aziera onak ala beartzen zualako
baizik. Agiyan etzuan beteko gaz
teak bere agindua, Maria Birjiña'k
lagundu ez baliyo. Berak uste
etzuala, agertu zitzaion Ama go
zo au, esanaz: "Esan dizuten
guzi ya egizu, Anaidian sar zai
te, onela nere naia egingo dezu,

eta zuzaz iñoiz ere ez naiz az-
tuko,„.

Zorioneko eskinsari onezaz
alaiturik, jarri zan gaztea Anai-
dian sarturik, aginduak betetzeko
gertu. Anaidi artako notin as-
ko, gazte onen biziera txarra-
ren bildur ziran; biziera berriya
zeramala ikustean ordea, Anai-
dian artu zuten, eta aurrerontzean
zuzentasun aundiyan bizi izan
zan, guzien ispillu eder bat egi-
ñik. Emen ikusi dezakegu, zeñ
onkarle dan Ama Birjiña'ganako
jaiera, bera onratu eta bizitz garbi
bat egiteko indartzen gaitualako.

OPARIYA

Egipen onen bat astean, eta
batez ere bekaturako bidean gau-

denean, oroitu; Jainkoa begira dagokigula.



EMERETZIGARREN EGUNA

Goiko Jaunari zor diyogun
menbetasunaz.

Esan zadazu, kristaua, ¿nor serbitu nai dezu? ¿nori jarraitu nai diozu; Jainkoari, ala deabruari? Auxe da ongi oldoztu bear dezun gauza: bi nagusiren menbe ezin egon zaitezke, ain gutxi, alkarrekin txit asarre diranen menbe. Jainkoa eta deabrua etsairik aundiyenak dira; orregatik biyak batean ezin serbitu ditzakezu. Egun batzuetan, meza-
ren bat entzunaz, otoitz eta ba-

rautuaz Jesus'i jarraitzea; eta beste batzuetan jolas gaiztoetara joanaz, griña txarrai toki emanaz, eta pekatu egiñaz, Luziferri jarraitzea, ezin ditekeana da.

Begira, kristaua, egiz Jainkoaren menbe jartzen bazera, errez eta laburki eramango dituzu neke ta naigabe guziyak; eta orien saria aundi ta amaigabea izango da. Onela ordaintzen ditu Jaunak bere menbekoen egintz onak. Agiyan iraun dezakete atsekabe ta eramanpen oyek berrogei, irurogei, edo geiago urtez; ¿zer dira baña, aizea lez igarotzen diran urte oyek, ondorean izango duten betiko atsedeen eta gloriaren aldean? ¿Eta noren menbe igarro ditzakegu obekiago emengo egun laburrak, Jainkoarenean

baño? Lan eta nekez inguraturik, ibiliko dira noski Jaunaren serbitzari leyalak; baña berekin izango dute Jaunaren laguntz pozkarrria. ¿Ikustekorik al dute gañeraneke oek, Jesus'ek gugatik eramán zituenaz? Su-leizeko oñazetatik gu aldentzeko, eramán zituan Jesus maiteak oñazerik gogorrenak, eta eriotzik lotsagarriena. ¡Ene, Jesus ona, guzaz errukiturik, erakutsi zaiguzu, Zuregana eltzeko artu bear degun bide gozoa!

¡Ai ene pekatariya! Zure Aita onaz azturik, deabruaren menbe jartzen bazera, zure gusto ta atsegiñak laburrak izan bear dute; mindura ta oñazeak berriz, iñoiz amaituko ez diranak: auxe da, deabruak bere menbekoentzat

gerturik daukan sariya. Onezaz gañ, mundu eta demoniyuaren serbitzariai, barrungo mingoztasun eta aranz aundiyak, sarri darraizte; eta neke-aranz oek gozatzeko almenik deabruak ez dauka. Zerutikan bakarrik dator doai eder au; orregatik dasaigu Jesus onak: “nere uztarriya leguna da, eta nere zama ariña,,. Bere graziyak arintzen bai ditu, samintasun guziyak.

GERTATUA

Zorigaitzez zure anima deabruak loturik badauka, Ama Birjiña'gana zoaz, eta berak aterako du etsaiaren atzapar gaiztoetatik. Auxe gertatu zan gazte batekin. Ludiko gauzaz txoraturik zegoan eta bere anima deabruari eskañi

zion, idazkiz, atsegiñ lizunetan
geigo lagundu zezaion. Oarturik
ordea bere anima beztu zuan pe-
kату itxusi ta ilgarriaz, negarrari
ekin zion. Bereala ongi gerturik,
Ama Birjiña'ren eleizara joan
zan, obaitortzeko asmoz. Konpe-
soreak absolbitu baño len, lau
barau eta iru eguneko beste pe-
nitentzi batzuek ezarri zizkion,
berak ere arzaz mezatan eskatu-
ko zuala, aginduaz. Au egiñik
Maria'ren iduri baten aurrean,
bere eskariak egiten zegoala,
urreratu zedilla, agindu ziyon.
Ala egin zuan gazteak; Ama mai-
tearen oñetan auzpezturik, arren
da arren, deabruari emandako
idaztia kentzeko, eskatzen ziyola
Eta jarritzeko gauza! otoitzean
ari zala, eskuetara etorri zitzayon

deabruari eskañitako paper mardarikatua; poz eta atsegiñez beterik negarrari ekin ziyon; bertatik joan zan idazkia konpesoreari erakustera; eta onek absoluzioa eman ondoren, eskar ugariak egin zizkioten Jaunari, Maria txit Santuari eman zizkion almen eta eskubide aundiakatik.

OPARIYA

Iru bider maitasunez Maria'ren imajiñari muñ egin, esanaz: “Nere Ama maitea, zu bakarrik serbitu nai zaitut; nere animaz jabetzen deabruari, ez utzi,,.



OGEIGARREN EGUNA

Jaungoikoagana biurtzea gerorako uzteak dakarzkian kalteaz.

Pekatariya, ¿Jainkoagana benaz biurtu nai aldezu? Zeruko glori ederrera dijoan bidez, ¿ibili nai al dezu? Maiz sortuko dira noski zure biyotzean gogo oyek. Ezin ditzakezu ba gerorako utzi, orrelako naikundeak; bertatik bear dezu asi, une bat ere galdu gabe. Lastertxo deritzaio au pekatariari: “ortarako betarik ez daukat, oraingoz txit lanpetua nago ta, darantzu: gañera, ¿zer esango luke jendeak, bertatik biziera okerra zuzentzen asiko bantz, arrokeri ta griña txarrai uko

egiñaz? Baña pekataria: ¿Noiz egitea uste dezu ba? ¿Darabilzkizun lan oyek bukatzean, ala datorren urteko jarduera santuetan? ¡Ai errukarria! onelaxe dijoakizu denbora; asmo onez inguraturik beti; iñoiz egitera eldu gabe, ordea. Eta Jainkoagana biurtzea gerorako uzten badezu: ¿Bai al dakizu, noiz arteraño itxegongo dizun? ¿Zure eskuan al dago bitza luzatzea?

Agiyan esango dezu; orain arte itxegon dit, aurrerontzean ere itxegongo du; uste orixe bera litzake naikua, pekataria, gerozkoan Jaunaren errukitasunaz obetogo baliyatzeko. Orain arte itxegon badizu ere, noizpait biurtu zindezen, bildurtu zaite aurrerakoan, zure ezkergabekeriz in-

pernuko su-garraren erdian arkitu etzaitezzen. On-ona dala diyozu Jainkoa; egiya diyozu, orren ona dalako itxegon dizu ainbeste; ¿nork daki, ordea, eldu ote dan zuretzat, bere justizi zorrotzaren eguna?

Begira, pekataria; kondenatuetatik geienak zu bezela asmo onez beterik bizitu ziran, eta beren asmo onakin bat inpernura erori ziran. Ez da izango inor bere buruari kondenatzeraño ainbat gaizki nai dionik; are gutxiago Jainkoagana biurtu naiko ez duanik; alaz guziz ere egun batetik besterako uzten da, eta itxumus-tuan eriotza etorririk, guzia galtzen da. Egi aundiya da au; bizitza guziyan egin nai izandu ez dan lana, min eta larriz beterika-

ko une laburrean ezin diteke egin.

GERTATUA

Pekatutik garaiz aldendu eta Jainkoaren bildurrez bizitu diranak, eriotz-larrian ikarak artzen baditu, ¿zer esan genezake beren onbiurtzea azkenerako uzten dutenaz? Jakobo izeneko gizon bat, lurreko ondasunaz zoraturik bizi zan, bere salbaziyuaz ezertxo gogoratu gabe. Ludiko irabaziak billatuaz bat, eragabeko griñai lasaikeri osoa eman oi ziyen. Alaz guziz ere bazion zerbait zaletasun Maria Birjiña'ri; beste jayeraz gañera batzuetan errosariyua esanaz. Onetara zijoan batean, abots bat entzun zuan, ziola: “Jakobo, zure morroyei kontuak

zearo artzen dizkiyezun lez, ekaizkiguzu zuk ere neri eta nere Semeari,,. Lenengoan etzien itz oriei jaramonik egin, bizitz galdua daramatenak, oi duten lez. Ama gozoak berriro deitu zion; orduan beregan sarturik, oker zijoala ezagutu zuan: eta azterturik zearo bere kontzientziya, ikusi zuan pekatari aundienetakoa zala. Ezagutu zuan zenbat zor zion Jaunaren justizi zuzenari; artu zuan biziera berri bat, eta lenago okerreri aundienaz ikarratzen ez bazan ere, gaurgeroz txikienaz ere izutu oi zan. Gogoan zerabilzkian Jainkoaren itz ayek: *Ego justitias judicabo:* “Egintzik onenak ere epaituko ditut,,. Biziera zuzen ontan eriotz-ordurarte iraun zuan; orduan

ikusi zituan ainbeste deabru bildurgarri Jaunaren Epaitegian ziotela, "pekatu asko egin ditu Jakobo'k, eta bidez dagokio inpernua,; estuturik arkitzen zana, betiko galtzera zijoalakoan. Onetan errukizko Ama agertu zitzaion, aginduaz San Migel aingeruari, pisatu zitzala Jakobo'k bere onran egin zizkion lan onak; ala egin zuan Migel Deunak, eta pisua eginz onaen alderonz erori zan. Orduan iges egiñik deabruak, zorioneko Jakobo zerura igo zan Ama gozoaren ondora.

OPARIYA

Bekatu larrian arkitzen bazera, zoaz bereala konpesatzera; eta Jainkoaren adiskidetasunean zaudela baderitzazu, bide onetan

geiago aurreratzea zerk eragozten dizun, ikusi ezazu; eta eragozpen oyek kentzez alegindu zaite.



OGEITABATGARREN EGUNA

Konpesiyoko Sakramentuaz.

Pekataria; gaxotzen bazera, bereala sendagillari deitzen diozu; baña pekatuan erortzen bazera, etzoaz ain laxter konpesatzera. ¿Zergatik ote? Gorputzaz, animaz baño geiago oroitzen zera-lako. Eta ¿ongi obaitortu gabe ilko baziña? ¡Jainkoak gorde zaitzala! betiraunde guzirako galdua ziñake. Onela dijoakizu denbora, egizko konpesio bat egitea

gerorako utziaz. Geienez Pazkoaroz, edo jai nagusiren batez naiko dezu egin; eta ¿bai aldakizu garai oriek baño len, erioztzak arrapatuko zaituan edo ez?

Agian esango dezu, ¿zertara joango naiz sarritan, zer konpesatu ez badakit? ¡Oso itxuturik zaude pekatari errukarria! ¿Ez aldakizu ba, egunoro utsegiterik asko dagizkizula? ¿Bekatu larriren bat, ez aldezu iñoiz egin? Mundu ontan, edo bestean Purgatorioko penaz, ordaindu bearko diogu Jaunari gure pekatuen zorra; eta egi garbia da au: ¿zer bide egokiagorik ba, zor au ordaintzeko, sarri konpesatzea baño? Arpegi edo soñekora loi pixkaren bat erortzen bazaigu, laxter goaz garbitzera; ¿eta animaren ederta-

sunaz, ez aldegu geiago begiratu bear?

Konpesatu oi zeranean, ¿nola-ko gertakunaz egin oi dezu? ¿bear bezelako kontzientziaren azterketaz; biotzeko damuaz; aurrerontzean ez erortzeko asmo erabakiz sendotua izaten ote da zure konpesioa? Noski esango dezu: “Jauna, sarri konpesatu arren, beti berdin arkitzen naiz,,. ¿Eta zergatik ori? Zure konpesioak damugabe ta propositu argalekuak izan diralako; zure anima bere griñak azpiratzeko oraindikan indarturik arkitzen ez dalako, beste ezergatik ez. Ongi konpesatzea, zer balio aundikodan argiro ezagutuko dezun eguna elduko zaizu, kristaua; eratu zaite ba orain, zure anima Jain-

koaren grazi ta pake gozoan jarri dezazun.

GERTATUA

Jaunak gure ogenak errezki kastigatu ditzakela gogoratzeak bakarrik, igitu bear giñuzke ongi obaitortzera. 1611'garren urtez, Mejiko urian bizi zan Maria Birjiña'ren Anaidiko bat: Ama gozo onen deboziyoetara maiz joan oi bazan ere, lagun biurriakin elkarturik, gaiztakeri bat egi-teko asmoa artu zuan bein. Ezin eramandu Maria'ren naitasunak bere jaieradunik ondatzea, eta besterik ezin duanean, mirariz gorde oi ditu. Pekaturako bidez jarri zanean bere lagunakin, gizon itzaltsu bat irtetzen zaio, eta bere lagunak ikusigabe bere au-

rrean jarririk, itantzen dio: “¿Ama Birjiña'ren Anaidikoa izanik zu, bekaturako bide orretatik zoaz?,” eta au esatez bat, bularrean jo, ta korde gabe bota zuan. Ezaguerara etorririk, berealaxe konpertzera joan zan, eta orduan ekin-dako biziera berriari arreron-tzean jarraitu zion.

OPARIYA

Begira ezazu arretaz, eginda-ko konpesiyoetan, utsegiteren bat ote dezun, eta bereala ordaindu ezazu.



OGEITABIGARREN EGUNA

Komuniyoko Sakramentu txit Deunaz.

¡O zenbat ongasun eta graziz aberasten gaituan Jesus'ek, bere gorputza artzean! Sakramentu onezaz, kristaua Jesus'en adizkide egiten da; Berarekin bat egiñik gelditzen da, eta anima bere jarlekutzat aututzen du Jesus'ek. Sakramentu onezaz damaio kristauari, bere aragia janaritzat eta bere odola edaritzat, baturik onela Jainko-Berarekin. Ongi gerturik Jesus artzen duanaren anima, zeru eder bat da, bertan arkitzen dalako orduan gloriko Erregea.

¿Nolako eskerrak dagizkiozu, kristaua, orrenbeste mesedez betetzen zaituan Jabeari? ¡Ai ene, asko bider artu oi dezu biotz otzez zure barruan! eta ¡zer otzak izan diran, arrigarrizko mesede onegatik egin oi dizkiotzun eskarrak! Bañan, ¡ai eskergabekeri gogorra! Askok artzen dute Jau-na ao zikiñaz, ogen ilgarriz bez-tutako animarekin, berengana-tuaz onela Judas madarikatuak bezela, betiko kondenaziyua.

Zorionez artzen badezu Jesus Sakramentu agurgarri onetan bear bezela, ¡Zer grazi ta mesede uga-riak emango dizkitzun! Bai, kris-taua, animaren arerio ta griña txarrak garaitzeko indarra zure-kin izango dezu; munduko bide okerrak ezagutu ta igestutzeko

argitasun eta almena ere zurekin edukiko dituzu. ¡O zeruko ogi, aingeruen janari zoragarria! ¡Zenbat martiri sendotu ziñituan Jainkoaren maitasun irazekiaz! ¡Zenbat birjiñ eta beste bizibide guzietakoai ere, eman ziñizkietzun zeruko bide eztuz errez ibiltzeko indarrak!

Guziz itxu ta biozgogorra izan beardu onelako grazi ugariak urruintzen dituanak. ¿Zergatik dirala uste dezu orrenbeste argal, eta onbidean ain gutxi aurreratzen dutenak? Maiz eta beardan gertueraz komulgatzen ez diralako; bestegatik ez. Artu eza zu ba, Sakramentu guziz Deun au beardan eraz; eta orduan ikusiko dituzu argiro, onbidean egingo dituzun aurrerapenak, edozein

bizikeratan kristau on bat izaten zerala.

GERTATUA

Bere maitaleak Sakramentu gabe ez iltzeko ardura aundiya izan oi du Maria Birjiña'k. 1621 garren urtean, Ama guziz Santuari deboziyo aundia zion apaiz bat bizi zan Lobaina'ko urian. Gaitz batek arrapatu zuan au. Sendagilluari gaxotasun ura aizkenekoa zanik ez iruditu arren, bereala apaizak eskatu zituan eleizako Sakramentuak. Artarañoko bearririk etzegoala oraindikan, erantzun ziyoten etxeak ere: orduan esan ziyen gaxuak: "Zuek uste baño laxterrago datorkit eriotza, bi ordu barru nizaz jabetuko da,,. Alaz guziz ere etzi-

ran estutzen, iltzeko arriskurrik etzegoalazkoan. Berriz ere apai-zak esan ziyen: “Etzaitezte orrela egon, berealaxe il bearrean naiz, Maria Birjiña agertu zait, komulgaturik zerura igotzeko gertu egon nadilla, esanaz,,. Orduan ekarri zizkioten Sakramentuak, eta maitasun aundiz arturik, andikan bi ordura il zan, zeruko Amak esan bezela.

OPARIYA

Lenagoko utsunak ordaindu naiaz, gaur edo biyar komulgatu ezin bazera; Ama Birjiña'ren maitetz lenbait len komulga zaitez.



OGEITAIRUGARREN EGUNA

Jainkoaren dei goyargiaz.

Asko eraz deitzen digu Goi-Jaunak bereganonz biur gaitezen; batzuetan, bekatuen gogorape-naz biotza minduaz; besteetan, inpernuko oñaze ikaragarriak begietan jarriaz; bein, adizkide leial edo kontuzko konpesoren baten ondo esanaz; bein, sermoi ta idaz-ti onaz gure bizitza zuzenduaz; azkenik, guda, izurri eta beste naigabe ta nekeen bidez oartzen gaitu, egizko zoriona zeruan bakarrik arkitu ditekela. Bekatari-ren baten biurtzeak, bizitz onera deitu oi digu; bat batetako erio-tzak, konpesatzeko, deadar egi-

ten digu; zure barrungo kezakak, oitura gaizto ura uzteko, esaten dizute; eta iñoiz birtutearen gozotasunik ezagutu badezu, agian esango zenduan iñillik: ¡O zer alai ta atsegingarriak diran, Jainkoa maitatuaz igarotzen diran egunak!

Mesederik asko egiten digu Jaunak beraganon z deitzez; orregatik dagokigu ongi erantzutea. Bere graziz gure animak argitu ta sendotzen dira, zerutik datorren intz gozoaz bezela; grazi onek, ordea, beren biotzak ongi eraturik dauzkatenetan bakarrik dagizki orrelako mesedeak. Inguraturik gabilzki Jaungoikoaren naitasunak, salbatu naiean; erantzuten ezpadiogu, ordea, Berak nai izan arren, ezin zeruratuko

gaitu. Jaunaren naia auxe da; gu santuki bizitzea; ontasun eta garbitasunezko ispillu ederrak izatea; Bera gure biotz eta indar guziz maitatzea; eta era ortaz ezin maiteko degu, konpesio, sermoi, eta ideko eginz onetatik igesi bagabilz; onela Berak digun naitasuna urruintzen degulako.

Bai, kristaua, deika dagokizu Jaungoikoa, eta izorigaiztokoa zu! dei oriei dagokienez erantzuten ez badiezu. Mateo Deuna, Jesus'ek deitu arteraño, pekataria zan; deitu bezin laxter, ordea, gauza guziak utzita, Berari jarraitu zion. Pedro Apostoluak, Jesus'ek begiratzean, negarrari ekin zion egindako bekatuagatik, eta geroz santu aundia izan zan. Jesus onak maitez deitu arren, Ju-

das madarikatuaren biotza etzan bigundu; eta soka batetik zinzilika jarrita, bere burua urkatu zuan, errai guziak lerturik irteten zitzaiykiola. Erantzun zaiezu ba, kristaua, Jainkoaren dei gozoai; biotza gerturik euki ezazu, zeruko intz onek sendotu zaitzan, eta argitasunez beterik ibilli zaitezzen. Onela iritxiko dezu betiko zoriona.

GERTATUA

¡Zorionekoa beti Jaunaren deiai garaiz erantzuten diona! Ala gertatu zan Bolonia'ko urian Ama Birjiña'ren Anaidiko batekin. Goiz batez, Anaidiko buruzan apaizarengana juanik, birtutezko bizitza egiteko konseju

onak eskatu zizkion. ¿Nork daki —esan oi zuan gizonak—ustegabeko eriotzaz ilko banaiz ere? eta bere nainkunde bizia, negarugariz agertzen zuan. Apaizak maiz konpesatzeko konsejua eman zion, batez ere jai nagusietan. Ala egin zuan gizonak, biziera berri bati gogoz ekiñik. Oraindikan bi illabete etzirala, egun batez eri-etxean gaxoak serbitu ta limosna ugariak utzirik, etxera etorri zan. Bertan sartu bezin laxter, naigabe batek eman zion, eta Jesus Maria esatez bat, illik gelditu zan.

OPARIYA

Orain il bear bazendu, kezkarik geiena, ¿zerk emango ote lizuke? Maria guziz Deunari la-

guntza eskatuaz ba, aldegizu gauz ortatik.



OGEITALAUGARREN EGUNA

Bekatu Benialaz.

Izenez gaitz txikia dirudi onek: ongi begiratu ezkerro ordea, uste bezin txikia ez dala, laxter ikusiko degu. Ogen au Jainkoaren kaltez egiten da beti; eta berez ariña izan arren, errez barkatzen dala, Jaunaren anditasun aizken-gabeari dagokionez, eskergaizkeri aundia da. Eta izanik Bera zeru-lurren jabe bakarra, gure Egi-ilea, gugatik Gurutzean ildako guraso ona, ¿gauzik txikienaz ere openditu al genezake? Ludi guzia

auts biurtzea; zeruak lurra jottea; gizadi osoa izurriz lurrean ezarririk ikustea baño, aregoa da oraindik, kristaua, bekatu arin batez Jauna iraintzea. Ustegabez, ezjakiñez bekatuan erortzea, gauza txarra da; bañan ezaguera osoz bekatu arina egiten duan animak Jauna baño, ori geiago maite duela, adierazten du. Eta inpernua-ren bildur gabe, ¿zer maitetasun eta leialtasuna ager lezaioke zeruko Aitari, anima onek? Pekatu arinetan erraz erortzen bazera, larrian ere laxter eroriko zera. Ogen arinak anima epeldu egiten du, eta onen epelkeria ikustean beragandik iges dago Jaunak. Orduan anima, Jainkoak bere eskutik utzi dualako, su-leizeko arerioak ertzitzen dute, poliki

poliki bekatura daramate, eta azkenik, inpernuaren erdian betiko galdurik ikusten da. Bai, kristaua, Jauna leialki serbitu nai dutenak, gorrotatu bear dute pekatu ariña, batez ere, ezaguera osoz egiten dana.

GERTATUA

Utsegite batzuek txikiak iduritu arren, egiz mindu oi dute Maria Birjiña'ren biotza. Donai uriko eleiz batek, bere atadiko orman Andre Maria'ren iduria zeukan. Bere aurrez mutil gazte batzuek jokuari ekin zioten, itz lasaiak esanaz; onetan andik igarroaz zijoazen jaun batzuek otoitz egiten jarri ziran. Orduan Ama Birjiña'k, gazte ayen jolasak ematen zion naigabea agertu nairik,

besoa jaso zuan, mutil lotsagabe aiei keñatuaz. Ikusirik gertatzen zana oyetako batzuek, zioten alkarri: ¿Ez aldakusute Maria Birjiña'k besoa jaso duala, gu zigortu naiean, emen jokuan gabiltzako? Guziak izuturik miraria ikustez, eren etxetara joan ziran gurasoai kontatzera. Bildu zan oste andia imajinaren aurrean, eta otoitz irazekiak egin zituzten gazte ayek egindako opensaren barka eske; txit ongi artu zituan Maria guziz Deunak otoitz ayek, eta bere aserrea bigundu zala adierazteko, mirari aundiak egin zituan aldi artan.

OPARIYA

Eleizan arretea guziz egon, batez ere meza entzutean.

OGEITABOSKARREN EGUNA

Purgatoriyuaz.

Toki ortan, ¿zer egiten da? Jainkoaren justizi zorrotzak eraturik daukan su ikaragarriaz, erretzen egon. Animak maite du Jainkoa; baña Jainkoak, gogor kastigatzen du: nai luke Jaungoikoa ikusi, ezin du baña: beti-beti zerura igo zai, ez daki baña, noiz elduko zaion zorioneko unea. Eramanpen aundiz daramazki oñaze ikaragarriak; ezeren irabazpiderik gabe ordea bereztat. ¡Ikaragarritzko egia! Emen bizi geranok, ordaindu dezaiokegu Jaunari bekatuaz zor dioguna; eta onela bere asarrea bi-

gundurik barkapena irixteko penitentzi laburren bat, ¿ez al degu egingo?

Eta ¿zergatik juaten da Purgatoriyura? Utsegiterik txikienagatikan. Koruan itz labor batzuek esateagatik, juan zan monja bat: bere sermoiaz arrotu zalako berriz, sermolari bat; Pelegrin da Paskasio deunak uts batzuekatik. Eta zuri, kristaua, ainbeste aserre, gezur eta leialgabekeriaz, ¿zenbat oñaze ez dagozkizu? Elizkizunetan euki oi dezun itzalpen ta arreta gutxia; zure bear-kizunetako utsuneak; jan-edaneko gastu alperrak; urkoarentzat izan oi dezun naitasun otza, guziak an ordaindu bearko dituzu.

Eta ¿zenbat denbora igaro bear

da an? Agian urte asko, eta bear bada milla ta geiago. Geron utskeriai dagokienez, neketan egin bear degun aldia, Epaille zuzenak ezarriko digu. Gañera konpesiyoz pekatu larrien barkapena iritxi arren, beti gelditzen da Jaunaren justiziari bekatuaz zor zaiona: eta utsegite txikiakatik, aldi batez egon bear badegu, ¿zenbat igaro bearako degu ainbeste bekatuakatik? Bai, kristaua, animarik garbienak ere, bere zorra bizitzan ordaintzez oroitu ezpada, an luzaro egon bearako du: saia zaite ba, penitentzi ta nekaldi batzuek egiñaz, gero oñaze luze ta ikaragarri aiek laburtzeko.

GERTATUA

Zister'go erlijioso bat, izenez Rainerio, bildurrez bizi zan aizeneko urtetan, bere pekatuen zorra Jaunak barkatu etziolazkoan; orregatik eskatzen zion egunoro Maria'ri, bere animaz erruki zedilla. Otoitz irazekian zegoala, Ama Birjiña'k, Jesus'i, Rainerio'ren anima purgatorioan sartu gabe zerura eramateko eskatzen ziola, aditu zuan; bekatu guziaz damaturik, zegokion penitentziya egin zualako: baita ere Jesus'ek erantzun ziola: "Nere Ama maittea, guzia zure eskuan daukazu,,. ¿Nork adierazi, Rainerio'ren poza alako izketa aditzean? Eta, ¿zertaz bildurtu, bere bizitzako epaia Ama errukitsu onen esku

egon ezkerro? Eskar aundiak egin zizkion Rainerio'k Maria'ri, mesede aundi argatik, aurrerontzean ere bizitz garbiari jarraituaz. Emen dakusgu, Purgatorioko oñaze ikaragarririk bere maitaleak ez igarotzeko, Maria Birjiña'k daukan ardura aundia.

OPARIYA

Iru Aita gure esan, Maria'ren maitalerik aundiena izandako purgatoriyuan dagon animaren aldez.



OGEITASEIGARRREN EGUNA

Jesus aurrak Belen'go ganbelan dirauskigun ikaskizun ederraz.

Oroitu zaite, kristaua, Jesus aurtxoaren beartasunaz. ¿Zeren bearra dauka? Gauza guziena. Etxerik ez, eta abere-ukulluan jaio bear izandu; etzateko oerik ez, eta lastogañean dago: otzik dago, eta ukulluko abereak eratzten duten berotasuna besterik ez dauka; gillutsik dago, eta Jose bere Aitordekoak bere soñekoz estaltzen du. ¡Jesus maitea beartsu eta umill; gu berriz, munduko aberastasunai oso emanik!

Begira orain aurtxo onen eramankizun aundiari. ¿Zer otzak

ikusiko etzituan negu-biotzean
ain beartsu jaiorik? ¿Zer atsedeen
gutxi eukiko etzuan gorputxo
arrek, bere gurasoen etxetik urru-
ti, lasto zakarrezko oiean zetzala?
Alaz guziz ere, esparik txi-
kienikan ez du agertzen, nega-
rrik ez dagi, guzia arpegitxo alaiaz
darama. Eta Jesus orrela min-
dua ikusirik, ¿ibiliko gera atse-
giñen ondoren?

Begira gañera, bere ezerespen
arrigarria. Gauerdiz, tokirik txar
eta ez ezagutuan jaiotzen da. Eta
¿nork serbitzen dute? Bere gura-
soak beste serbitzaririk ez du.
Bakarrik bere jaiotz umillaren
berri izan duten artzaitxoak da-
tozkio: munduaren onerako jaio
da; eta munduak ez du ezagu-
tzen; beretara dijoa, eta oek ez

dute artu nai, beartsu dakustelako; azkenik, etxerik-etxe ibilli ondoren, jaiotzeko ukullu bat artu bearrean arkitzen da zerulurren Jabe bakarra izanik. Atoz ba, kristaua, atoz, aurrera zaite Jesus'en seaskatxo ontara, eta ekuszu zure arrokeria bere umiltasunaz oñazpiturik.

GERTATUA

Zazpi urteko neskatxo bati, Jesus aurraren grazi ta edertasuna entzunik, Bera ikusteko eresi bizia etorri zitzaion. Onetarako, ustepen osuz, Ama Birjiñarengana joan zan, beingoz bazan ere aurtxoa erakutsi zezaiola, eskatuaz. Lenengoz etzion aditu, mesederik aundienetakoa baidan. Zazpi urte eresi orietan iga-

ro zituan, eta bitarte ortan sarri agertu oi zion Jesus'i maitetasun bizia. Bere anima santutasuneko bizitzan aurreratzen zijoan ainbat irazekiro eskatzen zion Maria'ri Jesus aurtxoa erakutsi zezaiola. Zorionekoa izan zan onentzat Jesus'en jaiotzako gaua. Etxeko otoitzgela inoiz baño gogozago otoitzean zegoala, Ama maitea agertu zitzaion besoetan aurrarekin. "Nere alabatxoa, ainbeste maite dezun aurra ar zazu," esanaz. Neskatxoa besoetan aurrarekin zegoala, galdetu zion onek; ¿maite al nazu? Bai Jauna, guziz asko, erantzun zion gazteak. ¿Zenbat maite nazu ba? galdetu zion Jesus'ek: orduan neskatxoak zeruronz begiak jasorik esan zion; nere Jaun eta Jaungoi-

koa, zer esan ezdakit, itz egin beza nere biotzak. Au esatez bat, gaztearen animak, Jainkoaren maitetasunean txit suturik, gorputzetik alde egin zuan; Maria Birjiña, bere Seme ta aingeruen erdian zerura igoaz.

OPARIYA

Karta eta beste idazki guzien asieran Jesus eta Maria'ren izena ipiñi; eta gure lan eta egiteko guziak ere izen oyezaz asi, bear degun laguntza eskatuaz.



OGEITAZAZPIGARREN EGUNA

Jesus'ek bere gaztearoan damazkigun
ikasgai ederraz.

Jesus'ek bere gaztearoan Maria ta Jose'ri, menbetasunik aundiena agertzen zien. Begira, kristaua, lurreko gurasoen eskura dagoan au, izaki guzien Egilie ta Jauna da. Eta ¿nola agertzen zien menbetasun au? Erarik arrigarrienaz: olak serratuaz, etxea garbituaz eta beste orrelakoak egiñaz; onela arotz beartsu baten semea zala, guziak ezagutu zeza-ten. ¿Eta nolakoa zan bere obediencia? Txit laxterra, agindutako guzia, bear zan iñiltasun eta atsegiñaz egiten zuala.

Gaztea izan arren, lanean edo otoitzean jardungo zan beti. Eta ¿zergatik orrela? Agian, ¿lanik gabe kalteren bat etorri ote zitzaioken? edo ¿tentaziyuan erori al zitekean? Inñolaz ere ez orrelakorik; santutasuna bera zalako, eta gauz guziak bere menbe zeuzkan Jainkoa zalako. ¿Zergatik ba? Gazte guziai eredu ederra emateagatik, eta eren griña txarrak garaitzeko euki bear zuten ardura erakusteagatik, egin zuan orrelako bizitza. Orrela bizi zan Jesus gurasoen menbe Jainkoaren eta gizonen begietarako aurreratzen adiñez ainbat jakinduriz. Orrela nai du Jesus'ek, gu ere adiñaz ainbat urkoari erakuspide ederra ematez alegintzea; bere bizitz okerra zuzendu de-

zan. Eta begira, kristaua, bere santutasuna gizonen begietan baño Jainkoaren aurrean lenago agertzen du. ¿Zergatik ordea? Gure lenengo eginkizuna Jainkoa maitatzea dala, adierazteko.

GERTATUA

Santo Domingo'ko erlijiosa bat izenez Paraiso'ko Dominika, txiki-txikitatik Jesus'en antzera bizi zan; zeraman bizitzaren sariz mesede aundiak egin zizkion Maria Birjiña'k. Bere bizitzan irakurtzen da, gaztetxoa zalarik, Aingeruen Erregiña agertu zitzaiola konseju oek emanaz: “Menbetasun aundia ager zaiozu zure amari (aita il zitzaion, ordu-rako); etxeko guziai obedientzia umiltasuna erakutsi zaiezu:

guziakin pakez bizi zaite, bata-
bestenganako lei edo gorroto bi-
derik, eman gabe: zure mingaña
erretzea gezur bat esatea baño,
naiago bear dezu izan: izketa gu-
txi egizu: zure begiak zeruronz
begiratzeko zabalik, eta lurreko
gauzetarako itxiak egon bitez:
modesti aundikoa izan zaite; be-
katurako arrixkutik iges egizu;
gauz guzietan begira zaiozu len-
bizi Jainkoari, eta ongi irtengo
zera,,. Gogoz artu zituan aur-
onek aolku oriek, eta guziak zea-
ro bete nai zituan. Arpegi ta es-
kuak garbitzean bera iñork ikus-
terik etzuan nai, ezta bere aizpa
zarrenak ere; onek ordea, artara
beartu zuan, eta orduan aurrak
Ama Birjiña'ri eskatu zion, zer
egin erakusteko. Ainbesteraño-

ko kezkatia ez izateko, agindu zion Maria Birjiña'k, orrela ibili gabe bere aginduak bete zitza-kela-ta.

Andikan laxter, bere Ama, Konstantze zeritzaionak soñeko bat jostekogaia eman zion; gazteak, batetik obeditu nai, bestetik ordea ez ebakitzen eta ez josten etzekielako, zer egin etzekian. Estutasun artan berriz, Ama Birjiña'gana juan zan, eta Amagozo au, agerturik, berak esan zion zer eratan ebaki ta josi. Gazteak, Maria Birjiña'k esan ziona aditu ondoren, erantzun zion: "Etxeko Andrea, zerori aurrez asten ezpazera, ezin ikasi dezaket,,. Orduan Ama gozoonek artu zituan guraizeak, ebaki zion soñekoa, erakutsi zion jos-

ten, eta au egiñik, ezkutatu zan. Onela sariztatu zituan Maria guziz deunak, Dominika'ren menbetasun eta bizitz garbia.

OPARIYA

Alperkerian ez egon iñoiz, eta beste lanik ez dagonean, Amaguziz Santuaren alabantzak dauzkan libururen bat irakurri.



Ogeitazortzigarren eguna

Jesu-Kristo'k basamortuan eman zizkigun eredu ederraz.

Jesu-Kristo'ren basamortura joateak erakusten digu, txit ongarri dala guren arimen salbazi-yorako bizitz erretiratua. Jaun

onek, etzezakean ezeri bildurrik izan; ez lagun gaiztoai, ez eta munduko izketa gezurtiai ere; gauz guzien Egillea zan; irazaki guziak bere naia egin bearrean dira: alaz guziz ere, guri bizitzen erakusteagatik, gizon-artetik baso illun batera alde egiten du. Eta zuk, kristaua, ¿ez aldakusu, munduko galbideetan sarturik zure ondamendiaren billa zabilzala?

Bere berrogei eguneko barau gogorraz berriz, griña gaiztoak azpiratzeko, aragiaren ildura erakusten digu. ¿Zergatik bestela, igaro bear zituan berrogei gau ta egun oyek, ezer ere jan eta edan gabe, santutasun guzien Jabe danak? Begira emen, kristaua, Jesu-Kristo ogengabea izanik, ba-

samortura dijoa penitenziya lazki egitera; eta zu bekatari aundia izanik, ozta-ozta egiten dituzu Eleiz Deunak abintzen dizkizun barau ta beste penitentzi ariñak. ¡Ai, aldentz aundiya arkitzen da, zure eta Jesu-Kristo'ren artean!

Jesu-Kristo'k basamortuan egunoro otoitz egiñaz, erakutsi zigun, zer baliyo aundikoa dan jarduera santu au. Grazi ta jakinduri guzien iturburua izanik Berra, etzan artara, jarri, otoitz bearrrez zegoalako, guri otoitzezko ispillu eder bat uzteko baizik. Alaz guziz ere, gu, zeruko doaiak eskuratu, ta gure beartasuna ordaintzeko premiz arkiturik, txit epel eta ardura gutxikoak gera Jainkoagana gure biotzak altxatzeko; eta egin oi ditugun otoitz

laburrak, epel eta arreta gutxi-koak izan oi dira.

GERTATUA

Guziz asko nai izaten badu Maria Birjiña'k, bere omenaz otoitz egitea; ez du gutxiago nai, geron aragia garaitzeko egiten dana. Zerdeña'ko erridian bizi zan ama-bi urteko neskatxo bati: Ama Birjiña'ri egunoro errosariyua esateko, agintzen zion bere amak, larunbatetan barautuaz. Atsegiñ eman oi zion errosariyua erreza-tzez; barau egiteko, ordea, milla aitzaki jartzen zizkion, etzuala nai, garbi ez esateagatik. Gau batez lo zetzala, Ama gozo au agertu zitzaion, neskatxatxoari, esanaz: "Amak esaten dizun lez, larunbatoro barau egizu, eta nik

lagunduko dizut premi guzietan,,. Itz oyek aditzez bat, jeiki zan oietik, eta gau guzia otoitzean igaro zuan, Maria'ren itzat betetzeko asmo erabakia artuaz. Ekin zion larunbatetako barauari, ogeita amar urtez irauten zuala; eta garbiro ezagutu zuan, zenbat lagundu zion Ama onek bere bizitzako lanbide guzietan.

OPARIYA

Gure lanetan aldan batutasun aundienaz bizi, mingaña ixilduaz.



Ogeitabederatzigarren eguna

Jesus Gurutzetuaren Maitetasunaz.

Vide bonitatem Dei. Ekuszu kristaua, Jesus'ek Gurutzeko zuaitzetik zinzilik, agertzen dizun naitasuna. Betiko Aitak bere Seme bakarra opaltzen du, eta Semea naikunde biziz eskaintzen da zure gaizkapenerako. Bere odol tanto bat geiegi zan zu salbatzeko; bere ontasun neurrigabeak, ordea, guzia eman nai du; orregatik, azote, arantza, ta miñez gañera, bi lapurren erdian Gurutzeturik ixurtzen du. Ez du iñortxok Jainkoak ainbat naitasun agertu; orregatik, gizona sal-

batzearen eraman zituan ainbeste oñaze, iseka eta eriotzik gogor eta lotsagarriena.

Vide severitatem Dei. Ekuszu, kristaua, Jesu-Kristo Gurutzetuaren justizi gogorra ere. ¿Zergatik uste dezu, Jainkoaren Seme bakarra, orrelako eriotzara epaipetua izan zala? Munduko bekatuakatik. Eta ¿nola izan diteke, Santutasun Bera dana, munduko bekatuakatik iltzea? Bai, kristaua, guri zigun naitasun bi-ziak ar-erazi zizkion bere gañgure ogenak; eta oyezaz bear bezela Aitaren justiziarri ordaintzeko, il zan orrela. ¡O bekatu zori gaiztokoa! ¡Ai bekatari itsua! ¿Juango ote zera oraindikan ere, Jesus ona utzirik, bide galduetara? ¿Etzaitu izutzen bere odol

maitagarria orrela alperrik galtzeak?

Vide bonitatem et severitatem Dei. Ikasi itzatzu emen, bi gauz bear-bearrekoak. Lenen-goz: zure salbaziyuaren baliyo aundia; Seme Jainkoa Gurutzetik zinzilika ikustean, pentsa ezazu ongi, zure arima gaxoaren baliyoaz. Bigarrena, bildur aundi bat, galdu etzaitezen. ¡Ai zorigaizto-koa zu, inpernuan ondatzen bazera! Orren gogor kastigatzen badu bere Semea iñoren bekatuz, ¿nola kastigatuko ote zaitu zureakatik, ainbeste ta ain aundiak izanik? ¡Ai nere Jaungoikoa! guzien onerako ixuri zenduan odol omenalduagatik, nizaz erruki zaite: damu det, Jauna, zu openditua; aurrerontzean be-

katurik ez egiteko, lagun zardazu.

GERTATUA

Emazte on batek, bere senarra eriozkille ta gaiztoa zala ezaguturik, arren aundiak egin zizkion, Maria Birjiña'ren gogoko gauz batzuek eragiteko. Larunbatez barautu, eta arkitzen zituan Maria'ren idurien aurrean, Agur Mari bat errezatu erazi nai zion. Jarri zan orretara gizona; emakumea ixildu erazteagatikan bakarrik ordea; alaz guziz ere emendik sortu zan bere zoriona. Bein, bidez zetorrela, bero aundiari iges egiteko, eleiz batera sartu zan atsedan egiñaz; besoetan Semea zeukan Ama Birjiña'ren

iduri baten aurrean, Agur Mari bat errezatzen asi zan, arreta gutxiz baño. Bertatik ateratzeko garaiean Ama Birjiña'ren besoe-tako aurra guziz odoldurik zegoela, ikusi zuan. Au ikustean, ¿nork jarri du orrela zure Seme ori? galdetu zion Amari. Zuk, erantzun zion, zure pekatuaz zauritu dezu onela nere eta Jainkoaren Semea. Au aditzez bat negarrari ekin zion, bekatarien Ama danari barkapen eske. Pozik egin zuan Ama guziz santuak; bere Semeari erregutu zion, eta berealaxe egin zuan onek, bere Amak eskatzen ziona. Orduan Mariak esan zion gizonari: "Atoz, eta nere Semearen zauri deunai muñ egiezu,,. Bereala egin zuan gizonak, bere animako zau-

riak ere sendatzeko uste osoz, eta ala gertatu zan. Bertatik utzi zituan gizonak lengo bide galduak, eta azkenik, alkarren naiaz senar emazteak, erlijioso sartu ziran, konbentu banatan.

OPARIYA

Egun barruan maiz esan: “Jesus Gurutzean josirik dago; eta ni atsegin ondoren nabil,,.



OGEITAHAMARGARREN EGUNA

**Maria Birjiña'k Gurutzearen oñean
igarotako samintasunaz,**

Beste atsekabe askoren artean, iru ezpata zorrotz ziran Maria'ren biotz mindua gogorki zauritzen zutenak.

Lenengoa, Semerik maiteena galdu bearra: bazekian Ama onek, Seme au, ogen gabe ta santutasuna bera zala: bazekian, ibilitako alderdi guzietan ongi baik egiñ etzuala; eta ala ere, lapur biren erdian Gurutzean joserik, eta odol guzia ixuriaz bertan illik ikusteak, gogorki biotza zaitzen zion. Oraindikan atsekabe oyek ezer ez balira lez, bazeku-

san Ama itun onek, zer gutxi onetsiko zenduan zuk, bere Semearen eskainz au: bazekusan, zeñen gutxi onuratuko ziñan ixurritako Jainkozko odoiaz; eta auxezan ganibetik zorrotzenetakoa. Argatikan minduraz beterik deardar egiten zuan: ¿Nere Semearen odol ixurtze au, alperrikakoa dala ikustea baño miñ aundigorik izan al diteke?

Bigarren ezpata, odol onegatik, kondenatuak oñaze aundiguak igaro bearko zituztela ikustea. Bai, kristaua, ikusten zuan Ama naigabetuak, gaizpetuen kastigua geituko zala, beren gaiztakeriz Jainko baten Nekauste ta eriotza urruintzen zutelako; bazekusan askok, berriz ere pekatu egiñaz, bere Semea Gurutzean

¡osi bear zutela; eta auxe zan bigarren ezpata. ¡O Ama naigabetua! ¿Nork poztu zaitzake miñezko itxaso ondogabe orren erdian?

Eta ¿badakizu, kristaua, irugarren ezpata zer zan? Kristau askok Jainkoaren ontasun eta errukitasunaz geiegi ustependurik, eriotza arte bekatuan iraungo zutela, ikustea. Bai, kristaua, garbi asko diozu zure egipenez “bizi gaitezten orain goguak ematen digun eraz, aizken orduan Jesus onak guzia barkatuko digu-ta,,. Eskergaiztoko pekataria, orrela geitzen dituzu Ama maitearen atsekabe ta samintasunak. Jakin ezazu ordea, Jesus'en nekaldi ta eriotzaz, beren pekatuagatik damutu eta penitentzia egiñaz bizi

diranak bakarrik baliatuko dirala. Ongarri oyek ez dira bekatuz bekatu dabilzanentzat; bekatutikan alde egiñik zuzentasunean bizi nai dutenentzat baizik.

GERTATUA

Bekatu dagitenak, Maria guziz Santuari, Gurutz-oñean eramandako miñak berristatzen dizkio-te. Alaz guziz ere, Ama atsekabetuaren jarraileak, bekatari aundiak izan arren, garbiro ezagutu izan dute Ama onaren errukia. Brijida Santuaren garaian, Jainkoaren bildur gabeko gizon aundita aberats bat bizi zan. Eldu zitzai, guziaz bezela, aizkeneko gaitza, bere animaz iñoiz ere oroitut gabe. Arrixku orretan egon arren, etzan ezertzaz gutxiago

oroitzen, eriotzarako gertatzeaz baño. Jakin zuan au Brijida deunak, eta anima ura betiko galtzera zijoala ikustean, oso atsekabeturik otoitzean jarri zan, bekatariarren biotz gogorra biguntzeko, Jaunari eskatuaz. Emakume onen eskari aundiak entzun zituan Jainkoak, eta gizon ura penitentzira mugitu zedin, apaiz bat bidaltzeko adierazo zion. Bidaldution konpesorea, alperrik baña; bein eta berriz eta iru alditan leiatu bazan ere, etzuan konpesatunai izan: joan zan laugarren aldiz bere konseju onak emanaz, eta orduan Jainkoaren graziz, biotz txit damaturik jarri zan penitentzi bidean. “Irurogei ta amar urte dira—zion—konpesatu ez naizela, aldi luze orretan bekatuan eta

deabruaren menbe bizi izan naiz; bañan oso aldatua nabaitzen naiz orain; bertatik nai det obaitortu, eta Jaunaren erruki neurrigabeak, nere ogen izugarri guziak azketsiko dizkidala uste det,,. Au esanik, lau bider konpesatu zan egun artan, eta eleizakuak arturik biaramonean, andik seigarren egunera il zan. Bereala agertu zitzaien Jauna Brijida'ri, gizon arren arima purgatoriyora janzala, eta laxter aterako zala, esanaz. Biziera galduko gizon bat, ain errez salbatzez arriturik zegoan emakume santua; Jainkoak, ordea, adierazi zion zegatikoa itzuezaz: "Nere Ama maiteaganako zaletasunak gizon arri inpernuko ateak itxi dizkiola, jakin ezazu; egizko maitalea ez izan arren,

maiz oroitu oi zan bere samintan-
sun .eta atsekabez; orregatik bide
bereziz zerura eramán du Ama
onek,,.

OPARIYA

Maria txit deunaren saminta-
sunen izenaz, eguneko neke ta
naigabeak eskañi, eta onez era-
man.



Ogeitamaikagarren eguna

Jesu-Kristo'ri zor diyogun maita-
sunaz.

Maitatzeko egiña da noski zu-
re biotza: eta zure Egille, zure
guraso, zure Jesus ona baño geia-
go ¿nor maitatu bear dezu? Gu-

gatik gizon egin zan Jesus; gure onerako bere dotrin ederra zabaldu zuan ludi guzian: gugatik il zan, eta azkenik guri zigun naitasunak jarri erazo zuan Sakramentu Santu-Santuan. ¿Zer geiago egin zezakean?

Guk maite ezpadegu ere berak maite gaitu; eta guganako naitetasun bizi au jaio zanetik agertzen digu: gugatik aur egin zan; gugatik bizitu zan arotz beartsu baten aldamenean; bere Ebanjeliyo miragarria lurbira guzian zabalteko, iru urte nekez beteak igaro zituan; masalleko, azote, iseka eta irañik aundienak gugatik artu zituan, eta azkenik gugatik il zan bere odol guzia Gurutzean ixuriaz.

Guganako naitasun onen agiri

oyek ezer ez balira lez, bere gorputza janaritzat eta bere odola edaritzat utzi zizkigun. ¿Arkitu bear al litzake, maitasun sugar-tsu oni dagokionez, erantzun bear ez liyoken kristaurik? Agian idurituko zaizu naikoa, Jesus'i esatea: “Nere Jaun eta Jainkoa, guziz gañ maite zaitut nik,,. Ez kristaua, Jesus'ek biotz eta egitez agertzen zaion maitasuna nai du. Bekataria bazera ere, deitu zaiozu biotz garbiz, bera irtengo zaizu bidera, eta berak laztanduko zaitu, Ebanjelio'ko seme ondallea bezela. Bai kristaua, zoaz eta maite ezazu biotzez zure Egille eta Berterosle Jesus, eta onela eskuratuko dezu betiraunde guziko zoriona.

GERTATUA

Aurrerago aitatu genduen Paraiso'ko Dominika'k, lorezko bikoroi eratu zituañ larunbat batez, eta Jesus eta Maria'ren idurien aurrean ipiñi zituan, lore ayen usai gozoa artu zezatela, eskatuaz. Etzuala iritxi eskatzen zuana ikustean, bereala bururatu zitzaien emakume oni, oitzen zuan limosna egin etzualako izango zala. Asmo au arturik etxeko leiora atera zan, lenbizi zekusanari emateko; laxter igaro zan guziz eder eta grazi aundiko aurra zeraman emakume bat. Bereala altxa zituau aurrak eskutxoak limosna eske, eta oro bat egin zuan amak ere. Aurraren eskutxoak zaurituak zeudela Dominika'k ikus-

tean, errukiz beterik itxegoteko, esan zien. Badijoa limosnarekin, eta bertara eldu baño lenago, etxe barruan arkitzen ditu beartsuak, atea itxiya egon arren. ¿Nork iriki dizute atea? galdetu zien; ¡ai! galdua naiz, nere amak ikusten banau. Ez bildurtu, esan zion emakume beartsuak, iñortxok ez gaitu ikusi. ¿Nola dabil zutik zure seme ori, oñetan dauzkan zauri oyekin? Galdetu zion Domínika'k. Maitetasunak iriki dizkio, erantzun zion amak. ¿Ez aldizute zauri oyek miñik ematen? Aurra orduan arpegi alaiaz begira jarri zitzaion. Onetan ikusirik aurrak idurien aurrean zeuden lore-koroi ayek, begi ta eskuz amari eske abiatu zan, eta bereala Amak eman zizkion, usai egiteko. ¿Zerk

apaindu erazi dizkizu lorez iduri
oyek? Galdetu zion emakumeak.
—Jesus eta bere Amari diedan
maitetasunak.—¿Zenbat maite
dituzu?—Al dedan guzia.—Eta
¿zenbat aldezakezu?—Berak
laguntzen didaten ainbat.—Ongi
dagizu, erantzun zion emaku-
meak, jarrai zazu orrela, eta Jain-
koak sariztatuko zaitu.

Dominika etzan aspertzen, bai
aurrari eta bai amari begiratzez.
¿Zeri begiratzen diozu? Galdetu
zion emakumeak.—Zure aurrari;
—eta zerbait urreraturik, zaurie-
tatik usai gozozko odola zeriola
aurrari, nabaitu zuan Dominika'k.
Bereala galdetu zion emakumea-
ri, ¿zer ukenduz sendatzen diz-
kiotzu zauriak aurrari?—Maitez-
ko ukenduz.—Eta ¿nun saltzen

da?—Fede biziz lan onak eginaz billatzen da. Onela ziardutela, aurrari bularrean besteak baño usai gozoagoko zauria ikusi zion; artuzuan zapi zuri bat bera garbitzeko; etzion baña Amak utzi, eta aurra ere zerbait atzeratu egin zitzaion: “Atoz umetxoa, atoz, ogia emango dizut eta,” esan zion Dominika’k. “Aur onen janaria maitetasuna da,” esan zion amak; aur au pozik euki nai badezu, maita ezazu asko. Itz oyek aditzean, aurra arpegi alaiaz, izketan asi zan Dominika’rekin, galde-tuaz: ¿Asko maite al dezu Jesus? —Gau ta egun Beraz pentsatzen nago, nola atsegin eman, ez daki-dala.—Maitetasunak erakutsiko dizu Berari atsegin ematen. Geroz eta geiago zijoan zabaltzen aurra-

ren zaurietako usaia, eta Domini-
nika'k pozez beterik zion; çaur
baten zauriak orren usai gozoa
zabaltzen badute, nolakoa izango
ote da, zeruko usaiaren gozota-
suna? Ez ikaratu, esan zion ema-
kumeak, Jainkoa dagoan tokian,
bertan dago usai gozo guzien itur-
burua. Itz oyek esatez bat, aurra-
ren arpegia eguzkia baño ede-
rrago biurtu zan, Ama berriz ar-
gitasunez beterik azaldu zan. Or-
duan artu zituan Jesus'ek bere
Amaren magaletik loreak, eta
Dominika'ren gañean zabalduaz,
dasaio: "artu itzatzu lore oyek
gero zeruan emango dizkitzuda-
nen sinisgarrizat,,. Au esanik,
alde egin zuten Ama Semeak,
Berakin zeramatela zorioneko
gaztearen biotza.

OPARIYA

Jesus'en eta bere Amaren biotz sagraduen izenean gauz onen bat egin.



MARIA GUZIZ DEUNARI

GURE BIOTZAK OSORO ESKAINTZEKO

OTOITZA

Birjiñ guziz Santu, Jaungoikoaren egizko Ama; ni U. zure oñetan auspezturik, Jaun Guzialtsu eta zerutar guzien aurrean, bekatari aundi bat izan arren, nere biotz osoa, bere zale ta naikunde guziaz, eskaintzen dizut. Nere naia au da, zuri betiko ematea, zure eta zure Seme mai-

tearen gauza dan bezela. Artu ezazu ba, eskañi labur au, Santu guziak egiten dizkitzutenaz bat; eta aurrerontzean Zuretzat eta zure Semearentzat bakarrik bizitzeko graziya iritxi zadazu. Ala izango dala, uste det, Jainkoaren laguntza eta zurearen bitartez. Jesus eta Maria, sutu ezazute nere biotza Zuen maitasunezko su bizi az: orain lurrean Zuek bizi ro maitaturik, gero Aingeru eta Santu guziakin betiraunde guzirako zeruko erridian arkitu nadin. Ala izan bedi.



SAN BERNARDO'K
AMA BIRJIÑA'RI EGITEN ZION
OTOITZA

Oroí zaitez, Maria Birjiñ guztiz errukitsu ori, ezdala iñoiz entzun, Zuk utzi dezula, Zugana eldu, eta Zure laguntasuna eskatu duanik. Itxegopen onezaz sendoturik, Zugana nator laisterka. Zure aurrean nago negarrez. Ez, arren ba, Jaungoiko-Semearen Ama, nere itzei ezentzunik egin; eta bai arrera onaz aditurik, eskatzen dizudana eman zadazu.

(300 eguneko barkapenak, bakoi-tzean; osoa, illean).



LORETXO EDER BANA

(GIPUZKERAZ)

Sarritako.

*Goazen, goazen gustiyok
Birjin Ama'gana,
Eskaintzera biyotzez
Loretxo eder bana.*

Aldiyak.

- 1 Lore mota guziyak
Lurraren gañean,
Zure antzeko dira
Edertasunean.
- 2 Liriyo ederrak diyo
Arantza tartean
Berdiñik ez dezula
Garbitasunean.
- 3 Jainkoa maitatuaz

Zerala urtutzen,
Aarros gorri txuriyak
Digute esaten.

- 4 Poz-pozez dizkitzugu
Loreak ezkaintzen,
Berak digutelako
Nor zeran agertzen.

Sarritako.

*Atozte, goazen danok
Lorez apaindurik,
Mariya goratzera
Pozkidaz beterik.*

Aldiyak.

- 1 Loreak eskaintzeko,
Mayatz eder ontan
Belaunbikatzen gera
Zedorren oñetan.
- 2 Guraso kristau onak
Arrosak bezela,

- Datoz beren biyotzak
Zuri ematera.
- 3 Umill zure aurrera
Neskatxak biyotzez,
Liriyoak eskaintzen
Datozkizu pozez.
- 4 Biyoleten antzera
Umill eta garbi
Mutillak jartzen dira
Zure serbitzari.
- 5 Guziyok jartzen gera
Zure babesean
Gorde gaitzatzu, Ama,
Zure Biyotzean.



LOREAK ETA BIOTZA

Sarritako.

*Loreakin biotza
Zuri ematera*

*Umilki gatoz, Ama,
Zure oñetara.*

Aldiyak.

- 1 Loreen Erregiña,
Amatxo laztana,
Lore danen artean
Zu zera ederrena;
Pozez kantari gatoz
Guztiok Zugana
Loreaz eskaintzeko
Biotz umill bana.
- 2 Lore gozoen billa
Maiz uda berriyan
Erleak oi dabilta
Oparo zelayan,
Gu ere bikañenak
Arkitu naye
Gabilta ipintzeko
Aldare gañean.

(Iriondo, Elgoibar).

LIRIYO TXURIYA

Sarritako.

*Biyotzez eskañitzen
Dizudan lorea,
Ontzat artu zadazu.
Amatxo nereea.*

Aldiyak.

- 1 Biyotzean gorderik
Loretxo bat daukat,
Gordetzea nai nuke
Garbiro Zuretzat;
Etsai gaiztoak nai du
Zikindu lokatzaz;
Baña nik gordeko det.
Ertzirik arantzaz.
- 2 Liriyo txuri eder
Usai gozoduna,
Garbitasun osoa.

Berakin daukana,
Eskaintzen natorkizu,
Amatxo laztana,
Loretxo onen bidez
Zurea naiz dana.

(Iriondo).



KRABELINTXO BAT

Sarritako.

*Krabelintxo bat, nator,
Zuri eskaintzera;
Biyotza damakizut
Berakin batera.*

Aldiyak.

- 1 Krabelintxoak diyo
Bere usai gozoz,
Zuk maite gaituzula,
Maite biyotz osoz.

- 2 Guri ere biyotza
Eskatzen diguzu;
Guztiyak ar-itzatzu,
Zureak dituzu.
- 3 Grazizko intz gozoa,
M... , Zuk daukazu;
Zeru eder ortatik
Bidaldu zaiguzu.

(Iriondo).



MILLA BIYOTZ BANITU

Sarritako.

*Ama, lili eder bat
Siñale jarririk,
Biyotza ematen dizut
Guztiya osorik.*

Aldiyak.

- 1 Milla biyotz banitu,
Jainkoak emanik,

Guztiyak Zuretzako
Nituke osorik;
Bañan ez izanikan
Bakartxo bat baizik,
Bakar au milla bider
Ematen dizut nik.

2 ¿Nola Zu nik ez maite,
Amatxo laztana,
Zurea baldin bada
Nere biyotz dana?
Goiko izar guztiyen
Argiya zerana,
Zu zera beti beti
Nere zori ona.

(Iriondo).



IZAR GIDARIYA

Sarritako.

*Izar gidari eder,
Zeruko bidea,*

*Lagun zaiguzu beti,
Amatxo maitea.*

Aldiyak.

- 1 Itsasoa irakiten,
Goibel odayetan,
Ostots eta tximistak
Alde guztiyetan:
Batela galduko da
Zurrunbilloetan,
Agertzen ez bazaigu
Izar bat goyetan.
- 2 Ipar-aldeko Izar
Diztiyatzallea,
Ekaitz negartsuetan
Pozkida emallea;
Argi egin zaiguzu,
Amatxo maitea,
Uts egin ez dezagun
Kayara bidea.

(*Iriondo*).

GUZIZ GARBIYA

Sarritako.

*Garbitasun osoaz
Zeralako sortu,
Lurbira ta zeruak
Zu goraltzen zaitu.*

Aldiyak.

- 1 Zeru guziyak baño
Zera garbiyago,
Jaunaren Goyalkiyak
Bañon altsuago,
Milla eguzki baño
Zera argiyago,
Zuri berdintzekorik
Mariya ¿non dago?
- 2 Zeruetan ez dago
Izar ain argirik,
Zelayetan ez dago
Lore ain apañik,

Ez ere itxasoetan
Pitxi ain ederrik,
Zure edertasunaz
Berdin ditekenik.

(Iriondo).



MARIA EDERRARI

Sarritako.

*Aintzal eta omenak
Nigari ederrari,
Garbitasun osoaz
Sortutakoari.*

Aldiyak.

- 1 Donokiko Bakaldun
Jainkoa'ren Ama,
Eskar guziz jantzirik
Sortua zerana,
Poz pozik abestutzen

Gatoz gaur Zugana;
Oso garbi ta eder
Zeralako dana.

2 Arrosa ta liriyo
Gorri ta txuriyak,
Zure aldean dira
Beltz eta itsusiyak;
Orni zaitualako
Jauna'ren graziyak,
Arriturik dauzkatzu
Zerutar guziyak.

(Iriondo).



AZKEN-AGURRAK

1 Agur Jesus'en Ama
Birjiña maitea,
Agur itxasoko-izar
Diztiatzallea;
Agur Zeruko Eguzki

Pozkidaz betea,
Agur pekatarien
Kaya ta estalpea.

2 Agur gizonen Ama
Zeruko Erregiña,
Ama gozo txit maite
Amorezko piña;
Zugandikan joatea
Gauza da samiña,
Agur nere biotzeko
Poz eta atsegiña.

3 Agur gure poza ta
Atsegiñ guztiya,
Atsekabe danetan
¡Gozakai eztiya!
Agur Birjiña eder
¡Txit zoragarriya!
Ar zazu biyotza ta
Torizu biziya.

4 Bañan zugandik alde
Biyotzak ezin du,

Zuregana dijoa
Zugan bizi nai du;
Birjiñ paregabea
Bedeinka nazazu,
Agur, Ama nerea,
Agur, agur, agur.

(Aita Arana, S. J.)



LORA-ILLERAKO

(BIZKAIERAZ)

*Guzti guztijok alkar arturik
Gure biyotzak loraz beterik:
Opa deutsuguz, Marija,
Zeruko izar argija.*

1 Lora guztijen lora
Grazijen grazija
Zu zara Ama maite
Dontzella garbija.

- 2 Ill au bada izanik
Loratsu argija
Zuri opa deuntsugu
Osorik guztija.
- 3 Al dogun on guztija
Zure izenian
Egingo dogu alan
Ill oso guztijan.
- 4 Artu egizuz ontzat
Gure eskinijak
Laburrak izan arren
Eurenez guztijak.
- 5 Ea bada guztijok
Bizkortu gaitian,
Biotzak auzpazturik
Amaren aurrian.
- 6 Adanen seme alabok
Erbeste onetan
Belauniko gaukazuz
Gaur zeure oñetan.
- 7 Gure premiñen barri

Zuk ondo dakizu,
Guzti guztijetara
Begira egizu.

8 Zugan iminten dogu
Geure poz guztija,
Izanik Zu grazijen
Iturri ugarija.

9 Batzuk batetik eta
Bestiak bestetik
Laban arriz beterik
Alde askotatik.

10 ¿Zelan guk ez billatu
Zu, Ama maitia,
Izanik izar argi
Zeruko atia?

11 Zure eskubidiak
Semiak emonik,
Zeruan bertan bere
Ez dauke bardiñik.

12 Jaungoikuaz ostian
Altsuena zara;

¿Bada zuri itxirik,
Begiratu nora?

13 Pekatari maitiak,
Ama bera dogu,
Gura dogun guztija
Beragan daukagu.

14 Jesus begira dauka
Zer deitsan eskatzen,
Biotza idigirik
Grazijaak eskintzen.

15 Bera barriz guganontz
Errukiz beterik,
Aldendu baga iñoz
Gogo ta begirik.

16 ¿Zer gura izan geinke
Onezaz ostian?
Deijez jaoku bera
Ill oso guztijan.

17 Orain ugariturik
Bere mesediak,

Erraztu gura deuskuz
Zeruko bidiak.

18 Bai: maijatz ill dontsu au
Beretzat auturik,
Bere eguak daukaz
Guztiz zabaldurik.

19 Azkortu bada azkortu
Nagitu bagarik,
Ez arren iñok galdu
Era ain ederrik.


20 Erregutu bizi-
Damutu sendaro,
Pekatuen negarrak
Bota egunoro.

21 Asmo santu ta onak
Artu aurrerako,
Biziera on baten
Alan irauteko.

(*Fr. J. A. Uriarte*).

- 1 ¡Birjiña sortueran
Garbija zariana
Aingeruen Erregiñ
Ta Amatxolaztana!
- 2 Lora eder onekaz
Nator ni Zugana
Artuizu lora artian
Nire bijotz dana.
- 3 Ara emen larrosa
Polit da gorriak
Klabeliñ ederrakaz
Lirijo zurijak;
- 4 Pozez aratu doguz
Mendi ta zelaijak
Zuri eskiniteko
Guztijok alaijak.





MEZA SANTUA

ENTZUTEKO EGIKERA

SARRERA'TIK ESKAINTZA'RAÑO

Aitaren, Semearen eta Goteunaren izenaz.

Zure izenean ¡Oh Irukoitz
txit Deuna! zor zaitzun Aintza
eta Omena Zuri emateko gatoz
Doneskañi andi ontara. Utzi za-
dazu, zure Jaupariyarekin batera
Jauskañi aldintsu au eskaintzen,
gu gaizkatzeko izan dedin.

Zure Semearen Nekauste eta
Eriyotzaren Doneskañi odoltsua
gertatu zanean, an egon banintz,
kalbarioan izan bearko nituan bi-
yotzukiyak eduki ditzadan, lagun
zadazu.

KONFITEOR esatean.

Ni pekatariya, esan zazu.

OREMUS esatean.

Birjiñ txit Deunaren eta Santuen bitartekotasunagatik, eman zaizkigutzu, Jaupariyak beretzat eta guretzat eskatzen dizkitzun grazi eta ontarteak, eta nik berakin batean eskatzen dizkitzutanak. Jesu-Kristo gure Jaunaren izenaz. Olaxe.

EPISTOLA esatean.

Zuk agerturik Idazti Deunean dagoana, onetsi eta ziñesten det, eta Jainkozko Abitzak eta Zure Doibatzak irakasten duana ere bai.

CREDO esatean.

Zure Ebanjelioa nere biyotzean idatzi zadazu, eta biyotzsendotasuna indazu, zure ziñopa deunakin aldeztu dezadan; Ziñesmena galtzeko irrizkuetatik iges egiten detala. (Onerazpenez Kredua esan zazu).

Eskaintza'tik Pater noster esateraño.

ESKAINZA egitean.

Aurkesten dizudan Eskañi au onesteaz, diña zaite, Jauna, eta Biyotz onez ar zadazu; Jaupa Deun onen emaitzetan artzaille izan nadin.

SANCTUS esatean.

Deun, Deun, Deuna da gudarosteen Jaungoikoa, Zure Aintza-

laz Ortze-Ludiyak beteak daude. Goyala Goyetan.

Onetsiya Urtziren izenaz datorrena.

MEMENTO: Oroi zaite, esan nai du.

Zure Altseinarekin batera Jauskañi au eskaintzen dizut, Zure Jabetasun goyena aitortzeko; Zure ezin esan alako ontartekatik eskerrak emateko; gure pekatuen ordaintzat; eta bear ditugun eskuikiak eskatzeko.

Otoizten dizut, Doipuruaren aldez, Jaupari Nagusien eta bategerearen aldez; Jauparoste araudun eta araugearen; eta Doibatz, Aberri eta Laterriaren bearkunakatik. Eskatzen dizut, gure guraso, abide, adizkide eta ongilleen aldez; gure gaitz

naileakatik, eta ogenlari guztiyak onbiyurtu ditezentzat.

Gogora ekarri, nai ziñuzken notiñak: urliya... sandiya... edo berendiya.

Ostia Altxatzean.

Nere Jaun eta Jainkoa, Gurutzeko aldarean Ludiya berterosteko diña izan ziñan Jesu-Kristo'ren Gorpuzt txit ederra, jauresten zaitut.

Kaliza Altxatzean.

Nere aldez ixuri, eta neretzat errukiya eskatzen dezun Jesu-Kristo nere Jaunaren Odol txit ederra, jauresten zaitut.

MEMENTO

Oroi zaite ildakoen aldez otoitz egiteaz.

Doneskañi aundi onen bidez

otoizten dizut, Jauna, Garbitoki-
yan negarrez dauden arimaz
erruki zaitezela, eta Donokira
eraman itzatzu zure urrikaltasu-
nak goretsi eta aintzaltzeko.

Nobis quoque peccatoribus, esatean.

Gu pekatarioz oroi zaite, Jau-
na, eta zure beldu, ziñopa eta do-
nokiar guztiyen lagun egin gaitza-
tzu; Zu maitatu eta aintzaldtu zai-
tzagun betikotasun guztiyan.

Pater noster-etik Meza amaitzeraño

Pater noster'ean:

Onerazpenez Aita gurea esan
zazu.

Agnus Dei esatean:

Ludiko pekatuak kentzen di-
tuzun Jainkozko Bildotza, guzaz
erruki zaite (iru aldiz).

Jaunartzean:

¡Oh Jauna! Zuk irakatsi ziñidazun Aldareko Oteuna eskatzen, arimaren egunoro ogiia bezela; irazekiro nai zaituan nere biyotzera atoz, Jauna; eta Sakramentuz egunoro artzeko zori ona eman zadazu.

Aizken-Otoitzetan.

Eskerrak, Jauna, Doneskaintz ontara etortzeko zori ona eman didazulako; eta santuen bitartez eskatzen dizut, egun ontan zure otseiñ zintzo izateko graziya; zeruko ongasun neurrigabeak irabazi ditzadan, Jesu-Kristo gure Jauna, arren. Olaxe.



AZTERKETA AURRETIK EGITEKO OTOITZA

¡Oh nere Jaun eta Jainkoa!
biyotza miatu, eta gizonen barrunbeak ezagutzen dituzuna;
graziya indazu, nere barrunbea zinez aztertu ta egiz ezagutu dezadan; onela nere gaizkeri eta pekatu guztiyak agertu eta ongi aitorturik, zuzenbidetu nadin, eta zure barkapen eta adizkide-tasuna ludiyan iritxirik, donokiko gozamen betikoan sartzeko.

GOGAPE-AZTERKETA EGITEKO ARAUTA LABURRA

LENENGO AGINDUA: Erlijiosko lanak ongi egiten ote dituzu?

Eleiz katolikoaren kaltez zer bait esan edo irakorri ote dezu? Ziñezmen gabeko lagunakin batzen ote zera? Ingi gaizto edo ludikoirik irakortzen ote dezu? Ziñezkeri, sorginkeririk eduki ote dezu? Edo azti edo oyen antzekoei galdeak egitera joan ote zera?

BIGARREN AGINDUA: Ziñ edo juramenturik egin ote dezu? Zure promes edo eskañitzak osatu ote dituzu? Birao, añeneko edo itz gaiztoak esan ote dituzu Jainko edo santuen aurka; edo Eleiz eta Eleiz-gizonen kaltez?

IRUGARREN AGINDUA: Jayetan Meza ongi entzun ote dezu? edo bearkun andi gabe lanik egin ote dezu? Eta zure menbekoak egiñ ote dute?

LAUGARREN AGINDUA: Seme

edo alaba bazera; zure gurasoei lots ona gorde ote diezu? Gurasoa bazera; zure umeei kristau Ikastea irakatsi ote diezu? Eta era onean ezi, zuzendu, zigorkatu, zaindu, eredu txar, edo maña geyegi eman, beren eskubideak ausi, edo arrizkuetara joaten edo lagun txarrakin ibiltzen utzi ote diezu? Ezkondua bazera; zintzoro, maitetsu, eta bear dan neurri zuzenetan ibilli ote zera? Nagusia bazera; bear dan bezela agintzen ote diezu zure menbeko morroi eta neskameei, eta Jainkozko erruki eta zuzendez? Menbekoa bazera; bear dan umiltasunez Nagusiei lots ona gorde ote diezu, eta beren esanak leyalki egin ote dituzu? Nagusi, langille, ordelari, ornilar,

osalari, irakasle, epaikari, aldezlari, erri-zai, edozein bizpideko zerala, zure ardurako lanak ongi ta osotoro egiten ote dituzu?

BOSGARREN AGINDUA: Zure buruari, edo besteri eragabe itzez edo egitez kalterik egin ote diozu? Iñori gorrotorik izan ote diozu? Aserrez iñor minberatu, ezetsi, iraindu ote dezu, batik bat txiro edo menbekoak? Zimo txarrekoa ote zera? eta ziyorik gabe gaizki esale ta eramangaitze-koa ote zera? Zure menbekoak gaizki erabiltzen ote dituzu beren lan, jan, lo eta beste gauzetan? Bat, edo bat larri edo estuasunen batean dagoala jakin ezkerro, alegiñaz lagundu ote diozu?

SEIGARREN AGINDUA: Izkuntz

lasaiak edukitzen ote dituzu? Galbidezko ekuskaietara joaten ote zera? Ipuñ, ingurti, idazti edo paper edo liburu kaltegarriyak irakurtzen ote dituzu? Pekatuzko irrizkuren batean ote zabil-tza? Loikerizko gauzen bat egin ote dezu? Bakarrik edo nolako notiñakin? Dantzatu ote zera? Eta nola? Era onez jazten ote zera?

ZAZPIGARREN AGINDUA: Iñori zerbait kendu ote diozu? Ongasunetan eragabez iñori kalterik egin ote diozu? Geyegi artu, edo gutxiegi eman, egin ote dezu? Zerbait xixkatu ote diozu iñori? Berea ematea iñori luzatu ote diozu? Zor dezun lan-sariya bear dan aroan ordaintzen ote dezu? Limosna edo sorospideak

beartsuei egiten ote dizkietzu? edo guztiya zedorrentzako nai zenduke, ongasunak gañezka edukita ere? Jantziyan, jan-edanean eta abar, geyegikeriz ibiltzen ote zera?

ZORTZIGARREN AGINDUA: Gezurririk esan ote dezu? Iñor iraindu, besteren utsunak azaldu, ixilpeak agertu, edo entzun, iñoren eskutitzak irakurri, susmo txarrak egin, maxiatu, edo arinkeriz iñor epaitu ote dezu?

BEDERATZIGARREN AGINDUA: Egipen loyak egitea opatu ote dezu? Gogapen loyetan atsegindu ote zera oartu ezkeru?

AMARGARREN AGINDUA: Bidegabekeriz iñoren ongasunez jabetu nai izan ote dezu? Zuri nai ainbat ematen ez dizulako, Jain-

koaz gaizki oldoztu edo mintzatu ote zera? Irabaziakatik aldi geyegiz arazotzen ote zera; utzirik beste bearreko gauzak: Erlijio, umeen eziera, irakaste, onegintza eta onelakoak?

ELEIZAREN AGINDUAK

Jayetan Meza osoa entzun ote dezu? Pazko-Aroan Jaunartu ote dezu? Aizken Ikurton Santuak mugonez gaxoak artu ditzaten, ardura eduki ote dezu? Eleizak agindutako barau eta aragi-uzteak gorde ote dituzu? Eleizkizunak bear dan eraz egiteko, alegiñez lagundu ote dezu?

Begira zazu ere arretaz, zertan aroa igarotzen ote dezun,—Zure izakera obetzen ote dan.—Bai ote dituzun: Begiramen, Zuzen-

de, Sendotasun eta Gogiroa; eta Jainkoaren eta lagunaren maite-tasuna ote dauzkatzun.

AITORKUNTZA

Konpesatu baño len egoki da jakitea:

1.^a Bakarrik pekatu mortal edo larriak aitortzera bearpetuak gaudela.

2.^a Jainkoak agintzen duala, aitorkuntz onean pekatu larriak bein aitortzea; baña nai bada, askotan aitortzea ez dago gebendua.

3.^a Pekatuen izapea aitortzea aski da, eta bere inguruneak esatea ez da bearrekoa; beintzat beste pekatu mueta izatera aldatzen ez badira.

4.^a Pekatua larria izateko bear da: 1.^o Egitera dijoan gauza gaiztoa dalaren oarpen osoa. 2.^o Gaizkeria egiteko naimena. 3.^o Agindua edo gebendua dagoan gauza, Jainkoaren legeak gauz astuntzat edukitzea, edo norberak aintzat ezagutzea. Baldintz oiek guztiak ez badauzka, ez da izango pekatu larria.

5.^a Pekatua gogora ekartzeko, onez onean alegindu ezkerro, ez du egingo aitortpen txarra; oroimen laburra daukalakotz. Aztutako pekatua barkatua geratzen zaio,

eta zerbait gauz astun gogoratuagatik, ori urrengorako utzita, Jaunartu dezake.

6.^a. Onez onean albada: **si id conmode potest**: (Trento'ko Batzarraka dasa) pekatu larriak zenbat izan diran, aitortu bear da, eta ziurki ezin bada, gutxi gora bera.

7.^a Esamiña edo miaketa egin bear da gizon eraz, Sakramentua geyegi mindu edo astundu gabe. Miaketa ori geyegi estutzea, eta Garbaizko Sakramentura iguiz joatea Satanas'en ziltzaldia da. (Lugo, Calatayud).

8.^a Pekatu asko, eta asko muetako oitura txarrez arima nastu eta anabastua badago, ezin diteken gauza da zearo aztertu, eta pekatuen kopurua arkitzea (Calatayud).

9.^a Garbaiduna, ez dago bearpetua aitortzera, ez pekatua eta ez pekatuaren inguruneak, bere gaiztakeria oartu edo ezagutu ez bazuan; ba, Jainkoaren begietan pekatua da, pekatariak pekatu egin zuanean, bere barrunean ezagutu zuan ainbatekoa, ez geyago, eta ez gutxiago. (Calatayud).

10. Igarotako aitorkuntzetan pekatu larria lotsaz ixildu badezu, aitorkuntz oiek ezerezak dira, eta berriztatzera bearpetua zaude, lenbizi aitortuaz ixildu zenduan pekatua. Bildur gabe pekatu ori aitortu beardezu, eta gero besteak; ba, aitortu ziñuzenak ere, barkatu gabe dauzkatzu.

Pekatuen Damu edo Garbaya.

Oarkitza: Egizko Garbaya izateko, ez da bearrekoa garbai ori sentikoia izatea. Nainkoa da, bere pekatuak gorrotatu, eta oiezaz damutzea; bere gañean dauzkalako; pekatua, gauz itsusia dalako; edo pekatuagatik Jainkoak zigorkatuko dualakoaren bildurrez; edo Jesus Gurutziltzatuaren maitez; edo gure Jainkoa gurekin beti ain guztiz ona izanik, pekataria lotsatzen dala, bear bezelako begirapen eta maitetasuna izan ez diolako; eta Bere lege santua urruindu izan dualako eskergabekeriz.

GARBAYA BIYOTZEAN SORTZEKO OTOITZAK

1. ¡Oh nere Jaun eta Jainkoa! pekatu guztiyak gorrotatzen dituzun Jainko Santu eta Zuzena: ni pekatariya, lotsaz Zure oñetara natorkizu, umilki nere okerreri guztiyen barkaziyoa es-

katzen; aitorkuntz onen bidez Zure Semearen odolaz garbitu nazazun. Bera izanik Zurekin eta Goteunarekin bizi eta nagusi dana betiraunde guztiyetan. Olaxe.

2. ¡Oh nere Jaun eta Jainkoa! gizasemeen eginketa, eta gaiztakeri guztiyen Epaikari Zuzena; eta bizitz ontan eta bestean pekatu guztiya zigorkatzen dezuna; ni pekatari galdua, nere okerrakatik inpernu eta zigorkadaren aldiñ izan naizena; Zure Urrikaltasun Jainkozkoaren aitzinera auspezki natorkizu, nere pekatuen lokarrietatik askatuta, nere aldeZ Zure Seme txit Deunak eskañi zizkitzun oñaze, nekauste, eta eriotzagatik asketsi zadazun. Bera bai da Zurekin

eta Goteunarekin bizi eta nagusi
dana betiraunde guztiyetan.
Olaxe.

3. ¡Oh nere Jainko andi-ya!
¡Oh Jesu-Kristo nere Jauna! ni
berterosteko, Gizon egiña; nere
pekatuen barkapena iristeagatik;
Gurutziltzatuta, biziya eman zen-
duana; Zure oñetan umilki aus-
pezturik barka eske nagokizu,
Zure odol eta biziya nigatik
eman ta agertu ziñidazun maite-
tasuna urruindurik, berriro lai-
dotu zaitutalako. Lagun zadazu,
ongi konpesatu, damutu eta ondu
nadin. ¡Oh nere Jabea, bizi eta
nagusi zerana betiraunde guzti-
yetan. Olaxe.

¡Oh nere Jainko maitagarria!
¡Oh nere Aita, nere Irasle eta
Ongillea! ¡Oh txit Altsu eta On-

tsua eta gizadi guztiyaren Jauna!
garbai naiz, iraindu zaitutalako;
Zu aiñ ona izanik; eta Zure On-
tasun aizkengabearen aitzinera
umilki natorkizu, auspezturik es-
katzen, seme ondatzalleak beze-
la, asketsi zadazula; eta berriro
laztandurik, zure etxean toki
egin zadazula, adiskidetuaz egiz-
ko damuaren bidez. Jesu-Kristo
zure Semea arren, Zurekin eta
Goteunarekin bizi eta nagusi da-
na betiraunde guztiyetan. Olaxe.

GARBAI-EGINTZA

*Jesus, negarrez nator,
Jesus, ni Zugana,
Jesus, barka zadazu,
Jesus, nere Jauna.*

- 1 Ni naiz, Zu Gurutzean
Josi zaitutana,
Inpernuko su-garra
Merezi detana.
- 2 Pekatari galdua
Izan naizelako;
¡Ay Jauna! balitzaiket
Biyotza lertuko.
- 3 Nigatik Gurutzean
Zaude, Maite Jesus,
¡Ojala! ilko banintz
Damuaren damuz.

(Iriondo).

AITORKUNTZAREN EGIKERA

Aldiya ez galtzeko, bestea konpesatu bi-
tarteetan **Ni pekatariya** esan zazu.

Zure txanda eltzen danean, aitortegira
urreratuko zera, eta zutik edo belaunbiko,
oitura dan bezela, aitor-entzuleari esan za-
yozu **Agur Maria guztiz garbiya**; eta eran-
tzungo dizu; **Pekatugabe sortua**.

Bereala zedorrek esango diozu: Onenbeste aldi da orain urrena aitortu nintzala. Penitentzia egin nuan; (edo ez). Pekaturik ez nuan utzi (edo bai) edo aztu zitzaidan (edo ez) dana dan bezela.

Arrezkero onelako edo alako pekatu egin ditut..... aitortuaz oroitzen zaizkitzunak.

Al izan ezkero, galdetu gabe, zedorrek aitortzea obe da; baña ezin badezu, galdetu dizazula, esan zayozu; eta zuk guztiari zintzoro erantzun; eta ark galdetzen ez dizun pekaturik bazendu, zuk guztiak esan bear dizkiotzu; eta ez bildurrik izan guztiya aitortzeko; ba, ongi artuko zaitu, eta ixilkuna gorde ere bai; eta gero pozez geratuko zera.

Adi adi entzun ematen dizkitzun onuak; ba an bera dezu zure aita, irakasle, epaikari eta sendagillea.

Aloteak berari itandu eta bear dituzun ikaskizunak. Guztiya esan adizkide on bati bezela uste on osoz: Ziurki egon zaitezke, ixiltasun osoa gordeko dizulata.

ORDAINTZA

Aitorkuntza amaitzean, albadezu penitentziya bereala osatu. Orduan guztiya ezin badezakezu, edo luzea baldin bada, aldezuna egin, eta osterontzekoa lenbaitlen.

Ardura bereziz aztertu bear dezuna da, izan dituzun, irrizku, eta pekaturako ereti, okasio edo bideak; asmo sendoa artzeko; ez

bakarrik pekatutik igesteko; baizik baita ere pekaturako bide, okasio, ereti eta tentazioetatik. Eta ardura andiko egi au beti gogoan eduki. Ereti txarretan sartzen ez dana, erraz ongi bizi izaten 'dala; pekaturako irrizkue-tan sartzen dana, agitz gaizki bizi izaten dala.

AITORKUNTZ ONDORENGO

OTOITZAK

Jainko nere Jauna, pekatuaz iraindu, eta garbayaz otzantzen zerana, nere biyotz damutuaren otoitzak entzun, eta aldiñ izan ditutan zure aserrearen zigorkadak nigandik aldendu itzatzu. Jesu-Kristo nere Jauna arren. Olaxe.

Jainko nere Jauna, maite zaituztenentzat gauz guztiyak ongarri izatera biyurtzen dakizuna, zure

maitetasunaren zale garbiya gure biyotzetan ixuri ezazu, zure goiargiyaz eraldu ditutan opatasun eta asmoak, aurrerakoan iñolazko ziltzaldiz aldatu ez ditezen.

Gure biyotz eta errayak Go-teunaren suaz sutu itzatzu; gogo eta gorputzeko garbitasunaz zure mirabe beti izan gaitezten.

Jainko nere Jauna, Zugandik iñor ez dezu jaurti nai; baizik pekatu egin badu ere; garbaitzen bada, erruki biguñaz beraz kupitzen zera. Eskari umillak errukiz entzunik, gure biyotzak argitu itzatzu, zure aginduak osoki bete alditzakegun.

Jainko nere Jauna, gaiztoa ontzen dakizuna, eta pekatariyak galtzerik nai ez dezuna. Zure urrikaltasunean ustetziya jartzen

degun mirabeak, umilki auspez-
turik, Zure Andientz Jainkoz-
koari deitzen diogu, onginaizko
laguntzaz estalpetu, eta beti gor-
de gaitzatzun, eta jarraikiro zure
otseiñak izaten gerala, iñolazko
ziltzaldiz Zugandin beiñere al-
dendu ez gaitezen. Jesu-Kristo
gure Jauna arren. Olaxe.

Maria txit Deunaren bitartez Eskariya.

Gure argaltasunari Zure la-
guntz indartsua eman zayozu,
Jaun errukitsua, eta Jainkoaren
Amaren oroipenez eskatzen di-
zugunok, onen bitartekotasunez
gure gaiztakerietatik berbiztu gai-
tzatzu. Jesu-Kristo gure Jauna
arren. Olaxe.

JAUNARTU AURREKO OTOITZAK

Jainko txit onginailea, Zure entzumen kupidatiak gure eskariyak entzun bitza; eta Goteunaren graziyaz gure biyotzak argitu bitez; Zure Sakramentua diñazki etartzeko, eta betirozko maitez maitatu zaitzagun.

Nere Jainkoa, Zuretzat biyotz guztiyak agiriyan daude; gogo guztiyak mintzatzen dizute; ixilkairik Zuretzat ez dago, Goteunaren ixurimenaz gure gogoak txautu itzatzu, Zu osotoño maitatzeko, aldiñ izan, eta diñazki goraldtu zaitzagun.

Goteunaren suaz, nere Jauna, gure errai eta biyotzak erre itza-

tzu; gizgarbiz zure mirabe, eta gogo garbiz zure atsegingarri izan gaitezten.

Otoizten dizugu, Jauna, Goteun Poz-Emalleak gure gogoak argitu ditzala; eta zure Semearen aginpidez Egimen guztizkora gidatu gaitzala.

Otoizten dizugu, Jauna, Goteunaren indarra gurekin izan dedilla, eta kalte guztiyetatik jaigon gaitzala.

Nere Jainkoa, Goteunaren argiz gogo zintzoai irakasten diyezuna; Goteun Beraren graziyaz iguzu, ontasunak atsegin eman, eta bere alaitasunaz beti goza dezagula.

Otoizten dizugu, Jauna, gure barrunak ikertu ditzatzula, garbi garbi jarri ditezen; Jesu-Kristo

gure Jauna gugana etortzean, bere bizitokiya ongi gertatua arkitu dezan. Bera da Zurekin eta Goteunarekin betiraunde guztiyetan bizi eta nagusi dana. Olaxe.

Birjin Orban-gabearen bitartez

OTOITZA

Nere Jainkoa, Birjiñaren Sor-kunde orban gabekoaren bidez Zure Semeari diñazko bizitokiya gertatu ziniñozuna, otoi egiten dizugu, Zure Semearen eriyotza lenaz ekusirik, Zure Ama, lauso guztiyetatik gorde zenduan bezela; alaxe iguzu, bere bitartez Zure Semea etartzeko, garbi eldu gaitezela. Berau da Zurekin eta Goteunarekin bizi eta nagusi dana betiraunde guztiyetan. Olaxe.

TOMA DEUNAREN
OTOITZA

Emen natorkizu, Jainko alorodun eta betirozkoa, Jesu-Kristo nere Jaun, Zure Seme Bakararren Ikurtonera; gaxoa, biziya ematen duan osagillearengana bezela; loya, errukizko iturrira bezela; itsua, betiko argitara bezela; txiroa, ortze-ludiyen Jabearengana bezela; ezereza, aintzalazko Bakaldunarengana bezela. Zure aizkengabeko ontasun eta errukiyari eskatzen; nere gaxotasuna sendatzea onetsi dezala; eta nere loya garbitu; nere itsutasuna argitu; nere txirotasuna aberastu; eta nere gillustasuna jantzi: onela Gotzonen ogiya,

Bakaldunen Bakalduna, eta Jaunguztiyen Jauna, etartu dezadan; ain garbai eta egizko maitetasunez; aiñ ziñespen eta garbitasunez, aiñ asmo eta adigogoz, nere arimaren osasunarako egoki izango dan eraz.

Artu dezadala, indazu, Jauna, ez bakarrik Zure Gorputzaren Ikurtona; baizik Ikurton txit santu orren indar eta graziya. ¡Oh Biyotz txit bigundun Aita txit maitetsua!, eman zadazu; zapiz estaliya bezela bizikaro ontan etartzea opa detan Zure Seme Bakar au; etartu dezadala, betiorozko Aberriyan agiri dala, eta estalkirik gabe Bera ekusteko aldiñ izango detan eraz. Zurekin bizi eta nagusi dana betiraunde guztiyetan. Olaxe.

JAUN ARTU BAÑO LEN

EKANDUN BATZUEN EGINTZAK

Ziñesmena: Nere Jainkoa, Zugan ziñesten det; Guztizko Egिया zeralako, eta Zu ez zaitezkelako atzipetu, eta ez Zuk iñor.

Itxegokuntza: Zugan itxegotten det; nere Jainko txit altsu eta errukitsua zeralako, eta zure graziaz gaizkatu, eta donetu nai nazulako, nik nai baldin badet.

Jaumaitamena: Guztiyaz gaiñmaite zaitut, nere Jainkoa, txit ona zeralako; eta nerekin beti txit ona izan zeralako, ni beiñ ere orren aldiñ izan gabetanik.

Jaureskuntza: Jauresten zaitut nere Jainkoa, txit bikaña ze-

ralako; txit Deuna, eta gaudi guztiyaren Jaun eta Jabea.

Auspeztasuna: Zure aitzinean auspezten naitzatzu; irazaki txirra ni izanik, Zugabe ezer ezin dezaketalako, eta bear bezelako zure mirabe izan ez naizelako, eta asko eta askotan laidotu izan zaitutalako.

Maitetzko Garbaya: Azketsi zadazula, eskatzen dizut, nere Jainkoa; eta Zu ain ona izanik, laidotu zaitutalako, garbai naiz; eta nere okerreriya ordaindu eta zuzentzeko, gertu nago.

Esker on egintza: Egin dizkidatzun ontarte guztiyakatik esker onak damaizkitzut, eta batez ere gaur nik Zu etartzea nai izan dezulako.

Eskaintza: Naizen eta dauka-

dan guztiya eskaintzen dizut, guztiyaz, eta Zuk nai dezun guztiyan beti Zure mirabe izan nadin.

Jainkoaren Naikundeaz Erazkitasuna: Gauz guztiyetan Zure Naikundeaz bat egiten naiz; eta eman eta laketu nai didazun guztiya pozik onesten det; pekatua izan ezik.

Azkespena: Iraindu nauten guztiyei azkesten diet, Zuk azketsi dizadazun.

Otoitza: Zure Nekauste txit Deunagatik otoizten dizut, nere arimara zatozenean, nizaz kupitu zaitezela, eta bear ditutan grazizyak damaizkidazula; ez nazazula utzi nere bizikaroaren aizkene-raño; eta nere arima gorputzetik ateratzean, Ikurton guztiyezaz

indartua betiko bizitzara eramán
dezazula.

(Jaunartzerakoan laguntzallearekin **Ni pe-
katariya** esan zazu, eta gero Jaupariyarekin
batean iru aldiz):

“Nere Jauna, ez naiz diña Zu
nere biyotzean artzeko; baña itz
bat esan zazu, eta, nere arima
sendatua geratuko da,,.

Jesu-Kristo nere Jaunaren
Gorputzak nere arima gorde de-
zala betiko bizitzarako. Olaxe.

JAUN ARTU ONDORENGO

OTOITZAK

Komunioa eman eta gero, apaizak
esaten dituanak

¡Oh Kristo artzen dan Jatei
Deuna! Emen Bere Nekaustea

gogoratu; arima graziz bete; eta etorkizuneko Ederkunaren baintura ematen zaigu.

OTOITZA

¡Oh Ikurton miragarri onen azpiyan Zure Nekaustearen Oroipena utzi diguzun Jainkoa!, eskatzen dizugu, iguzula, Zure Gorputz eta Odolaren Ikurtonak jaurestea, Zure Berteroskuntzaren onkiyak gugan jarraiki nabaitu ditzagun. Bizi eta Nagusi zerana Aita Jainkoarekin Goteunaren batasunean betiraunde guztiyetan, Jainko. Alaxe.



LOYOLA'TAR IÑA DEUNAREN
OTOITZA

Kristo'ren gogoa, santu egin nazazu.
Kristo'ren gorputza, gaizka nazazu.
Kristo'ren Odola, ase nazazu.
Kristo'ren sayetzeko ura, garbi nazazu.
Kristo'ren Nekaustea, senda nazazu.
¡Oh Jesus ona! entzun zadazu.
Zugandik aldentzen utzi ez zadazu.
Etsai gaiztoagandik, gorde nazazu.
Eriyotz-orduan dei zadazu.
Zugana joateko, agin zadazu.
Santu guztiyekin goraldtu zaitzadan.
Betiraunde guztiyetan. Alaxe.

LOYOLA'TAR IÑA DEUNAREN
OTOITZA

Artu eta etartu ezazu nere askatasun guztiya, nere oroimen,

adimen eta nere naimen guztiya,
nere izate eta jabetze guztiya.
Zuk eman ziñidazun, eta Zuri,
Jauna, biyurtzen dizut; guztiya
Zurea da; Zure nayera guztiyaz
atundu ezazu. Zure maitasun eta
graziya eman zaizkidatzu, eta nai-
koa aberatz naiz, eta geyago bes-
te gauzik ez dizut eskatzen.

AKINO'TAR TOMA DEUNAREN

OTOITZA

Eskerrak damaizkitzut, Jaun
Santu, Aita Guziyaltsu, eta Jain-
ko Betikoa, ni pekatari, zure mi-
rabe itsusi au; ez nere aldiñaka-
tik; baizik bakarrik Zure Seme,
Jesu-Kristo gure Jauna'ren Gor-

putz eta Odol edertsuaz asetzeaz diñatu zeralako.

Otoizten dizut, Jaunartze Deun au, ez dedilla izan nere arima zigorkatzeko lokarri; baizik azkes-teko erabide osasungarri. Izan bedi ziñesmenaren burnijantzi, eta naimen onaren gereizpe; nere gaizkeri guztiyen amaibide, eta zalekeri aragikoi guztiyen sakaila; izan bedi Jaumaitasun eta jasamen, apaltasun eta men-egite, eta ekandun guztiyen geikuntza; ekusten diran eta ekusten ez diran areriyo guztiyen maltzurkerien aurka nere aldezman sendo; eta nere gogo eta gorputzeko igikun guztiyen gerantz oso; bai eta itsaspen sendoa Zuganako, egizko Urtzi bakarra, eta nere aizken zoriyontsuaren osakuntza. Eta

otoizten dizut, ni pekatari au, donokiko jatei txitezko artara eramateaz, onetsi dezazula. An bai zera Zu, Zure Seme eta Goteunarekin egizko argitasun, gogase bete, betirozko gozamen, atsegin ontsu eta guztizko zoriyontasun oso osoa. Jesu-Kristogure Jauna arren. Alaxe.

JESUS GURUTZILTZATUARI

OTOITZA

Ona emen ni, joh nere Jesus ontsu txit gozoa! Zure aurrean belaunbikatzen naiz, irazekiro otoizten, irartu dizaizkidatzula nere biyotzean ziñesmen, itxegomen eta maitamenezko gogo bi ziyak, eta nere pekatuen egizko

garbai ta onbiyurtzeko asmo sendoa; nik nere biyotzeko erruki eta samintasun aundiyenaz zure bost zauriyak gogartetzen ditudan bitartean, oroituaz eta begiyen aurrean ikustatuaz, Dabid Igarleak zure aboan jarriyaz, zuzaz esan zituan itzak, jeh Jesus ona!: “Nere esku eta oñak zultu, eta nere ezur guztiyak zenbatu dituzte,,.

(Otoitz au Jesu Kurutzetuaren aurrean egin, Aita Santuarentzat zerbait eskatuaz, esateko, **Aita gure** bat, eta irabazten da barkapen osoa, garbilekuko animei eman ditekena).

Toma Deunaren antzera Ikurton Deunari

1 Jainko izkutatua jauresten zaitut,
Antz-iduripean or zauden J.
Zure aitzinean naiz menberatzen
Zaitutan ezkeroz adiz nabaitzen.

- 2 Ekus-ikumenak uts dute emen;
Bañan entzumenaz zaitut ziñesten:
Egirik ez dago egiyagorik;
Jaunaren esana ziñesten det nik.
- 3 Gurutzau gorderik Jainkotasuna,
Emen baita ere Gizatasuna;
Biyak ziñetsirik aitortzen zaitut,
Lapur onarena eskátzen dizut.
- 4 Zauriyak ekusi Tomak zituan,
Ziñesmen sendoan jarri ninduan.
Ziñetsiz itxegon dezakedala,
Maite beti beti nik zaitzadala.
- 5 Jauna'ren eriyotz-oroigarriya,
Gizonen zeruko ogi biziya,
Zugan bizi bedi nere gogoa,
Izaten zerala nere gozoa.
- 6 Pelikan maitale beti zera Zu,
Odol Jainkozkoaz garbi nazazu,
Odol tanta batez nai bazenduke,
Gizadi guztiya garbi litzake.
- 7 Nabaitzen zaitutan Jaun estaliya,
Itzali zadazu nere egarriya,
Estalkiyak kendu zori onean,
Ekusi zaitzadan zeru goyea.

IRUKOITZ TXIT DEUNARI OTOITZA

Jauresten zaitut, Irukoitz txit Deun, Aita, Seme eta Goteuna, nere Jainko eta nere guztiya. Esker on aizkengabeak damaizkitzut, irazan nazulako; eta berterosi, jagotu eta Zure Ikurton txit Santuak ematen dizaizkidazulako; eta Doibatz Orokarran ipiñi, eta ezin zenbatu ala eskuiki egiten dizkigutzulako neri eta Ludi guztiyari. Ona emen, Jauna, nere barrun eta ataz naizen guztiya, egun ontako, eta nere bizitz guztiko oldozpen, itz eta egintzak, guztiyak Zure Seme txit Deunaren odolean bildurik eskañi eta opaltzen dizkitzut Zure Maita-

sun eta Aintzaz nere eta nere geideen gaizkakunderako. Zure atsege dan guztiya nigandik kendu, eta Zure atsegin dana eman zadazu; zuzendu beti, eta nizaz jabetu zatzakit, Zuk ongiyen nai dezun eraz; eta Zori oneko Birjiña'ren errayak arren, indazu, etzaitzadala beiñ ere iraindu, eta beti beti zure Naikundea egin dezadala. Deuntasuna indazu, Doibatz Orokarraren gogo-eraz. Arimako pozez bete nazazu, toki eta gauz guztiyetan arki zaitzadan; eta aizkenik (ziñopa garaitzaz) Zugana eldutzeko aldiñ izan nadilla. Olaxe.

(Spinola aba Josulaunak).



Lore-Illeko egun guzietan Maria Deun
Deunari eskañi litzaizkioken birtu-
tezko loreak.

1.º Maria'ren izen gozoa entzutean, edo idatzirik ikustean, dagokion anditasuna adierazteko burua zerbait makurtu.

2.º Maria'ren debotorik aundiena izandako purgatoriyuan dagoan animarentzat, meza bat atera, edo gutxienez entzun.

3.º Erlojuak ordua jotzean, Agur Mari bat errezatu.

4.º Goizean jazterakoan eta gabean erazterakoan Ama Birjiña'ri bere bendiziyua eskatu.

5.º Gaitzeren bat egin digunari edo begiz ezin ikusi degunari, mesederen bat egin.

6.º Gorputzaren sentzunak, batez ere begiak arretaz gorde.

7.º Errosarioa esan, onetarako jolas edo lagunarteren bat utzirik.

8.º Birjiñ Ama'ri deboziyo geyena eduki zion Purgatorioko arimagatik iru Aita gure ta Agur Mari errezatu.

9.º Meza entzun, begiyak batu batu jarririk.

10. Maria'ren maitez, erori oi geran utsegitetan ez erori, eta egun ontako lanak alik ongiyen egin.

11. Naigaberik txikiyenik ere ez iñori eman; eta iñork guri ematen badigu, pakez eramán.

12. Otoitz, irakurraldi eta beste arimako lanak adi adi egin.

13. Goizean goiz Birjiñ

Amari eskañi eguneko zeregiñak,
gorputz eta arima.

14. Ordu laurden batez adimenezko otoitz edo gogartea egin.

15. Gogozko Jaunartzea egin: onetarako bost gauz egin ditezke.

1.^a Ziñesmena piztu. 2.^a Jesus jauretsi. 3.^a Pekatuen damu maitezkoa artu. 4.^a Ez geigo pekatu-rik egiteko asmoa. 5.^a Eta Jauna artzeko gogo biziya eduki.

16. Maria'ren gogoa egitea arren, geyegizko jantziren bat badaukazu, ori saldu, eta dirua eskekoari eman.

17. Egun ontan sarri eduki pekatuen damu maitezkoa, eta Gurutzeari muñ egin.

18. Goiz goiz jaiki, nagikeriari tokirik eman gabe.

19. Pekatuzkoa ez izanik ere, gogoko degun jolasen bat utzi.

20. Ordu laurden batez liburu on bat irakurri.

21. Gogapea (kontzientzia) aztertu gaubean oeratzean.

22. Otordu bitartetan ez jan eta ez edan bear andi gabe.

23. Iru bider nork bere gogoia ukatu Birjiñ Ama'ren ize-nean.

24. Nor berak artu zezakean janari zerbait eskeko batentzat utzi.

25. Gaxo, espetxetu, edo atsekabetua dagoanen bat ekustatu eta ongitu.

26. Pekatu larriyan daudenen aldez Maria'ri gogotik otoiztu.

27. Birjiñ Ama'ren maitez umiltasunezko aldiren bat egin.

28. Konpesorearekin itzondufa, ildura edo nekegarriren bat artu.

29. Jainkozko gauzetan nagikeriya kendu.

30. Belaunbiko eta besoak zabalik zazpi aldiz Gloriya Aitari esan Maria'ren zazpi samintasunen oroitzaz.

31. Beraganako epelkeri eta atzerapenagatik Birjiñ Amari barkaziyoa eskatu.

ARIMAKO AMABI LORE

Oyetatik bat aukeratzen da Jorraillaren azken-egunean urrengo ill guttirako.

1.^a Mugonez goizean jaiki, egunaren asieratik alperkeriyari tokirik eman gabe; jantzi eta egu-

noroko otoitz eta eskariyak arretaz egin.

2.^a Lore-illeko egun guztiyetan Meza entzun, eta Errosarioa errezatu bein ere utsik egin gabe.

3.^a Egun bakoitzean ordu laurden batez liburu on bat irakurri.

4.^a Egunoro nork bere buruari gogoko duan gauzen bat ukatu, berez txarra ez izan arren: demagun: jan edo edatekoren bat.

5.^a Txiro edo beartsuaz erruki izanik, berai zerbait eman.

6.^a Lanen bat asterakoan, biyotza zerurontz jaso, eta Maria'ren eskuetatik Jainkoari eskañi, Agur Mari bat errezatuaz.

7.^a Etxetik irtetzean, eta ostera biyurtzean, Maria'ren iduriya agurtu, Agur Mari bat esanaz.

8.^a Zintzoro, pozik eta gogoz egin guraso eta nagusiyen agindu ta esan onak.

9.^a Gauzik txikiyenetan ere ez inõrgatik gaizkirik esan, gero andiyetan nekezago esateko.

10.^a Bakoitzak bere itz eta egite onaz besteren bat onbidera ekartzeko, alegiñean sayatu: demagun: Mayatzeko loreetara, Jainkoaren itza entzutera, erro-sariyoa esatera, konpesatzera eta oyen antzekoetara.

11.^a Geyena zale geran gauzen bat, jan gabe utzi: edo otor-du bitartean ez jan eta ez edan.

12.^a Ezagueraz pekaturik txikiyenik ez egin.





IRU AGUR MITERRA

BEDERATZI - URREN ERAGILLEA

I

¡Oh M. txit Al-
tsua! Zuretzat eziñik ez da. Jain-
ko Aita Alorodunak bereziki
eman zizun almenagatik otoizten
dizut, beartasun ontan sorosi na-
zazula. ¡Oh gauz ustegetuenen
Aldezlari zerana! Zuk lagun di-
zadakezuta, ez nazazu utzi; Je-
su-Kristo'ren aintzal, zure omen
eta nere gogoaren onurak ontan
ardura bai dute.

Bai, nik uste dedanez, eskatzen dizudan ontarte au Jainkoaren naikunde maitagarri deunaz erazki da.

Guziyalmen Arrenlari zeran ezkeroz, ezin ezer ukatu dizazuken Zure Semearen aitzinean nere aldez bitarteko izan zatzakit.

Aita zerukoak eman zizun mugik gabeko Altasun orrengatik berriro eskatzen dizut, Iru Agur Maren en egikun osasungarri au agertu ziñion Matilde Deunarekin batean, Zu omenatuaz, esaten dizudala:

“Agur Maria, emaikiz betea, Jauna Zurekin, donetsiya Zu andreen artean, eta donetsiya Zure sabelak sortua Josu.

Maria Deuna, Jainkoaren Ama, gu ogendioen aldez otoi

egizu orain eta gure eriyotz-al-
diyan. Olaxe,,.

II

txit garbi, adi zuze-
nez Jakindearen Goyalki deitzen
dizutena, Jainkoaren Auti, Jakin-
de irasgea Zugan egonik, Jain-
kozko Jakindearen betetasun
guztiya Berak eman zizun, ira-
zaki guztiyetan onosoenak eduki
dezaken neurriz...

Zein andiya dan nere latzeri-
ya, eta Zure laguntzaren zein
bearrean nagoan, Zuk ongi da-
kizu.

Zure eskuetan osotoro lake-
tzen naiz; uste dedala, Zure Jain-
kozko Jakindeaz guzti guztiya
indarrez eta bigunki nere gogoa-
ren onerako zuzendurik, erabide

egokiz nere beartasuna ongituko didazula.

¡Oh M... Jainkozko Jakindearen Ama, eskatzen dedan eskuikiya iristeaz diña zaite. Ezin esan alako Jainkozko Aditz, Zure Semearen Jakindeagatik otoizten dizut; eta Zu omenatuaz, Iru Agur M... 'en zabaltzalle sutsu Padua'ko Andoni eta Puerto-Maurizio'ko Leonard Deunakin esaten dizudala:

“Agur M...”

III

¡Oh Ama samur eta maitagarriya! aizkenengo aldi abetan Zuk Zerorrek Zere Buruari deitu izan diozu Ama, Guztiya Errukiya zerana. Zugana nator, nizaz erruki eta ontasuna izan ditza-

tzun, ainbat eta geyago, zenbat eta andiyagoa dan nere zori txarra.

Ongi dakit, Zugandik itxegoten dedan onkiyaren aldiñ ez naizela iñolaz; ainbeste bider naigabetu zaitudalako, Zure Semea laidotu izan dedanean. Ogendun naiz, txit ogendun; guztiz garbai naiz ordea; Zure Seme J^{esu} Maitariyaren Biyotza eta Zurea pekatuz igaro ditudalako.

¿Ez altzera ba Zu, Zure mirabe Birjite Deunari agertu ziiñiozun bezela, pekatari damutiyen Ama?

Nere eskergabekeriya azketsi zaizkidatzu; bakarrik Zure Erruki eta Ontasunaz oroiturik, eta Zerorrentzat, eta Jainkoaren-

tzat ortik etorriko dan Aintzala gogoratuaz, Jainko Beraren Errukiyagandik iritxi zadazu, zure bitartez eskatzen dizudan eskui-kiya.

¡Oh Zu, iñork alperrik otoiz-ten ez dizuna! ¡Oh Biyotz biguñ! ¡oh Errukitsu! ¡oh M. Gizgarbi Gozoa! diña zaite, bai, ni sorosteaz diña zaite. Guri laguntzeko, Goteunak bete zaituan Ontasun errukitsu orregatik eskatzen dizut; Zu omenatuaz, Ligorio'ko Albontsa M. Zure Urrikaltasunaren Beldu eta Iru Agur M. en Irakasle Santua-rekin batean, esaten dizudala:

“Agur M.”

OARKITZAK

Ongi izango da, Bederatzi-Urrena bukatzean, bein, bi edo iru aldiz esatea ondorengo otoiztxo au:

“Mi... nere Ama, pekatu larri guztiyetatik gorde nazazu,,.

Besteren aldez egiten bada “gorde ezazu,, esan bear da.

Eskatzen dan ontartea andi ya balitz, egoki litzake, Bederatzi-Urrena iru aldi jarraituetan egitea.

Eskatzen dezuna errexago iris-teko, Birjiñ Amari eskañi zayozu, Iru Agur Mi... zure bizikaro guztiyan beti goiz eta arratzetan esango dituzula.

EDERRENA

Sarritako.

*Zerutar guziyetan
Zu zera ederrena,
Zu izan zaite beti
Gure gozamena.*

Aldiyak.

- 1 Zeruan mallik goyen
Goyena daukazu,
Ederraren ederrez
Berdiñik ez dezu,
Biguntasun eztiya,
Mariya, zera Zu,
Zure magal gozoan
Eduki gaitzatzu.
- 2 Pekatari gaxoen
Poz itxegopena,
Zerutar doatsuen

Doai garayena,
Goiko-Jaun aundiyaren
Gozo gozamina,
Aitor degu zerala
Eder ederrena.

(Iriondo).



AZKEN-AGURRA

Agur, Bakaldun
Goyen goyena,
Poz bikañena
Guretzako,
Zu zera beti
Ama maitea,
Zuzen-bidea
Zerurako.

Ebaren ume
Atzerrituak

Naigabetuak
Gatoz, Ama,
Samintasunez
Eta negarrez
Pozkida-billa
Zuregana.

Ederrak dira
Zure begiyak,
Maitagarriyak
Dira guztiz:
Itzuli itzatzu
Xamur gugana,
Ama laztana,
Txit errukiz.

Atzerri onen
Ondorenean,
Zori onean,

Arren, guri,
Sabel garbiko
Josu maitea,
Zure Semea
Erakutsi.

Ama gozoa,
Gorde gaitzatu,
Lagun zaiguzu
Erbestean;
Beti-betiko
Or gora gora
Zure ondora
Jun gaitean.

(Iriondo).



BELGUNDE EDO JARDUKETA SANTUETAKO

ASMO ONETAN IRAUTEKO

ARAUAK

EGUNORO.—Ardura andikoa data, albada ordu tinkatuan jaiki, eginkizunak Jainkoari eskañi, eta ordu erdiko gogartea erabilli. Mugonez eta gogo.ozoz Jaupa entzun, eta goizalde guztiyan bere bizibideko lanetan jardun. Arratzaldean Agurtza Deunaren ondoren irakurtz on bat egin, eta Ikurton Santua ikertu. Oeratu baño len, Gogapea aztertu, eta gaubeko otoitzak egin.

ASTEORO.—Onbide ekandunetan aurreratzeke erabide txit eragillea da Ogaitortu ta Jaunar-

tzea, guztiyan aitor-entzunle begiramentsu baten zuzenbidez; eta Jaiegunetan beti Jainkozko lanen batzuk egiñaz: aubek izan ditezke: Kristau-Ikastea irakatsi, gaxoak ikertu, txonitzak entzun, Gurutze-Bidea erabilli eta abar.



AGURBENAK

Jesu-Kristo gure Jauna ez dagoan aldarean, bakarrik burua zerbait makurtu bear da. Jesu-Kristo gure Jauna gorderik dagoan aldarean, eskuiko belauna lurreraño jatxi bear da. Orobat Mezatan gure Jauna aldarean dagoan bitartean, eta Jauna artuta bereala bat bere tokira dijoanean. (Gaubeko Jauresleak (adoratzalleak) Jauna artuta bereala dijoazenean, belaunezko agurbenik egiteko oiturarik ez dute). Ospe andiz Jaun Sakramentatua agiriyan badago, belaun biyak lurrean ipiñita, burua sakonki makurtu bear da.

ITZ EZ AIN EZAGUTUAK

A

Abelge, lo contrario de aberatz, pobre.

Abenda, raza.

Aberri, aba-erri, patria.

Abeslari-batz, orfeón

Abestu, cantar.

Abide, aba-ide, pariente.

Abindu, ofrecer, prometer.

Abitz, aba-itz, tradición.

Abizen, apellido.

Abotz, voz.

Adibide, ilustración, ejemplo.

Adigo, adi gogo, intención.

Adikaitz, difícil de entender.

Adiñ, edad.

Adipen, atención, ra-

Aditz, verbo. [zón.

Agian, noski, quizás, Agiri, acta, [acaso. Agiri berreiki, copia de acta.

Aintz, Aintzal, Gloria.

Aitor-entzunle, confesor.

Aitorkuntz, confesión, declaración.

Aitorpen, confesión.

Aitzin, delante, con-

Aizto, cuchillo. [tra.

Aldezlari, defensor.

Aldeztu, defender.

Aldin izan, merecer.

Alketu, avergonzarse.

Alorodun, Todopoderoso; de al, poder y oro, todo.

Alote, duda.

Altseiñ, ministro.

Altsu, poderoso.

Amaitu, terminar.
Anabastu, confundir.
Anaidi, cofradía.
Anaikide, cofrade.
Anker, cruel.
Aolku, consejo.
Apal, manso, humilde.
Araso, negocio.
Arau, regla, norma.
Arauta, reglamento.
Areago, aun más.
Arestian, ha poco tiempo.
Arrendu, suplicar.
Arrenlari, suplicante.
Arrobi, cantera.
Asaba, antepasado.

Askitz, askatu-itz, absolución.
Asmakunde, descubrimiento.
Asterketa, examen.
At, ataz, fuera.
Aterki, paraguas.
Atsege, sin gusto, intranquilo.
Atzipetu, engañar.
Aurkari, contrario.
Aurkeztari, representante.
Ausartu, atreverse.
Autesle, elector.
Auti, Verbo; Jainkoaren Auti, Verbo Divino.
Azterkidetu, comparar.

B

Babes, amparo, abrigo.
Bakaldi, reinado.
Bakaldun, bakaraldun, rey, monarca.
Bakardi, soledad.
Baldintz, condición.
Banakari, Ornilari, administrador.

Berariz, a propósito.
Begirale, inspector, mayordomo.
Begirapen, respeto.
Bekaizkeri, envidia.
Berezi, particular, distinto.
Berterosi, redimir.
Berreiki, copia.

Bilgi, fardo.
Bizibide, oficio.
Bizikaro, tiempo de vida.
Biztanle, habitante.

Burkel, departamento en tren.
Burni-jantzi, armadura.

D

Dakus, ekusten du, lo ve.
Damaio, ematen dio, le da.
Dasa, dio; esaten du, dice.
Dasaio, esaten dio, le dice.
Deun, santo.
Deunge, malvado.
Doibatz, Congrega-

ción santa, Iglesia.
Doibatz Orokarra; Iglesia católica, doi, santo; oro, todo.
Doipurua, Sumo Pontífice.
Doneskañi, ofrenda sagrada.
Donoki, lugar de santos, cielo.

E

Ederkun, gloria.
Edu, modo, tanto.
Egipen, hecho.
Egoitz, estado.
Ele, idioma.
Elerti, literatura.
Elikatu, alimentar.
Emaiki, don, gracia.
Endore, alcalde.

Epai, sentencia, resolución.
Epaikari, juez.
Epe, plazo.
Erakida, conformidad.
Eraldu, organizar, formalizar.
Erausi, charlar.

Erazki, conforme.
Erazartu, excitar.
Erazkitasun, conformidad.
Eredu, ejemplo, modelo.
Eres, canto, música.
Ereserti-Bazkun, banda de música.
Eresi, ansia, anhelo.
Ereti, ocasión, oportunidad.
Erkaba, erri-aba, patriarca.

Ertzi, cercar, estrechar.
Erridi, región.
Etartu, recibir, aceptar.
Eskuiki, don, merced.
Espa, queja. [ced.
Espe, preso.
Espetu, apresar.
Espetxe, cárcel.
Espetxetu, encarcelar.
Ezeñsi, despreciar, perseguir.
Ezkina, encerado.

G

Gaitzetsi, juzgarlo mal, condenar.
Gaizkatu, gaitzetik askatu, salvar.
Gaizpetu, condenar, reprobar.
Gaiztoki, infierno.
Ganibeta, cuchillo.
Garaitu, superar, vencer.
Garau, grano, fruto.
Garbaitu, hacer penitencia, doler.

Gaztearo, juventud-tiempo.
Gaztedi, juventud-multitud.
Gaztigu, aviso.
Gebendu, prohibir.
Geikuntz, aumento.
Geranz, gentz, tranquilidad.
Gerkun, disposición para algo.
Gilluts, desnudo.
Gimen, sentido.

Gizaenda, género humano.

Gizadi, gizarte, sociedad.

Gizaguren, héroe.

Gozari, almuerzo.

Gizgarbi, virgen.

Gogape, conciencia.

Gogartetu, reflexionar, ponderar, meditar.

Gogartu (oartu), volver en sí, reflexionar.

Gogase, contento, satisfecho.

Gogiro, templanza.

Gomutaki, recordatorio.

Gorespendu, ensalzar.

Goretsi, alabar.

Gorpu-burdi, coche fúnebre.

Goteun, Espíritu Santo; de Gogo, Deun.

Gotzai, obispo.

Goyalki, trono.

Goyargi, luz de lo alto, inspiración.

Guda, guerra.

Idasti Deuna, Escritura Sagrada.

Idazti, libro.

Ideko, semejante, coetáneo.

Iduri, imagen.

Igitu, mover.

Iguin, repugnancia.

Ikertu, visitar.

Ikurton, de Ikur y Deun, signo sagrado, Sacramento.

Ikurtu, significar.

Ikustatu, revistar, contemplar.

Ildura, mortificación

Ilduratu, mortifi-

Ingi, papel. [car.

Ingigogor, cartulina.

Ingistoki, buzón.

Ingurri, hoja de pa-

Ingurti, folleto. [pel.

Iraille, eraille, asesino.

Iraindu, injuriar, ultrajar.

Irasi, hacer que em-
pieze algo, fundar.
Irasle, fundador.
Irarri, imprimir, es-
tampar.
Irazan, crear; Ira-
zange, increado.
Irukoitz, Trinidad.
Iseka, burla, escar-
nio.
Ifandu, preguntar.
Itun, triste.
Itzalpen, respeto.

Itzegilla, discursean-
te.
Itzonu, consejo bue-
no.
Ixuri, derramar.
Izaki, criatura.
Izpar, noticia.
Izparringi, periód-
ico.
Izpartoki, gacetilla.
Iztarki, jamón.
Izurri, peste, mal
contagioso.

J

Jabotetxe, asilo.
Jakindea, sabiduría.
Jarki, oponerse, per-
Jasan, sufrir. [seguir
Jatei, convite.
Jaupa, Jaun-opa,
Misa.
Jaupari, sacerdote.

Jauretsi, jauntzat
euki, adorar.
Jaurleri, gobernador
Jaurri, gobernar.
Jauskañi, ofrenda,
víctima.
Jayera, devoción.
Jayeradun, devoto.

K

Kedatsa, incienso.
Kezka, inquietud,
cuidado, remordi-
miento.
Kide, prójimo, com-
pañero.

Kidetasun, identi-
dad, relación.
Kirol, deporte.
Kopuru, número má-
ximo.

L

Laido, afrenta, deshonra.	Laurendu, descuar-tizar.
Laidotu, afrentar, deshorrar.	Leiatu, empeñar.
Lakemen, permiso.	Lekaide, fraile.
Laruba, laru-miña, ictericia.	Lili, flor.
Larranbillo, flor de manzanilla.	Ludi, tierra, mundo.
Laterri, lege-erri, estado.	Lurbira, globo de la tierra.
	Lurki, región.

N

Nabaitu, notar, percibir.	Nekauste, Pasión.
Naikunde, voluntad.	Neskutz, Virgen.
Nekal, castigo, mortificación.	Niketz, de mi parte.
	Notiñ, persona.

O

Oarkabe, distracción, inadvertencia.	Oarkuna, advertencia, cita.
Oarkitza, advertencia.	Oarpen, observación, apercibimiento.
	Oarpetu, precaver.

Obi, concavidad.	Opariya, obsequio, ofrenda.
Ogaitortu, Obaitortu, confesar pecados.	Oparo, generosamente.
Ogen, pecado; Ogen-di, pecador.	Ordaintza, satisfacción, recuperación
Ogituko, empleado.	Ornitu, proveer, administrar.
Oldozpen, pensamiento.	Oroitu, recordar.
Oldoztu, pensar.	Osalari, médico.
Omen, honra, fama.	Osakai, remedio.
Onespen, oneraspen, aprobación, estima, bendición.	Osakigiñ, boticario.
Onetsi, agradar, honrar, bendecir.	Oste, trasera, gentío.
Ondape - Jasoñ, cimiento.	Oteun, ogi-deun, pan consagrado, Eucaristía.
Onkarle, beneficioso	Oteundegi, sagrario.
Onki, beneficio, merced.	Otezki, duda.
Onura, provecho.	Otoi, ruego.
Oñordeko, descendiente.	Otoitz, oración.
	Otoizketa, oficio divino, rezo.
	Otzandu, calmar.

S

Salakunde, denuncia	Salkiña, traidor.
Sakaildu, herir, exterminar.	Sendi, familia,
Sakaill, tajo, herida grave, exterminio.	Sorosi, socorrer.
	Soroski, socorro, alivio.

Soroski-Batzorde,
junta de socorros.
Soroskunde, acción
de socorrer.

Sorospen, favor.
Sorospide, limosna.
Susmu, sospecha.

T

Tamal, lástima.
Tinkatu, apretar,
asegurar, fijar.

Tinki, firme.

TX

Txadon, iglesia-lugar
Txiro, pobre.

Txitezko, inefable.
Txonitza, sermón.

U

Uar, advertencia.
Ugin, ola.
Ugutz, bautismo.
Ujolde, Ujala, inun-
dación.
Ulertu, entender.
Urdall, estómago.

Urruinkeri, despre-
cio, vileza.
Urtzi, Jainko, Dios.
Ustegetu, desconfiar,
desesperar.
Ustepen, Ustekunde,
confianza, opinión
Ustetsi, fiar, confiar.

Z

Zaindari, guarda, pa-
trón.
Zalgurdi, coche.
Zakel, bolsillo.

Zama, carga.
Zenbaki, número.
Zenbatu, numerar.
Zigor, castigo.

Ziltzaldi, tentación.	Ziurkai, certificado.
Ziltzaldu, tentar.	Zorundun, beato.
Ziñopa, mártir de la Fe.	Zuaitz, árbol.
Zipi, veneno.	Zuzenbide, dirección
Zipitsu, venenoso.	Zuzitu, destruir.

¡Eleiza Jaungoikoaren etxea da!
¡Eleizan ez txisturik bota!
¡Eleizan ez itzik egin!
¡Eleizan ez errezatu altu!
¡Eleizan itzalez (errespetuz)
egon!
¡Eleizan emakumeak burua
estaldu!

Kristau batek, (naiz izan giza-
semea, naiz emakumea) iduki le-
zakean oiturarik onena da egu-
noro Meza entzun eta Jaun-artu
edo Komulgatzea.

ARKIBIDEA

	<u>Orrial- deak</u>
Meza guzien eskaiña	4
Oarkuna	5
Irakurleari	7
Kontriziozko Egintza itz gu- txitan	11
Lenengo eguna. —Maria'ri ill on- tan agertzen zayon jayeraz .	12
Bigarren eguna. —Gure anima- ren gaizkapen edo salbazi- yuaz	19
Irugarren eguna. —Gure anima- ren aunditasun eta edertasu- naz	25
Laugarren eguna. —Gure gor- putzaren sari onaz	31
Bosgarren eguna. —Bizitzaren laburtasunaz	37
Seigarren eguna. —Eriozko pe- katuaz	43

Zazpigarren eguna. —Pekatuak dakarzkian ondorenak.....	47
Zortzigarren eguna. —Eriotzaz.	53
Bederatzigarren eguna. —Guzien aizken-epaiaz	58
Amargarren eguna. —Inpernu-ko oñazeaz.....	64
Amaikagarren eguna. —Inpernuan betiko galdurik daudenaz.....	71
Amabigarren eguna. —Gizonaren eskargaiztoaz.....	78
Amairugarren eguna. —Eskandaloz	84
Amalaugarren eguna. —Munduari ta bere esamesai diyegun begirapenaz.....	89
Amabosgarren eguna. —Zeruko zorionaz.....	96
Amaseigarren eguna. —Zerurako bidez.....	103
Amazazpigarren eguna. —Ama Birjiña'ganako deboziyoaz..	109
Emezortzigarren eguna. —Jain-	

koa beti begira dagokigula gogoratzeak dakarzkian on- kiaz.....	115
Emeretzigarren eguna. —Goiko Jaunari zor diyogun menbe- tasunaz	120
Ogeigarren eguna. —Jaungoi- koagana biurtzea gerorako uzteak dakarzkian kalteaz..	126
Ogeitabatgarren eguna. —Kon- pesiyoko Sakramentuaz....	132
Ogeitabigarren eguna. —Komu- niyoko Sakramentu txit Deu- naz	137
Ogeitairugarren eguna. —Jain- koaren deigoyargiaz.....	142
Ogeitalaugarren eguna. —Beka- tu Benialaz	147
Ogeitaboskarren eguna. —Pur- gatoriyuaz	151
Ogeitaseigarren eguna. —Jesus aurrak Belen'go ganbelan di- rauskigun ikaskizun ederraz.	156
Ogeitazazpigarren eguna. —Je-	

sus'ek bere gaztearoan damazkigun ikasgai ederraz . .	161
Ogeitazortzigarren eguna. —Jesus-Kristo'k basamortuan eman zizkigun eredu ederraz.	166
Ogeitabederatzigarren eguna. —Jesus Gurutzetuaren Maite-tasunaz	171
Ogeitaamargarren eguna. —Maria Birjiña'k Gurutzearen oñean igarotako samintasunaz	177
Ogeitamaikagarren eguna. —Jesus-Kristo'ri zor diyogun maite-tasunaz	183
Maria guziz Deunari gure biotzak osoro eskainteko otoitza.	191
San Bernardo'k Ama Birjiña'ri egiten zion otoitza	193
Loretxo eder bana	194
Loreak eta biotza	196
Liriyo txuriya	198
Krabelintxo bat	199
Milla biyotz banitu	200



Izar gidariya	201
Guziz garbiya	203
Maria ederrari	204
Azken-agurrak	205
Guzti guztijok alkar arturik	207
Meza Santua entzuteko egi- kera	214
Azterketa aurretik egiteko otoi- tza	221
Gogape-azterketa egiteko arau- ta laburra	221
Aitorkuntza	228
Garbaya biyotzean sortzeko otoitzak	230
Garbai-egintza	233
Aitorkuntzaren egikera	234
Aitorkuntz ondorengo otoitzak	236
Jaunartu aurreko otoitzak	239
Birjin Orban-gabearen bitartez otoitza	241
Toma Deunaren otoitza	242
Jaun artu baño len ekandun ba- tzuen egintzak	244
Jaun artu ondorengo otoitzak	247

Loyola'tar Iñaki Deunaren otoitza	249
Akino'tar Toma Deunaren otoitza	250
Jesus Gurutziltzatuari otoitza	252
Toma Deunaren antzera Ikurton Deunari	253
Irukoitz txit Deunari otoitza	255
Lore-Illeko egun guzietan Maria Deun Deunari eskañi litzazkioken birtutezko loreak	257
Arimako amabi lore	261
Iru agur Miren'en Bederatzi-Urren-eragillea	264
Ederrena	271
Azken-agurra	272
Belgunde edo jarduketa santuetako asmo onetan irauteko Arauak	275
Agurbenak	276
Itz ez aiñ ezagutuak	277







